goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2012-06-08
EGUBAKOITZA
512. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Puntako atletak lasterka, Oñatin

Hamar urte beteko ditu Corpus bezperako lasterketak | 28



## Oñati Corpus jaietan murgilduko da asteburuan | 19

Bergarako gaztetxean ospakizunak, datorren aste bukaera bitartean | 18



'Hitzen Musikaz Hazi' kontzertu berezia Arrasaten | 32



Araoztarrengandik jasotako ondarea batu dute liburu baten | 31




# ODOL EMAILEEI AITORTZA

Leintz bailaran, Aretxabaletan, ospatuko dute lehenengo aldiz Arabako Odol Emaileen Eguna | 12

Aretxabaletako odol emaile taldea, astelehenan egin zuten ateratzean. | ARRITXU BARRUSO

# Ezkutuan dauden sexualitateak aldarrikatzeko jardunaldiak

Ekainaren 28an Gay, Bisexual, Lesbiana eta Transexualen Harrotasun Eguna ospatuko da; ezkutuan dauden sexualitateak aldarrikatzea izango da Arrasateko jardunaldien asmoa. Eredu heterosexual eta bikote eredutik irteten direnak dira ezkutuan dauden sexualitateak. | 2

## SINADURAK

Ibiligorri | 6
MANU ARREGI
6 | Dantzan jarriko zarete
MONIKA BELASTEGI
Ilusiozkoaren deskripzioa | 15
NEREA MAKAZAGA
40 | Zinema politikoa
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 12 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

## Atez ateko sistema bilketa onartu du Eskoriatzako osokoak

Hiru zinegotzik (tartean, Bilduko bat) kontra bozkatu zuten | 24

## "Bankiako arduradunek kartzelan bukatu beharko lukete"



**Mikel Arana** | Ezker Anitzako legebiltzarkidea | 10

Passat Alltrack berria



Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Das Auto.

# Zenbat buru, hainbat... sexualitate!

Ekainaren 28an Gay, Bisexual, Lesbiana eta Transexualen Harrotasun Eguna ospatuko da; ezkutuan dauden sexualitateak aldarrikatzea izango da asmoa.



Iratxe Vazquez eta Belen Azkarate, Beñat eta Ainhize seme-alabekin, Antzuolako Antigua

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Ezkutuan dauden sexualitateak aldarrikatzea da Harrotasun Egunaren bueltan Arrasateko Sexologia Bulegoak antolatu dituen jardunaldion helburua. Ekainaren 28an ospatuko da Harrotasun Eguna, ospakizunetarako eguna batzuendako, aldarrikapenetarako beste askorendako.

Sexologia Bulegoko Maialen Elizburuk azaldu du gaur egungo eredu heterosexual eta bikote eredutik, eta familiara bideratutako eredutik irteten direnak direla ezkutuan dauden sexualitateak: eta, batez ere, lesbianak eta transexualak direla baztertuen daudenak. Hala, lesbianismoa eta transexualitatea jorratuko dituzte, besteak beste. "Asmoa da arraro edo perbertsotzat jotzen diren sexualitateak balizkotzat jotzea", dio Elizburuk.

**Lesbianak, alboratuta**

Orokorrean, gizonezkoen sexualitateak emakumezkoenak baino indar edo nagusitasun handiagoa izan du. Bada, egoera hori homosexualen artean ere islatu da; hala, lesbianak beti egon izan dira alboratuago eta ez dira gizartean gayak bezain ondo hartuak izan.

> **DATUA**
>
> **926**
>
> HILDAKO
>
> 926 dira urtea hasi denetik mundu osoan hil dituzten transexualak. Transfobiak eragindako hilketak direla salatu du Ixotz Louystek.

**Bi ama, familia bat**

Belen Azkarate eta Iratxe Vazquez 2008an ezkondu ziren, Antzuolan. Urtebete lehenago Beñat semea izan zuten, eta 2010ean Ainhize jaio zen. "Beñat jaio zenean ezkondu barik geunden eta arazoak izan genituen semea bion izenean erregistratzeko; nik adoptatu egin behar izan nuen", azaldu du Belenek. Ainhize jaio zenean, ostera, familia-liburuan erregistratu zuten inongo arazo barik. Alde horretatik, homosexualen arteko ezkontzak legezkoak izatea aurrerapausoa izan dela gaineratu dute. Gizonezkoen kasuan ez da abantaila izan: homosexualen arteko ezkontzak onartzen ez dituzten herrialdeetan homosexualek ezin dute umerik adoptatu –bai ezkongabe moduan, baina ez ezkonduta baldin badaude.

Gaur egun sexu askapena lortu dugula ematen duen arren, hori horrela ez dela uste du Belenek: "Datuek guztiz kontrakoa adierazten dute". "Jende askok onartzen duela esaten du, baina nahiago dute ondokoari gertatzea eta ez berari edo bere familiako bati", dio Belenek. Eurek pausoa eman zuten garaia nola gogoratzen duten galdetuta, Belenek dio garrantzitsuena dela nork bere burua onartzea: "Batzuek oso argi izaten dute hasieratik; nik, adibidez, ez neukan hain argi eta lehenengo urteetan kosta egin zitzaidan egoerara moldatzea", azaldu du. Behin hori onartuta, familiakoei esatea izan zen hurrengo pausoa: "Lehenbailehen etxean esan gura nuen, gero herrian zabaltzea ez zitzaidan axola", dio Belenek. Horren harira, Belenek aholkatzen du maite duzun jendeari egia esatea: "Beste guztiak berdin du". Pausoa eman zutenetik hainbat urte pasatu dira, eta gaur egun familia osatzen dute. Egoera hau hain natural bizi izatea pentsatzen zuten galdetuta, Belenek aitortu du "pribilegiatu" hutsak direla: "Jende askok borrokatu du, gaizki pasatu du, zigortuak izan dira eta baita erailak ere"; horregatik, borrokatzen jarraitu behar dela gaineratu du.

**Semearen galderak**

Eskolan familia eredu berrietara egokitzen dabiltza poliki-poliki. "Antzuolako eskolan oso lan ona egin dute. Familia berri bat izango zutela aurreikusi zuten eta irakasleak pedagogia sistematikoko ikastaroa jaso zuen", diote Iratxe eta Belenek. Gainera, bilerak egin izan dituzte eta Iratxe eta Belen prest daude edozein zalantza argitzeko. Familia guztiendako baliagarria izango den eredu bat bilatu gura dute: "Etxera bidaltzen diren orrietan *Kaixo aita eta ama* bezalako oharrak ekiditea, adibidez", diote.

Bikoteak dio Beñatek askotan galdetu izan duela ea nola iritsi zen bera Iratxeren tripara. "Guk

> ## Jaurlaritzarekin lanean dihardute
>
> Magala elkarteko kide dira Belen Azkarate eta Iratxe Vazquez. Maiatzean Gasteizko Parlamentuan egon ziren gainerako LGBT taldeekin batera afektibitate eta sexu aniztasunaren kudeaketaren gaineko 2011-2013 lan plana aurrera eramaten. Helburu nagusia sexu-orientaziorengatik eta genero identitatearengatik diskriminazioaren aurka eta berdintasunaren aldeko politika publikoen garapenean lan egitea da, eta baita euskal gizartea eta euskal gizarteko agenteak sentsibilizatzea ere. 12 helburu orokor zehaztu dituzte eta 66 jardun proposatu dituzte ondoko arloetan garatzeko: hezkuntza, osasuna, talde bereziki kalteberen laguntza eta sentsibilizazioa.

Orain Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?




Rosa Sarabia doktoreak
kontsulta berria irekiko du:
PronoKal® metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia

CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.
PSE: 37/04




a elizaren ondoan. | ARANTZAZU EZKIBEL



Ixotz Louyest, Arrasaten. | A.E.

## ESANAK

**"Perbertsotzat jotzen diren sexualitateak balizkotzat jo nahi ditugu"**

MAIALEN ELIZBURU
SEXOLOGIA BULEGOKO TEKNIKARIA

**"Semeari beti esan izan diogu bi ama dituela, egia esan diogu"**

BELEN AZKARATE
LESBIANA

**"Osorik ikusten dut nire burua, ispilu aurrean, baita nire nortasunarekin"**

IXOTZ LOUYEST
TRANSEXUALA

beti esan diogu bi ama dituela, baina umeek badakite ama eta aita behar direla umeak izateko", diote. Inoiz ez dute izan egia desitxuratzeko asmorik; horregatik, Iratxe intseminazio artifizialez haurdun geratu zela azaldu zioten semeari, eta ordutik mutikoa ase geratu dela diote: "Eskolan berak azaldu du nola etorri den mundura". Beñatek ez du inolako arazorik izan eskolan, baina beldur dira arazoak sortuko ote diren gurasoen aurreiritziak sartzen direnean tarteko. "Ama galdu berri duen mutiko batek Beñati esan zion zelako zortea zuen bi ama izateagatik", azaldu du Belenek. Bitxikeria "hunkigarria". Nagusien aurreiritziak tarteko ez daudenean dena naturala eta normala den erakusle.

**Transexualen egoera larria**
Transexualak dira ezkutuan dauden beste kolektibo bat, eta Ixotz Louyest bergarararrak ondo ezagutzen du hori. "Egia da lesbianak beti ezkutuan ibili direla, eta emakumeak izan dira kolpe handienak jaso dituztenak gizartean, baina egia da baita ere transexualak askoz ere atzerago egon izan direla", dio. 12 urte pasa dira Ixotzek gizona dela onartu zuenetik eta ordutik gauzek hobera egin duten arren, oraindik ere gauza asko dagoela egiteko dio. "GLTB federaziotik irten eta gure federazioa egitea erabaki dugu", azaldu du. "Gustatuko litzaiguke hezkuntzan sexologia sartu eta transexualitatearen inguruan gehiago kontatzea", dio. Ixotzek gogoan du 16 urte zituenean ikastolara sexologo batzuk joan zirela: "Transexualitateaz galdetu nuen, baina klasean ez zuten ezer aipatu. Klasea amaitu ondoren itxoiteko esan zidaten, eta, guztiak joan zirenean, informazioa eman zidaten", gogoratzen du. Informazio horren arabera transexual izateko bidea hartuz gero "etorkizun iluna" izango luke.

Denbora luzean bizi izateko gogo barik egon da Ixotz, baina, azkenaldian, berriro ere indartuta dago. Orain dela sei hilabete faloplastia ebakuntza egin zioten Bartzelonan, teknika berri bat erabilita. "Besotik azal zati bat kendu didate eta aprobetxatu dute besoko arteria erradiala uretra moduan erabiltzeko. Zati horrekin zakila egin dute", dio. Baina arazo bat izan du ebakuntzarekin: besoko azaleko ileak kentzea ahaztu zitzaien eta ile horiek zauriak egin dizkiote. Ekainaren 11n berriro ere joan beharko du Bartzelonara, zakila zabaldu, azala lehortu eta depilazioa egitera. Bestalde, beste bi ebakuntza geratzen zaizkio: batetik, barrabilak jarriko ditu (eskrotoko azala betetzea izango da); eta sexu harremanetarako erekzioa izateko ebakuntza egin beharko diote.

Zirujauak bideoz grabatu gura zuen ebakuntza, eta, horregatik, ia doan atera zaio Ixotzi: "Hala ere, operazio hau 25.000 euro inguru izango da". Gizarte Segurantzak ez du horrelako ebakuntzarik estaltzen: "Gurutzetan endokrinologia eta psikiatria zerbitzuak eskaintzen dituzte". Gaineratu du bularra jarri eta kendu eta bagınoplastia eta isterektomia ebakuntzak egiten dituen zirujaua ere badagoela Gurutzetan. Oro-korrean, pozik dago Ixotz: "Osorik ikusten dut nire burua, ez bakarrik ispiluaren aurrean, baita nire nortasunarekin ere". Eta gaineratu du emaztea ere pozik dagoela.

## 'Maskarak' filma

Ander Bolibar, Ariane Irazusta, Miren Ormazabal eta Oihan Vitoriak Maskarak film laburra egin dute, Ixotzen eta haren emazte Ainara Ruizen bizitzan oinarrituta. 2012ko Huhezinema jaialdian ikasleen film labur onenaren saria (Epaimahaiaren saria) eta film labur dokumental onenaren saria (Publikoaren saria) irabazi ditu.



Filmeko kartela. | GOIENA

## JARDUNALDIETAKO EGITARAUA

**KULTURATEN**

**Ekainak 12** 19:00etan *Transamérica* filma.

**Ekainak 13** 19:00etan *Crítica del pensamiento amoroso* liburua aurkeztu.

**Ekainak 20** 19:00etan *El último verano de la boyita* filma.

**Ekainak 27** 19:00etan *The kids are all right* filma.

**GAZTETXEAN**

**Ekainak 10-14** Lesbianismoaren inguruko erakusketa.

**Ekainak 10** 18:30ean *Mi sexualidad es una creaccion artistica* dokumentala.

**KALEAN**

**Ekainak 21** 19:30ean *Pronostiko erreserbatua* antzerkia

NISSAN BERME ONENA DUTEN PREZIO ONENAK ZAIN DITUZU
Nissan. Innovation that excites.

NISSANCOLLECTION
USED•APPROVED•YOURS

NISSAN
SHIFT_



NISSAN JUKE
TEKNA SPORT 1.6 117 ZP (86 kW) gasolina 4X2
15.900 €-ren truke



NISSAN NOTE
ACENTA 1.4 88 ZP (65 KW) gasolina
12.600 €-ren truke

NISSAN GAURSA
Otaola etorbidea, 22
20600 - Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 820 974

Juke: Kontsumo mistoa: 6 l/100 km. $CO_2$ isurpenak: 139 g/km. Note: Kontsumo mistoa: 5,9 l/100 km. $CO_2$ isurpenak: 139 g/km.
Zergak barne. Prezioan sartuta daude transferentzia-gastuak.

# Hondakinak kudeatzeko estrategiaz, gaur, Arrasaten

## Aldundiak asteon aurkeztu du, eta Zubietan errauste plantaren ordez biometanizazio planta aurreikusi dute

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Gipuzkoako Aldundiak hondakinak kudeatzeko estrategia aurkeztu zuen martitzenean Batzar Nagusietan. Estrategia horrek Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra eguneratu eta egungo errealitatera egokitu du. Izan ere, "aurreikusitako hondakin sorrera %12 murriztu da egun", eta horrek "hondakinen tratamenduari eman beharreko neurriak berriro planteatu beharra" dakar berarekin, Juan Carlos Alduntzin Ingurumen diputatuak esandakoaren arabera.

Aldundiaren estrategiak 2014an Gipuzkoako egungo "hiru zabortegi kutsakorrak ixtea", sei konpostaje planta sortzea –horietako bat, Epelen, Bergarako lurretan– eta Zubietan biometanizazio planta bat egitea aurreikusi du: planta horrek energia berriztagarria sortuko du.

Azpiegitura sare osoa egiteko, "orain arte aurreikusitako diruaren erdia" erabili beharko da. Estrategiak "aurrerapauso handia emango du gaur egungo egoerarekin alderatuta, sortutako hondakin guztiak tratatzea ahalbidetuko du-eta. Era horretan, Gipuzkoak Europako araudia beteko du, Aldunditik azaldu dutenez.

Prebentzio arloari ere "garrantzi berezia" eman diote: "2016rako hondakin sorrera %4 murriztuko da". Bilketari dagokionez, "2016rako lurralde osoko hondakin guztien %60 gaika biltzea" aurreikusi dute. Auto-konpostajea eta konpostaje komunitarioa sustatzeaz gain, "elikagaien xahuketa eragoztea" ere aurreikusi dute.

Estrategia herritarrei aurkezteko zenbait batzar egingo dituzte. Gurean Arrasaten gaur izango da, 19:00etan, Kulturaten.



Bilduko eta talde independenteetako alkateak. | GOIENA

### Ez dute erraustegia finantzatuko

Gipuzkoako 50 alkatek, horien artean Debagoienekoek, asteon iragarri dute ez dutela Zubietako errauste planta finantzatuko eta euren herrietako zaborra ez dutela erraustuko, Donostian egindako agerraldian. Bilduko eta formazio independenteetako alkate horiek esan dute zaborra jasotzeko orain arteko sistemarekin ezin dela jarraitu, eta birzikla daitekeen guztia birziklatzen saiatuko direla esan dute. "Zerbitzuei eusteko eta aurrekontuetako arazo larriak" dituzten garai hauetan, udalak ez daude "nahi ez duten errauste plantan" dirua gastatzeko prest. Era berean, atez atekoaren alde azaldu dira "bilketa modu horrekin %80 birziklatzen delako".

# Eusko Jaurlaritzak bultzatutako haur-etxea jarriko dute Bergarako Osintxu auzoan irailean

## Zerbitzuari buruzko argibideak emango dituzte Bergaran eta Aretxabaletan hitzaldi banatan

M.B. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak haur-etxea jarriko du Bergaran. Irailean hasiko da funtzionatzen eta Osintxu auzoan egongo da, Olatz Azkondoren etxean.

Haur-etxea 0 eta 3 urte arteko haurren zainketa arduratsua eskaintzen duen alternatiba berri bat da, eta, gehienez, lau haurtxorekin osatutako taldeetan egiten da, familia habia baten barruan. Familia habian konfiantzazko zainketa eskaintzea da asmoa, haurtxoarendako babes, maitasun eta segurtasunezkoa izango den familia -giroan. Jaurlaritzaren proiektu pedagogiko hori banakako arretan oinarrituta dago, eta haurtxo bakoitzak dituen premia eta garapen-erritmoetara egokituta.

Zerbitzua zaintzailearen etxean eskaintzen da. Era horretan zaintzailearen etxea familia habia bihurtzen da, haurtxoak zaindu eta hartzeko bereziki egokitutako eta hornitutako etxe bat. Hain justu, familia habia umearen etxearen hedapena izatea da helburua.

Zaintzaileei dagokienez, prestakuntza berezia eta akreditatua izan dute eta gainbegiratze pedagogikoa egiten zaie lanean. Hain justu, Jaurlaritzako Gizarte Ekimenak bultzatutako Agintzari proiektu kooperatiboaren barruan daude.

**Informazio hitzaldiak**

Zerbitzuaren gaineko xehetasunak emateko bi hitzaldi egongo dira datorren astean: hilaren 12an, Aretxabaletako Arkupen egingo dute, 18:00etan, Kuku Miku elkarteak antolatuta; Bergaran 14an izango da, 18:30ean, Miguel Altunan, Bizikasiren laguntzarekin.

## Mondragonek 343 milioiko emaitza operatiboekin eta lanpostuei eutsita itxi zuen 2011ko ekitaldia

Mondragon Korporazioak asteon jakinarazi duenez, "modu egokian" itxi zuten 2011ko ekitaldia: 343 milioiko emaitza operatiboekin eta lanpostuei eutsita. Emaitza horien arrazoi hauek aipatu dituzte: negozioen eskaintzaren dibertsitatea eta nazioarteko merkatuetan gero eta presentzia handiagoa izatea; eta berrikuntzaren aldeko apustu irmoa, 2011n Industria Arloan egindako salmenten heren bat produktu eta zerbitzu berriak izan baitira, 5 urte lehenago ez zeudenak.


TXANTXIKU IKASTOLA

**TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**EGITARAUA**

**EGUNA:** Ekainaren 26a, martitzena.
**ORDUA:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean
**LEKUA:** Ikastolako aretoa (San Juan kalea, 1)

1. Akta onartzeko bi kide izendatzea.
2. Aurreko aktaren txostena irakurri eta, hala badagokio, onestea.
3. Kudeaketa txostenaren berri ematea, eta onartzea.
4. 2011 urteko kontuak eta 2012 urteko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
5. 2011 urteko emaitzen banaketa onartzea.
6. Txantxiku Ikastola Koop. Elk., Euskal Herriko Ikastolen Elkartasun Kutxa, Europar Koop. Elkartean sartzeko erabakia hartzea.
7. Gurasoen Kontseiluaren txostena azaltzea.
8. Zaintza Batzordeko kide berria aukeratzea.
9. Eskariak eta galderak.

OHARRAK:
Bazkide guztiei gogorarazten zaie urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

Oñatin, 2012ko ekainaren 5ean



ULMA Grupo ULMA, S. Coop. Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**
**D E I A**

**Eguna:** 2012ko ekainaren 15a
**Ordua:** 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena
**Tokia:** Santa Ana antzokia – Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2011ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2012ko Gestio Plana berrestea.
3. 2011ko ekitaldiko urteko kontuak onartzea.
4. 2011ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena.
5. POGU III eta ULMA Taldeko kooperatibetako Barne Araudi Kooperatiboko 27., 28., 42., 43. eta 46. artikuluak aldatzea onartzearen berrespena, hala badagokio.
6. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaiei buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea.
7. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
8. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
9. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
10. Ahalmenak eskuordetzea.
11. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, Grupo ULMA, S. Coop.eko helbide sozialean proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketen testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2012ko ekainaren 1a


## Apirilean pixka bat behera egin du langabeziak gurean

M.B. | ARRASATE

Apirilean pixka bat behera egin zuen langabezia tasak Debagoienean eta maiatzean ere beste koskatxo bat egin du behera. Hala, maiatza 3.286 langaberekin itxi genuen, apirilean baino 58 langabe gutxiagorekin.

### HERRIZ HERRI

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| **Antzuola** | 90 | %9,89 |
| **Aretxabaleta** | 309 | %9,58 |
| **Arrasate** | 1.354 | %11,70 |
| **Bergara** | 809 | %11,28 |
| **Elgeta** | 52 | %10,57 |
| **Eskoriatza** | 225 | %10,82 |
| **Leintz Gatzaga** | 7 | %5,26 |
| **Oñati** | 440 | %8,14 |
| **GUZTIRA** | **3.286** | **%10,60** |

*Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoa

**Inazio Arregi** | Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia

# "Udal laguntzak ere jaisten ari dira, eta zailtasunak izango ditugu"

Batzar orokorra egin zuen atzo arratsaldean Goiena Komunikazio Taldeak Arrasaten

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE



Inazio Arregi. | GOIENA

Kulturaten egin zuten batzarra Goiena Komunikazio Taldeko ordezkariek. Batzarraren gaineko xehetasunak eta Debagoieneko komunikazio talde horrek epe laburrerako dituen asmoen berri eman digu Inazio Arregik, zuzendari nagusiak.

**Ze balantze egiten du Goienak 2011ko ekitaldiaz?**

Urte zaila izan da. Ekonomikoki larri gabiltza euskal hedabideak. Gure kasuan udal laguntzak garrantzitsuak izan dira proiektuari eusteko, baina hauek ere jaisten ari dira, eta zailtasunak izango ditugu.

**Bada, zenbat nabaritu duzue krisiaren eragina eta horren aurrean ze neurri hartu dituzue?**

Zoritxarrez, doikuntza txiki batzuk egin behar izan ditugu plantillan. Langileen profesionaltasunari esker bere osotasunean eutsi ahal izan diogu proiektuari, baina, duda barik, hainbat aldaketa egin beharko dira baldintza orokorrak aldatzen ez badira.

**Egoera ekonomikoa eta komunikabideen bilakaera, faktore horiek kontuan hartuta, Goienaren etorkizunaren gaineko hausnarketa estrategikoa egitekoak zarete epe motzean.**

Herritarrok jasaten ari garen krisi ekonomikoa eta kontsumitzeko ohitura berriek eredua birplanteatzera eramaten gaituzte. Ez bihar erabaki drastiko batzuk hartzeko, baina bai etorkizuna argituko duen bide-orri garbi bat edukitzeko. Instituzioen lankidetza ezinbestekoa izango da proiektu sendoak nahi baditugu.

**Aretxabaletan eraikin berri bat egitekoak ere bazarete arlo guztiak batu eta elkarrekin han kokatzeko. Nola dago gai hori?**

Gaia berraztertu egin behar dugu gaurko parametro ekonomikoen barruan. Ezin gara sartu gure jarduera nagusia hipotekatuko duen proiektu batean. Zenbakiek ematen badute aurrera egingo dugu, baina, bestela, proiektua atzeratu egin beharko da.

**Tokikom, tokiko hedabideen elkartea, eratu duzue euskarazko tokiko beste hedabide batzuekin batera. Zertarako?**

Euskal hedabideok badakigu aldatu ezean gureak egin duela. Ez dakigu nondik joango den aldaketa, baina sarea eta talde lana ezinbesteko baldintza izango dira biziraun behar badugu. Beste gauza batzuen artean, hori da Tokikom elkarteak bultzatu nahi duena: lankidetza eta hedabideen amarauna.

**Aztiker aholkularitzak Goienaren medioen gainean egindako neurketaren berri ere eman zenuten batzarrean.**

Bai; 800 laguni egindako galdeketa bat izan da, eta herritarrek Goienari erakutsitako atxikimendua ikaragarria izan da. Eskertzekoa. Atxikimendua hitz hutsak baino gehiago izatea nahiko genuke. Indar estatiko hori dinamiko bihurtu erabaki onenak hartuaz.




TXOMIN MADINA

## Beste eredu sozioekonomiko bat

Alternatibak, Aralarrek, EAk eta Ezker Abertzaleak euren proposamen sozioekonomikoa aurkeztu dute asteon Arrasaten. Proposatutako garapen ereduan landu beharrekoak dira, besteak beste: sare produktiboa lantzea, lehen sektorea estrategikotzat hartzea, tokiko merkataritza bultzatzea eta finantza sistema publikoa lantzea. Informazio gehiago *www.irtenbidea.net* atarian aurki daiteke.

## Nafarroa Bizirik martxarako autobusak antolatu dituzte; hitzaldia ere egongo da Bergaran, 12an

Hilaren 16an Iruñean egingo den Nafarroa Bizirik egunerako autobusak antolatu ditu Debagoieneko Nafarroa Bizirik taldeak. Izena honako lekuetan eman behar da ekainaren 10a baino lehen: Eskoriatzan, Inkernu tabernan; Aretxabaletan, Gurea, Urbaltz eta Txiki tabernetan; Bergaran, Juanje argazki-dendan, Arrano tabernan eta Elkar liburu-dendan; eta Arrasaten, Irati tabernan. Bestalde, Nabarraldek antolatutako hitzaldia ere egongo da Bergaran hilaren 12an. Oskar Arantzabalek *Nafarroa-Euskal Herria estatu independentearen bideragarritasun ekonomikoa* delako berbaldia egingo du, 19:00etan, Irizar jauregian.

Nahi baduzu,
**Gasteizen bizi zaitezke** Sartu eta aukeratu!



**ZABALGANA**
**Cambridge bizitegia**
Eraikuntza berriko etxebizitza libreak, bi eta hiru logelarekin eta terraza handiekin. Garajea eta trastelekua barne. **168.000** eurotik aurrera (27.952.848 pzta.).
Informazio gehiago ›



**FUEROS ERAIKINA**
**Gasteizko erdialdean**
Hirigunean, etxebizitza berrian bizi izateko azkeneko aukera. Bi, hiru eta lau logelarekin. Atiko ikusgarriak. **248.218** eurotik aurrera (41.300.000 pzta.).
Informazio gehiago ›



**Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)**
Ez da beharrezkoa Gasteizen erroldatua egotea. Bi eta hiru logelako etxeak, garajea eta trastelekua **84.736** eurotik aurrera (14.098.889 pzta.).
Informazio gehiago ›



**ZABALGANA**
**Toloño bizitegia**
Labastida kalean etxebizitza libreak. Bi logelakoak **169.000** eurotik aurrera (28.119.234 pta). Eta hiru logelakoak **192.000** eurotik aurrera (31.946.112 pta). 2. eta 3. atarietako lehenengo 15 erosleek bigarren garaje-plaza izango dute prezioaren barruan, kargurik gabe.
Informazio gehiago ›

TRINOSA Servicios Inmobiliarios
**TRINOSA** Servicios Inmobiliarios
San Pudentzio, 1 - San Antoniorekin izkina
01005 Vitoria-Gasteiz
trivinsa.com
Egunero gehiago eskaintzen dizugu
945 15 15 15

## ZABALIK



**MANU ARREGI**
http://goiena.net/iritzia/

# Ibiligorri

Alfonso Martinez Lizarduikoa lagunak *Euskal zibilizazioa* liburuaren aurkezpen hitzaldian kontatzen zuen bezala, bereziak gara euskaldunak kanpotik datozen berrikuntzak asimilatzen. Onartu bai, baina egokitu egiten ditugu. Coca Cola, adibidez, onartu dugu, baina kalimotxoa sortu dugu amerikarren pozimarekin.

Antzeko fenomenoa gertatzen ari da bidegorri deituriko horiekin. Bitxikeria da norbait bizikletan ikustea gure inguruko bidegorrietatik; ibiltariek okupatu dituzte. Ibiltariak eta bizikleteroak bateragarriak direla diote batzuek. Guztientzat dira bidegorriak. Ziur? Kontxako bidegorritik bizikletak eta oinezkoak bide beretik joan al dira? Eta gure bailarakoetatik bai?

**"Gaizki ikusita gaude bizikleteroak alde guztietan"**

Kilometro batzuk egiten ditut urtero bizikletan. Okerreko bandoa aukeratu dut hor ere. Gaizki ikusita gaude bizikleteroak alde guztietan. Traba egiten dugu errepidean. Eta traba egiten dugu bidegorrietan ere. Ez dakit gure bailarako bidegorrietatik ibili zareten inoiz. Ohikoa da koadrilak paseatzen ikustea. Bidegorri guztia eurentzat hartuta, noski. Eta han agertzen naiz ni, nire bizikletarekin molestatzera. Barkamena eskatu behar duzu pasatzerakoan.

Gure errepideetatik bizikletan ibiltzea arriskutsua dela diote. Agian bihar bertan kamioi batek akabatuko nau, baina azkenaldi honetako arriskurik handiena bidegorri batean sentitu dut nik, patinatzen zihoan talde batekin gurutzatu nintzenean. Bide guztia hartzen zuten hauek ere, noski. Baina arriskua beraien txakurragatik izan nuen. Solte zihoan, alde batetik bestera, eta txiripaz ez nuen jan. Badirudi txakurrek ere ziklistekiko lehentasuna dutela hemengo bidegorrietan.

Honezkero berdin zait zela erabiltzen diren Debagoieneko bidegorriak. Karreteran ibiliko naiz ni. Baina, mesedez, kalimotxoari Coca Cola esaten ez diogun bezala, ez deitu bidegorri. Ibiligorri deitu.

## USTEAK USTE

**MONIKA BELASTEGI** | mbelastegi@goiena.com

# Dantzan jarriko zarete

Ze gustura ikusi dudan Gaztea irratiko bideoklip lehiaketako irabazleen lana. Bergarako Mariaren Lagundiko ikastetxeko DBHko laugarren mailako ikasleek irabazi dute, *Party Rock Anthem* kantu ezagunaren kliparen bertsioarekin. Gogoa, irudimena, elkarlana eta alaitasuna elkartzen direnean emaitzak politak izan ohi dira eta iruditzen zait sekulako meritua erakusten dutela ikasleok. Entsegu ordu asko behar izan dituzte, gainera, guztia borobiltzeko; eguerdietan, eskolatik irtetean, ogitartekoa ordu erdian jan eta eskolara itzuli arte entseatzen jardun dute denbora luzean. Ikusi klipa *www.eitb.com* helbidean. Dantzan bukatuko duzue, seguru.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Espainiaren erreskatea edo hildako katuarena

**Gorka Bereziartua**
http://argia.com/boligrafo-gorria/

Halako batean iragarriko duten Espainiaren erreskatea zera da, lagunari katua utzi zion horren istorioaren oso antzekoa.

Badakizue nola den:

Mikel oporretara doa eta katua kolega bati uzten dio zaindu dezan.

Josuk, hori baita kolegaren izena, hurrengo egunean bertan etxeko hautsak xurgagailuarekin garbitzen ari dela, pitxitxi gaixoa aurretik eramango du eta ez da egongo modurik zakar poltsatik ateratzean animaliaren zazpi bizietako bakar bat ere berreskuratzeko.

E-maila idazten hasiko da orduan, dena esplikatu nahian.

"Aupa Mikel" hasiko da, baina egia kontatzeak ezinegon handiegia eragingo dio eta ezer ez esatea erabakiko du, momentuz.

"Zer moduz hondartzan? Hi bizi haiz hi! Katuarekin primeran ari nauk moldatzen".

Josuk plan bat dauka:

Pixkanaka kontatuko dio asuntoa Mikeli, hartara notiziak ez dio hainbesteko shocka eragingo.

"Aupa Mikel: katuarekin primeran nabilek, baina gaur motel samar antzeman diat" idatziko dio astelehenean.

"Aupa Mikel: a ze alfer puska den hire maskota. Egun guztia sofan zurrungaka!", asteartean.

"Aupa Mikel: aizak, kezkatzen hasi nauk, gaur katuak jateko ere ez dik mugitu nahi izan, normala al duk hori?" asteazkenean.

Mezu hori irakurrita, Mikelek gomendio batzuk bidaliko dizkio, pentsua esnearekin nahasteko eta abar.

Ostegunerako Josuk bira dramatikoa emango du.

"Mikel, oso mantso ari duk katua arnasa hartzen, ez zekiat, igual albaitariarenera eramango diat, ezta?".

Mikelek baietz eta itzultzeko hegazkin txartelak hartzera doala, ostiralerako etxean dela bueltan, zaintzeko ondo bitartean.

"Eutsi pitxitxi!" esan du bere baitarako, Josuri erantzuna bidali bezain pronto.

Jokaldia egina dago ordea: albaitariarengana doa Josu, zomorroa klinikara hilda iritsi dela zertifikatuko diote eta Mikel bueltan denerako ondo entseatuta edukiko du luto aurpegia.

"Ezin izan dute ezer egin" esango dio, besarkatzearekin batera.

Orain kendu katua eta jarri Espainia.

Kendu heriotza eta jarri erreskatea.

Kendu Josu eta jarri Europako eta Espainiako agintariak.

Eta kendu Mikel eta jarri herritarrak.

Voila, zer egiten ari diren azken hilabeteotan interbentzioari buruzko informazioarekin: pixkanaka kontatzen ari zaizkigu, kolpean gogorregia litzatekeena.

Eta euren erantzukizuna ezkutatzen ari dira.

Katua hilda baitzegoen hasieratik eta Espainiak *denbora darama interbenituta* [lotura dago sarean]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Ekin lanari!

**Ibon Ugarte eta Mikel Kortabarria**
(Herrira mugimendua)
Oñati

Pasa den maiatzean Alberto Plazaola Anduaga Oñatiko preso politikoari 197/2006 doktrina aplikatu diote.

1990eko azaroaren 17an atxilotu zuten Frantzian. 1996ko martxora arte Frantziako hainbat espetxetan eduki zuten bahituta. Estradizioaren ostean hamaika kartzelatatik pasatu da eta orain Teixeiro Curtisen dago, Galizian, etxetik 650 km-ra. Honenbestez, azaroan 22 urte beteko dira askatasuna lapurtu ziotenetik. Legearen arabera, 2016an libre behar luke, baina gaizki deituriko Parot doktrina famatua aplikatuta, 2026ra arte luzatu diote espetxealdia.

Gobernu Espainiarrak bizi arteko zigorraren aldeko apustua berretsi du erabaki politiko honekin. Eskandalua da egungo egoera politikoan Espainiako Gobernuak gerra eta mendeku usaina duen espetxe politikaren alde egitea. Politika horrek kontra egiten die presoen eta familien eskubide oinarrizkoei, eta, horren ondorioz, jende gehiago hil liteke edozein egunetan.

Horregatik, planto egiten dugu, plantatzen gara. Kartzelaldia betetako presoei bizi arteko zigorra aplikatzen dien justiziak ez du zilegitasunik Euskal Herrian. Ezin dugu inola ere onartu herri honetako bakea urruntzea helburu duen lege-sarea, gizarteak garbi arbuiatzen duen lege-sarea.

Oñatiko Herrirak lanean jarraituko du, inoiz baino kementsuago, presoei aplikatzen zaizkien salbuespen-neurriak desagertu arte. Gizarteari lan honetara biltzeko dei egiten diogu, zeren, zenbat eta lehenago lortu, orduan eta lehenago ailegatuko baita bakea herri honetara. Epe motzean aurrera eramango diren ekimenetan parte hartzeaz gain, Albertori eta familiari sostengua eta elkartasuna maila pertsonalean ere adieraztera animatu nahi dugu herritargoa, ahoz, gutun bidez, bisitatuz…

Bakoitzak bere esparrutik, eta konpromiso maila ezberdinetatik, ekin lanari, denon artean bizi arteko zigorra amaituko dugu eta! Gizartea mugitzeak dakar agintariak mugitzea. Lortuko dugu!

## Etika falta

**Agurtzane Toledo Saralegi**
Antzuola

25 urte bete behar ditut Antzuolan zerbitzu profesionala ematen. Nire lanari esker herriak mertzeria, tintoreria, arropa konponketa, belar-denda, enmarkazio zerbitzua dauka.

Bidea ez da erraza izan halako herri txiki baten erosketak kanpoan egiteko joera egonda…

Amatasun baja baten bueltan aurkitu naiz nire profesionaltasuna zalantzan jarri dela nitaz gezur asko esanez…

Konturatzen naiz herritar batzuek etika klase batzuk behar dituztela…

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## St. Pauli, Beste Pila Bat!

**Eider Zumalde Pagoaga**
Arrasate

Iaz St. Pauli egunak sorpresaz harrapatu bagintuen ere, aurten gogo biziz gerturatu gara Garibain antolatu duten festara.

Nortasun handiko futbol taldea da St. Pauli, eta baita Arrasateko Beste Bat! Taldea ere.

Izan ere, irabazi asmorik gabeko taldea izanda, buru-hezurra ikur duen lagunarteak bere poltsikotik ordaindu ditu sortutako gastu guztiak.

Taldea herrian ezagutara emateko eta herritarrek egun berezia pasatzeko asmoz, haurrentzako eta ez hain haurrentzako egitarau kañeroa antolatu zuten.

Eta baita lortu ere!

Animo, St. Pauli, eta hurrengoan ere bertan izango gara!

## Zaborren kudeaketa Aretxabaletan

**Esteban Herrasti, Jabier San Miguel, Mikel Uribetxebarria eta Galo Sanchez**
(Aretxabaletako EAJ)
Aretxabaleta

Zaborren kudeaketak eta iragarritako atez ateko bilketa sistemaren ezarpenak eztabaida eta kezka piztu ditu biztanle aretxabaletarron artean.

Atez ateko biketa sistemari esker lortzen omen den birziklatze tasa da, antza denez, bilketa sistema honen alde egiteko azaltzen den argudio nagusia, non birziklatze portzentajea hain omen da handi, ez baituen birziklagarri ez den zaborrik eragiten.

Adierazi behar dugu honen gainean duela dezente ezarri zela Aretxabaletan bosgarren edukiontzia (edukiontzi marroia, hondakin organikoentzat) eta, hortaz, herri honetako biztanleentzat indarrean badela, jada, atez atekoak ematen duen birziklatze portzentaje bertsuko sistema ezarrita.

Eta esandakoari gaineratu, bilketa sistemak (bata zein bestea izan) eraginkorrak izateko irmotasumez eta gogo onez behar izaten direla jarri martxan –orain arte, Aretxabaletan ikusitakoez, bisgarren edukiontziarekin (marroia) egin ez dena.

Jakina da, bestalde, atez ateko sistema egungoa baino askoz garestiagoa dela.

Jakina ere bada, sistema berria ezartzen bada, oraindik kalkulatzear dagoen gainkostu hori Aretxabaletako familiek beharko dutela euren gain hartu eta zerbitzuaren kalitateari ez zaiola –egungoarekin konparaketa eginda– hobekuntzarik eskainiko.

Are gehiago, hondakinak kaleratzeko jarraitu beharreko ordutegi eta prozedurak arazo izango zaizkiela familiei (ordutegi jakinean eta ezarritako egunean atera beharko baitira etxean gaika bereizitako hondakinak; zenbait hondakin organikok –arrainak esaterako– eragozpenak eragin ditzakete, badira beste zenbaitzuk fermenta litezkeenak, eta abar); ondorioz, gerta liteke herritarrek bilketa sistema berria begi onez ez ikustea.

Ahaztu gabe etxebizitzen inguruetako estetika eta garbitasunarengan zintzilikailuek izango duten eragina.

Atez atekoaren aldekotasuna adierazteko, halaber, lanpostuak sortuko dituela esan ohi da eskuz egiten baita zintzilikailuetatik hondakinen bilketa.

Egia dena da lanpostuak sor litezkeela publikoa den ekimen ororekin, tasak nahiz zergak igota; nork eusten du ordea lanpostu berri hauen kostua?

Azken finean, berriro ere eskuz egitera gatoz, egun eta jada, automatizatua zegoena –eraginkorki funtzionatzen zuena–.

Garbi esanda, eraginkorra izan zaiguna baztertuta –kostuak gutxiarazi dizkiguna alboratuta– ateak irekitzera goaz gastuetan gorakada ekarriko duenari, eraginkorra ez denari; egun ezein eragilek egingo lukeenaren kontra.

Eta azkenik, atez ateko bilketa sistema ezarri nahi zaio herritarrari, nahi duena zer ote den galdetzeko aukera egokirik eskaini gabe.

Egun indarrean dagoen sistemaren alde egitea, ez al da aukera hobea?

Egungoak egiten baititu –atez atekoak bezala– bere bilketak gaika; eta irakasten baitio biztanleriari birziklatze garatu batekiko izanen duen erantzukizuna.

Eta hori guztia, famili kideen erosotasunari, etxebizitzen inguruetako garbitasunari eta bilketa sistemaren eraginkortasunari kalterik eragin gabe.

## Aintzane Oiarbideren erantzunari erantzuna

**Ander Lizarralde Lizarralde**
Oñati

Zure iritziekiko eta pertsonarekiko joera obsesibo bat dudala dirudiela aipatu zenuen aurreko gutunean. Ez al da izango zuk atez atekoarekiko beste horrenbeste daukazulako?

Errauskailuaren eraikuntzan, kudeaketan, planifikazioan, bertatik etekinak ateratzen eta errauskailuen aldeko politikak bultzatzen "zementua"-ren inguruko enpresak dabiltza nagusi. Euskal Herrian FCC bereziki. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Planak idazten ere FCCko jendea ibili da jaun eta jabe. Kudeaketa plan hauek datozen urteetan hondakinen kudeaketan hartuko den norabidea guztiz baldintzatzen dute. Eta zuek, Aintzane, plan errauskailuzale hauei men egin diozue. Amen. FCCk Espainiako, Herrialde Katalanetako, Galiziako eta Hego Euskal Herriko 27 milioi pertsonaren zaborrak batzen ditu. Horretaz gain eraikuntzaren negozioan, AHTren lanetan, porlanaren sektorean eta abarretan aritzen dira. Nik esan nahi dudana da, Aintzane, zuen alderdia interes enpresarial hauei lotuta dagoela erabat. Euren errepresentazio politikoa zuek zaretela. Eta Zubietako errauskailua defendatzean FCCren eta zuen poltsikoak defendatzen zabiltzatela. Baina gai honetan ezulertuarena egitea komeni zaizu, noski. Esaten dizut enpresa hauekiko morroi zabiltzatela. Eta zuk erantzuten duzu orduan Bildu Garbitaniaren interesen defendatzailea dela. Mesedez. Garbitania Usurbil aldeko enpresa txiki sortu berri bat da. Ze botere du? Ze eragin ahalmen? Zenbat langile izango ditu, 30en bat? Eta ze irabazi izango ditu? Jarri ditzagun mahaiaren gainean bataren eta bestearen kopuruak. Hemen alde batetik ingurumena eta osasunaren defentsa daude (herri interesen defentsa) eta bestetik diru interes konkretuak. Eta ikusi beharko da bakoitza non kokatzen den.

Horretaz gain, Bergarako herritarren atez atekoaren kontrakotasunari ahotsa ematen ari zaretela diozu. Beste gai batzuetan oposizioarekiko ez duzue horrelako adeitasunik erakutsi izan. Aramaioko alkatea AHTren inguruan herri kontsulta egiteagatik Audientzia Nazionalera joan zenean zergatik ez zenuten orain adinako hautsik harrotu? Zer egin zuen EAJk Zornotzako zentral termikoari buruz egin zen herri kontsultaren ezezko emaitza masiboaren aurrean? Kasu zipitzik ez. Lemoizen kontra milaka pertsona irten ziren kalera eta ze jaramon egin zenioten oposizio erraldoi hari? Zer egin zuen 2009ko urtarrilean EAJren esanetara zegoen polizia autonomikoak Urbinako AHTren kontrako oposizio jendetsuarekin? Gupidagabe makilkatu. Zubietako errauskailuaren kontra 30.000 sinadura aurkeztu ziren Gasteizko Parlamentuan, bertan gaia "tratatua" izan zedin. Zer egin zuen EAJk ? Sinadurak zakarrontzira bota. Historiaren zama bizkargainean. Arlo sozial eta ekonomikoan benetako pisua duten erabaki guztietan hamarkadatan inposizio sistematiko, jarraitua jazarri duen alderdi bateko ordezkari batek (zutaz ari naiz, Aintzane) zilegitasunik ba al du atez atekoaren aurrean >

apokalipsia iragarri eta behin eta berriz herri kontsultak eskatzeko? Inposatzaile curriculum distiratsuegia duzue iragan hurbilean.

Kafe bat hartzera ere gonbidatu nauzu Bergarara. Onartu egingo dizut gonbidapena, baina inporta ez bazaizu Antzuolan hartuko dugu. Horrela, bertako herritarrei atez atekoaren deserosotasunaz galdetzeko aukera izango dugu. Eta kaleetan ea zikinkeriarik eta higiene faltarik dagoen ere begiztatu dezakegu. Intimitatearen galera zenbatekoa den eta herrian zehar ea kiratsik dagoen ere begiratuko dugu nahi baduzu. Sinadura botarazi diezuen guztiei ere luza iezaiezu gonbidapena.

Azkenik, esan nahi dizut Iñaxio Uriaren hilketari egin diozun erreferentzia sobra samar dagoela erabili duzun bezala, nahiz eta ez dizudan adierazpen askatasunik ukatuko.

## Debagoieneko Ospitalea

**Mari Carmen Bakaikoa**
(Paco Unanueren emazte eta seme-alabak)
Aretxabaleta

Bertako mediku, erizain, larrialdietako auxiliar eta bigarren solairuko langile guztiak eskertu nahi ditugu Paco Unanuerekin izandako begiruneagatik.

Ahaztu gabe 112a, beti hor egoteagatik.

Zuri, Jokin, gaixoei barre eragiten segi dezazula.

## Amuskaren antzezlanaz

**Mikel Errasti**
Aretxabaleta

Berriki irakurri dut, Goienan, Amuska taldearen Ausartak taldeak berriro berrestreinatu duela orain 2 urte egindako antzezlana.

Oraingoan, baina, antzezle gehiago eta gidoian egokitze bat eginaz

Nik orain bi urte Eskoriatzako unibertsitatean aurkeztutako antzezlanean egoteko pribilejioa izan nuen.

Eta oso oroitzapen onak gordetzen ditut.

Aretoa txiki gelditu zen, eta, nire ustez, han bertaratu ginen guztiok irribarre zabal batekin irten ginen.

Beraz, nire galdera honakoa da: ba al daki norbaitek Aretxabaletan (Arkupen, jaietan...) funtziorik egin behar duten?

Kanpokoa gutxietsi gabe, eskertzekoa izango bailitzateke bailaran antzezle amateurrez osatutako lan xume baina eder bat bailaran bertan ikusteko aukera izatea.

Oharra: irrikan nago eskoriatzar "artista" handi hauek taula gainean berriz ikusteko.

## Eskerrik asko!

**Irati Urrutikoetxea**
(Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteko lehendakaria)
Arrasate

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie joan zen zapatuko jaian parte hartu zuten guztiei.

Eskerrik asko, bereziki, jaiaren antolakuntzan ibili zirenei; Guraso Elkarteko kide, Kontseiluko kide, irakasle, Zuzendaritza eta lanerako boluntario gisa ibilitako guztiei.

Benetan hunkituta gaude emandako babesagatik.

420 pertsona elkartu ziren mahaiaren inguruan eta gehiago ondorengo bertso saio eta dantzaldian.

Honek adierazten du eskolak baduela izaera, nortasuna eta batasuna.

Urtez urte gure eskola handitzen ari da.

Gero eta familia gehiagoren konfiantza dauka eta ikasgelak umez bete-bete eginda daude.

Argi dago bere garaian eskola publikoaren alde egindako hautua egokia izan zela.

Bide onean goaz, beraz.

Eta harro gaude proiektu sendoa dugulako.

Gainera, guztion lan eta esfortzuarekin gero eta hobea izango dela zalantzarik ez dugu.

Eskerrik asko.

## Zorionak, BGA!

**Aitzol Gandiaga**
Bergara

Lehenengotik hamaikagarrenera tarte handixa baldin badago, eta hamaikagarrenak euskaldunoi asko adierazten badosku, hamabigarrena ez da ba gutxiau izango!

Hamabi urte baino gehixau doia Bergaran gazte mugimendua burrukatzen eta zirikatzen; hala eta be, denbora hortako azken 12 urtiak herriko kartzela zaharrian pasau izan ditxu Gazte Asanbladiak, eguneroko burrukak aurrera etaratzen, kartzelia askatasun gune bilakatzen.

Mugimendu askon moduan momentu onak eta ez hain onak pasauko zitxuan, eta oin ni be asanblada honen parte naizela, gogo eta ilusiño askokin ikusten dot Bergarako Gazte Asanbladia, mugen eta lapurren artian bizi gan hontan, herrixai bizitzeko beste modu asko be badarela erakusten, eta honen adibide onena da bertan gogoz eta ilusiñoz lanian gabizen gazte askok aurrera ateratzen ditxugun burrukak, ikastaro zein kongresuak, hitzaldi zein kontzertuak, antzerki zein auzolanak, salaketa zein asanbladak…

Dana dala, lehen aipatu ditxudan lapur eta pareta eraikitzaliak geldi ezin egon eta, legian izenian, danon ahuetara heldu zan Kukutza III.an moduko "baimendutako fusilaketak" ikusi ahal izan ditxugu; gure goguak ezkutau eta suntsitu nahixan agindutakuak.

Zoritxarrez, asko diaz ondiokan be mehatxupian edota botazera noiz helduko zain daren gaztetxiak be.

Azken urteurren honen egitaraua da, baina, gure herrixan daukagun Gazte Asanbladian osasun ederran adierazle onena, eta nik nere partetik bada be, herriko haur, gazte eta ez hain gaztiok be, asanbladiak aurrera etaratako ekintzetan parte hartzera animatzen zaitxuet.

Aprobetxau daigun ba hamabi eguneko eskaintza zabal hau eta oin artian moduan, jarraitxu kartzela zaharretik herrixa astintzen!

## Andoni Esparza Gallastegi gogoan

**Unai Bergaretxe Leibar**
Arrasate

Joan zaigu gizon handi bat.

Bai, Andoni Esparza Gallastegi hil zaigu.

50-60ko hamarkadan Elorrion Funcor kooperatiba sortzen, ikastolaren proiektua laguntzen, haur unibertsitatearen proiektuan Joge Oteizarekin lanean, Ama-Lur filmaren bultzatzaile, eta beste hamaika lanetan aritu zen gizon handia.

Gaztetan hasi zen lan erraldoi hauetan ekintzaile.

Gerora, une latzak pasatu zituen, baina, hala ere, lanean sutsu jarraitu zuen bere ideiak zabaldu eta elkarbanatu nahian.

Pentsalaria, aberriaren eta euskararen maitale.

Benetan ederra izan da zu ezagutu izana, zurekin eman izan ditugun momentuak oso aberatsak izan dira.

Bazoaz, baina gero arte.

Jaio zinen herrian bertan, Elorrion, agurra emango dizugu larunbat honetan bertan, 19:00etan.

Bihotzean eramango zaitugu, Andoni.

## Prozesioa eta ordezkari politikoak

**Mikel Biain Berraondo**
(Oñatiko Udal Gobernuaren izenean)
Oñati

Orain dela urte bat, Oñatiko Udal Gobernua eratu berritan, gure herrian hain garrantzitsua den Korpus prozesioan parte hartzearen inguruko hausnarketa bat burutu genuen taldean.

Gutako inork ez zuen zalantzan jarri Oñatiko Korpus prozesioak alderdi erlijiosoari dagokionez eta ezik kultura eta folklore aldetik ere balio berezia duela.

Garbi geratu zen, beraz, Udal Gobernu taldetik begirune osoa diogula ekitaldi honi.

Hain garbi geratu ez zena ordezkari politikook prozesioan jokatu beharreko papera izan zen.

Batek baino gehiagok pentsa lezake tradizio bat den aldetik, horrela izan behar duela eta kitto.

Gure ustez, tradizioa izate hutsak ez luke justifikatu beharko ordezkari politikook bertan parte hartzea.

Gizartea eta giza baloreak aldatzen joan diren heinean, tradizio askok aldaketak jasan dituzte, sinbolizatzen dituzten baloreek gaur egungo gizarte zabalean errotuak eta onartuak dauden hainbat balorerekin talka egiten dutelako.

Garai batean botere erlijioso, militar eta politikoak elkarrekin ateratzen ziren prozesioetan eta gaur egun ere toki batzuetan horrela izaten jarraitzen du.

Oso garbi dugu hau gaur egunean jada zaharkituta dagoen gizarte eredu baten isla dela.

Jakina da garai modernoan mundu guztian zehar banaturiko herrialdeetan joera garbia estatua eta bere instituzioak sekularizatzearena dela; plano politiko eta erlijiosoak bananduz.

Ordezkari politikoak gara, eta, beraz, herritarren ordezkari.

Herritar sinestunak eta sinestunak ez direnak ordezkatzen ditugu; kristauak direnak eta ez direnak.

Gure uste apalean prozesioetan herritarrek izan behar dute protagonismoa, eta ez ordezkari politikoek.

Ordezkari politikoek parte hartzekotan herritar gisa parte hartu beharko luketela uste dugu; gainontzeko beste herritarrekin batera maila berean.

Ea aurtengoan ere eguraldiak laguntzen duen, baina neurrian.

Iazkoa bezalako beroarekin gaizki behar dute eta andero, dantzari... eta santuek eurek ere.

Animo, denei, eta gozatu Korpus jaietan!

## Hondakinak gora eta hondakinak behera

**Asier Garai, Nekane Ayensa eta Luis Mari San Julian**
(Arrasate Zero Zabor)
Arrasate

Azken boladan etxe ugaritako mahai ingurutan eta lagun artean hizpide izan da hondakinen bilketa sistema.

Parte hartu dugun eztabaidetan atez atekoaren kontra daudenengan argumentu antzetsuak entzun ditugu:

Zikina dela, deserosoa, etab.

Eztabaida gehienetan benetako arazoaren muinari buruz ezer entzun ez izanak beldurtu egiten gaitu.

Jendearengan urduritasuna sumatzen da bere ohituretan aldaketa txiki bat egin behar duelako, eta horregatik da funtsean hizpide gai hau.

Arazoaren larritasunaz jabetzeko egungo gizartean dugun kontsumo ereduari begiratu besterik ez zaio egin behar.

Ustiatu-kontsumitu-bota eredu lineala izaten jarraitzea jasanezina da, baliabide naturalak mugatuak direlako.

Hau aspaldidanik genekien zerbait da, baina orain arte ez da aldaketa esanguratsurik izan kudeaketa ereduan.

Gipuzkoako udalerri ugarik apustu sendoa egin dute bide onean eta denboraren poderioz jabetuko gara erabakiaren garrantziaz.

Gizateria guztiak, bai guztiak, lehenago edo geroago errekurtsoak berrerabili edota birziklatu egin beharko ditu halabeharrez.

Beraz, zergatik ez gara gu lehenbailehen hasten, eta ingurumen osasuntsuago baten alde ohitura batzuk aldatzen gure etxeetan?

Hau guztiau aldarrikatzeko eta gipuzkoarrok errausketarik ez dugula nahi erakusteko ekainaren 17an, igandea, Donostian Mosaiko Erraldoi bat egingo dugu.

Arrasaten ere ekainaren 11n, astelehena, agerraldi bat egingo dugu etorkizuneko aire garbiaren alde.

Sara Alava eta Jorge Agirre | Saroan, nagusientzako laguntza zerbitzua

# "Eskainitako laguntza pertsonalizatua da"

**Sarak Alavak eta Jorge Agirrek, biek dute urteetako esperientzia adineko jendearekin lan egiten; izan ere, besteak beste, gizarte hezitzaile jardun dute adin askotariko jendearekin**

**Nolatan sortu da Saroan proiektua?**
Urteak generamatzan pentsatzen horrelako proiektu baten; gizartean gabezia bat zegoela ikusten genuen. Hala, Mankomunitatearekin harremanetan jarri ginen eta proiektua egin genuen beste enpresa batzuen iritziak ezagututa. Ekainaren 2an abiatu genuen.

**Ongizate emozionalari garrantzia ematen diozue?**
Saroan pertsona nagusiei eta haien familiei laguntza eskaintzen dien enpresa da. Pertsonok nagusitzen goazen heinean, geure eta ingurukoen bizimodua aldatzen joaten da. Aldaketa horiek eta egoera berriak ezagutzen ditugu. Gure espezializazioari esker, hainbat zerbitzu eskaintzeko aukera dugu: batetik, pertsona nagusiaren osasuna eta ongizate emozionala sustatzen dugu; bestetik, pertsona nagusien familientzat laguntza, sostengua eta babesa eskaintzen dugu. Pertsona nagusia ahalik eta bizi kalitate hoberenarekin eta ahal den denbora luzeen bere ingurunean bizi dadin lan egiten dugu. Pertsona ezagutu ondoren eta jarduera profesionalaren bidez, gure erabiltzaileei laguntza eskaini, animatu, suspertu eta prozesu pertsonalak garatzen laguntzen diegu. Eguneroko bizitzari, soseguz aurre egiten lagundu.


Sara eta Jorge, Mankomunitateko eraikinean, Saroan enpresak duen lokalean.

**Nolako zerbitzua da?**
Gure zerbitzuek zahartzaro aktiboa eta osasuntsua izaten laguntzen dute. Asistentziazko laguntza mota asko dago. Baina bestelako beharrei ere erantzun behar zaie. Independenteak diren pertsona nagusien bestelako laguntzak ematea da gure asmoa; esaterako, tramite administratiboekin laguntzen diegu, kontsulta medikoak eta errezetak egitera lagundu, dokumentuen kudeaketak egin, paseotxo bat ematera, konpainia egitera... Ez gatzaizkie soilik 24 orduko laguntza behar duten nagusi ezinduei zuzentzen. Guk planteatzen duguna da laguntza pertsonalizatua eskaintzea nagusiei. Euren etxera joan, harremana sortu eta konfiantzazko giroan lan egin.

**"Harreman eta konfiantza giroan lan egiten dugu**

**Arlo fisikoa eta mentala lantzen dituzue.**
Gure jarduerak pertsonen gaitasunak egokitzera eta bizi ohitura egokiak garatzera bideratuta daude, besteak beste, autonomia handitzeko, gainbehera funtzionala saihesteko edo alde fisiko/mentala hobetzeko helburuekin. Baliabide eta teknika desberdinak erabiltzen ditugu, pertsona bakoitzaren beharretara egokituz –mugimendua, memoria, arreta, lengoaia, gaitasun motoreak, orientazioa, ulermena, ikuste memoria, egunerokotasunari aplikatutako teknologia berrietara heltzea…–. Saroaneko profesionalen laguntza ez da lagun egiteko tartea soilik, lan egokiaren bitartez arlo pertsonalak hobetzeko baizik.

**Baliabideen aholkua eta kudeaketa eskaintzen duzue.**
Saroanek etxean izan ditzakegun oztopoei ematen die irtenbidea: komunak berritzea, oztopo arkitektonikoak kentzea, garbiketa zerbitzuak, etxera bazkaria eramateko zerbitzua, etxean gau eta egunez zaintza zerbitzua... Gure nagusien ongizatearen mesederako produktuak eskaintzen ditugu: atsedena, garbitasuna, segurtasuna, mugikortasuna, ortopedia…

**"Nagusiaren arlo pertsonal guztiak hobetu nahi ditugu"**

**Eskaintza pertsonalizatua da.**
Bai, batzuek nahiago dute paseotxo bat ematea edo memoria lantzeko ariketak egitea. Arlo emozionalean gabeziak dituzte askok, kanpotik ikusten ez diren arren. Guk zainketa bakarrik ez dugu egiten, haren beharretara egokitzen gara eta indibidualki egiten dugu lan. Ze behar duen, horren arabera egokitzen gara.

**Familia ere garrantzitsua da zuendako, ezta?**
Familiari ere babesa ematen diogu; ez da erraza izaten eta eurendako ere egonezin emozional bilaka daiteke. Hala, egiten dugun guztia txosten baten jasotzen dugu, eta, tarteka, egiten ari garenaren berri ematen diegu, lasai egon daitezen. Gure laguntzarekin, nagusiek egindako urratsen berri ematen diegu.

**Orain arte, ze inpresio?**
Denbora laburra daramagu eta goiz da balorazioa egiteko; baina oso inpresio eta iritzi onak jaso ditugu, positiboak. Debagoienean badaude antzeko zerbitzu onak; baina guk gabezia bat ikusten dugu. Horregatik, gure helburua, orain, udaletako gizarte langileei eta herritarrei gure zerbitzuaren berri ematea da.

**Zuekin harremanetan jartzeko?**
Lasai etor daitezke informazioa jasotzera. Mankomunitateko egoitzako lokalean gaude. Konpromiso barik etor daitezela gure bulegora, bertatik bertara jakin dezaten nolako lana egiten dugun: Webgunearen bitartez, *Saroan.com* helbidean edo 943 10 90 80 telefonora deituta. Debagoien osorako egiten dugu lan.

Saroan
Nagusientzako laguntza zerbitzua

Pertsona nagusien osasun eta ongizatea
Familiari laguntza

Nafarroa Etorbidea 19, 8. bulegoa . 20500 Arrasate . Tel.: 943 10 90 80
637 71 87 55 . 637 71 87 58 . info@saroan.com . www.saroan.com



**Mikel Arana** | Ezker Anitzako legebiltzarkidea

# "Bankiako arduradunek kartzelan bukatu beharko lukete"

- Gardentasuna eskatu du Aranak Bankiaren kontuan
- "Erantzukizuna eskatu behar zaie arduradunei", dio



Mikel Arana, martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Ezker Anitzaren legebiltzarkide bakarra da Mikel Arana ordiziarra. Ezker Batutik bananduta, haustura erabat gaindituta dagoela dio eta alderdia norabide egokian, izaera eta moduak zehaztuta. Ekonomiari eta politikari buruz dihardu.

**Ezker Batuko alderdikideekin zenituzten gorabeherak ahaztuta dituzue dagoeneko?**

Haustura erabat gaindituta dago. Aurreko urtean marra gorriak erabat gainditu ziren eta erabaki bat hartu genuen: banatzea. Eta, hala sortu dugu alderdi berria aurtengo urtarrilean, Izquierda Unidarekin protokoloa adostuta, elkarrekin lan egiteko. Ezker antikapitalista federalaren esparruan kokatzen gara.

**Benetan itsusia izan zen episodio hura, ezta?**

Erabat. Eta, gainera, oso isilpean egindakoa, norberaren probetxurako. Elkartasunaren, zintzotasunaren, gardentasunaren aldeko bozka eskatu ostean, ikustea, hilabeteko epean, nork bere probetxurako zela erabili nahi dituen bozka horiek benetan desatsegina da.

**Zer deritzozu Bankiarekin gertatutakoari?**

Denok haserre jartzeko moduko kontua da. Orain dela gutxi esaten zitzaigun Espainiako finantza erakundeen egoera oso ona zela. Eta, orain, ikusi dugu hori ez dela egia eta Bankiaren egoera ez ezik, beste hainbat kutxarena ere ez dela onena.

**Ze soluzio dauka?**

Lehenik eta behin, gardentasun osoz jokatu behar da, baina ikusten dugu PPk ez daukala ezelako interesik garden eta garbi jokatzeko. Eta horretaz gain, erantzukizuna ere eskatu behar zaie arduradunei, ze kudeaketa txarraz gain, faltsukeria eta gezurra ere ikusi baititugu hemen. Munduko merkatuen aurrean sinesgarri izan nahi baduzu, egia osoa kontatu beharko duzu. Eta, kontuak garbi azaltzeaz gain, jakinarazi beharko da hori egin dutenek pentsioa kobratu beharrean kartzelan bukatu behar dutela. Bankiako eta Espainiako bankuko arduradunek kartzelan bukatu beharko dute.

**Estatuak esku hartu dituen finantza erakundeak publikoak edo Estatuaren menpeko bihurtzea eskatu duzue. Banka publikoa aldarrikatzen duzue. Zergatik?**

Ikusten dugulako enpresaburu txiki hainbatek badituela eskaerak, baina ez duela horiei aurre egiteko finantza modurik. Diru publiko piloa erabili dugu bankuen zuloak estaltzeko eta bankuek ez dute erabili diru hori maileguak emateko. Onartezina da. Horregatik, uste dugu egokiena dela banku horiek behin betiko publiko bihurtzea. Estatu batek behar ditu tresnak ekonomia sustatzeko eta banku edo kutxak izan daitezke tresna horretarako, maileguen bitartez. Horretarako, banku publikoa behar dugu.

**Kutxabank ez da banka publiko sendo bat?**

Izenak dioen moduan, Kutxabank bankua da. BBVA edo Banco Santander modukoa.

**Ez da zuen gustuko eredua?**

Ez. Baina, horretaz gain, frogatu da eredu horrek ez diela batere mesederik egiten herritarrei. Dirua egitea helburu besterik ez du, eta, bestalde, diru pribatua ere sar daiteke bertara. Eta akziodun pribatuek nahi dute dirua irabazi; hortaz, gizarte ekintzetara bideratzen den dirua geroago eta txikiagoa izango da. Kutxek euren izaera galtzen doazenez, guk banka publikoa aldarrikatzen dugu.

**Uste duzu euskal kutxekin edo Kutxabankekin ere Bankiarekin gertatu den moduko zerbait gerta daitekeela?**

Ezetz espero dut. Baina larriena da ez dakigula zein den haien benetako egoera. Ezinbestekoa da benetako inspekzioa egitea.

***Stop deshaucios* plataformarekin bat egiten duzue. Sinadurak batzen diharduzue. Ze helbururekin?**

Hipoteken legea aldatu nahi dugu. Norbaitek hipoteka ezin badu ordaindu eta etxea galtzera behartuta bada, bankuak erosten du etxea, balio duenaren erdi prezioan; aldi berean, etxearen jabeari eskatzen dio bankuarekin duen zor guztia ordaintzea. Eskatzen dugu etxea galtzera behartuta dagoenak zorra kitatu ahal izatea bankuari etxea itzulita. Eskaera justua iruditzen zaigu. Lege herri ekimen bat bultzatzen ari da *Stop deshaucios*, eta hori babesten ari gara.

**Lau hankako mapa argitzen doa Euskal Herrian. Ze leku izan dezake Ezker Anitzak mapa horretan?**

Batez ere lau hanka osatuko luketen alderdietakoak saiatzen dira ustezko mapa horren gainean berba egiten, baina errealitatea bestelakoa da. Eusko Legebiltzarrean inoiz ez dira bakarrik lau alderdi egon, Euskal Herria oso anitza delako. Eta pluraltasun hori beste toki batzuetan ez da gertatzen. Espainian ere IUk erakutsi du, bi alderdikoaz gain, beste aukera indartsu batendako tokia ere badela. Alderdi sozialistaren ezkerrerantz dagoen alderdia gara gu; antikapitalista; eraldatzailea. Baina, horretaz gain, autodeterminazio eskubidearen aldekoak gara; federalistak gara. Hortaz: ez konstituzionalista eta ezta independentista. Gurea bosgarren esparrua da, ezkerreko alderdi federalista eta antikapitalista.

**Badirudi aurten izango direla hauteskundeak...**

Bai, eta eskertzekoa litzateke aurten izatea, gainera. Udazkenean izango direla uste dut. Ezinbestekoa da lehenbailehen izatea, ze Euskadik behar baitu gobernu indartsua. 25 legebiltzarkideren babesarekin bakarrik ezin dugu eduki gobernu indartsurik. Bestalde, ikusten dugu lehendakaria eguna joan eta eguna etorri hauteskunde kanpainan. Askotan, gainera, Rubalcabarekin batera, Espainiari begira. Behar duguna da herritarren arazoak konpontzen diharduen lehendakaria, ez kanpainan diharduena.

**Zela definituko zenuke legealdi hau?**

Murrizketen legealdi moduan. Behin eta berriro entzuten ari gara Eusko Jaurlaritzak ez duela Raxoiren murrizketak aplikatuko hemen, osasunari eta hezkuntzari dagokienez. Baina hori dekretu bat bakarrik da. Eta Lopezen Gobernuak hiru urte daroatza murrizketak egiten; bereziki murriztailea da, oso, azkeneko aurrekontua. Bestalde, zerga politiken gaineko eztabaidak antzuak dira, itxurakeria lehendakariaren eskutik.

**Ze iruditzen zaizu Euskal Preso Politikoen Kolektiboak aditzera eman duen azken mezua, hartu duen azken erabakia?**

Ez dugu balorazio onik egiten. Egia esan, ez genuen espero oso gauza onik. Iruditzen zaigu presoek erabaki dutela gauzak orain dela bost urte zeuden toki berean kokatzea. Ez dute aitortzen egin eta eragindako mina; min hori gatazkaren ondorio dela baizik. Eta ezinbestekoa da nork bere arlo pertsonalean aitortzea min egin duela, besteak zeuri ezer egin barik.

> **"Ezker federal antikapitalistaren esparruan kokatzen da Ezker Anitza"**

> **"Banku publikoa behar dugu ekonomia sustatzeko"**

> **"Legebiltzarrean inoiz ez dira bakarrik lau alderdi egon; Euskadi anitza da"**

> **"Lopezen Gobernuak hiru urte daroatza murrizketak egiten"**

bilduma
**Sombra**





diseinua
Eloy Millán

**Sombra** bildumako egongela-jangela. Akabera lakatu zurian eta ardesia matean. Zokaloari ledak jartzeko aukera. **Aurora** erdiko mahaia, kaxoiekin. Akaberak lakatu zuri matean eta ardesia kristalean. **Aukera gehiago Kibuc.com en.** Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

**www.kibuc.com** ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en

**gureametsa@kibuc.com**
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 151 681

**KIBUC** Gure Ametsa

**KIBUC**
altzariak eta osagarriak
**Azkenean etxean**

# HERRIAK

ARETXABALETA

# Odol emaileen topagune bihurtuko da Aretxabaleta domeka honetan

- Arabako Odol Emaileen Eguna ospatuko dute, eta 450 odol emaile inguru elkartuko dira
- Azken datuek diote Leintz bailaran 1.000 biztanleko 50 odol emaileak direla

**ARRITXU BARRUSO** | ARETXABALETA

Aurten lehenengo aldiz Leintz bailaran ospatuko da Arabako Odo Emaileen Eguna. Izan ere, Gipuzkoan egon arren, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzara Arabako Odol Emaileen Elkartetik etortzen dira ateratzeak egitera. Bada, elkartearen urteko egun garrantzitsuena aurten Aretxabaletan ospatuko dute. Domekan izango da, eta ez da nolanahiko ospakizuna izango: 450 odol emaile inguru elkartuko dira. Egun osoko egitaraua antolatu dute eta musika eta dantzarik ez da falta izango Aretxabaletako kaleetan zehar: "Duela 30 urte inguru hasi ziren Arabako Odol Emaileen Eguna ospatzen eta orain arte sekula ez da Leintz bailaran ospatu; beraz, ohorea da guretako eta elkartea bera ere pozik dago hona etortzeaz", azaldu digu Aretxabaletako Odol Emaileen arduradun Ramon Egañak.

### Ateratze arrakastatsuak

Aretxabaleta odol emaileen topagune izango dela-eta, badirudi ohi baino odol emaile gehiago jongo dela osasun etxera. Ramon Egañaren esanetan, azken biak oso ateratze onak izan dira: "Elkartekoak aurreko astelehenean eta oraingoan ere etorri dira eta sumatu dugu jende gehiago ibili dela. Lehengo astelehenean, esaterako, 55 lagun etorri ziren eta horietatik hiru berriak ziren; beraz, hori oso datu positiboa da guretzat". Datorren astelehenean ere izango da odola emateko aukera eta domekako ospakizunaren ostean herritar asko gerturatzea espero dute.



Astelehenean Arabako Odol Emaileen Elkartekoak Aretxabaletan izan ziren odol-ateratzeak egiten. | ARRITXU BARRUSO

### Emaile leialei omenaldia

Ospakizunetarako bakarrik ez, omenaldietarako ere izango da tartea domekan. Hain justu ere, 50 aldiz odola eman duten gizonezkoak eta 40 aldiz odola eman duten emakumeak omenduko dituzte. Egindako lanagatik garaikurra jasoko dute 98 gizonezkoak eta 36 emakumek. Oraindik ere emaileen artean gizonezkoak gehiago dira.

### DATUA

**450**

ODOL EMAILE

450 lagun elkartuko dira Aretxabaletan Odol Emaileen Eguna ospatzeko.

### Odol emaile izateko baldintzak

Emaileak 18 eta 65 urte bitartean izan beharko ditu eta 50 kilo baino gehiago pisatu. Emanalditik emanaldira gutxienez bi hilabeteko tartea utzi behar da. Gainera, ez da baimentzen urtean gizonek lau emanaldi baino gehiago egitea eta emakumeek hiru emanaldi baino gehiago egitea. Neurri horiek kontuan izanik, gorputzak ez dauka inolako zailtasunik emandako odola ia berehala berriro sortzeko.

### ARABAKO ODOL EMAILEEN EGUNA

**10:15** Txistularien kalejira.

**10:45** Urteko batzarra elizan.

**11:30** Meza, abesbatzak lagunduta.

**12:30** Txistulariak eta dantzariak Herriko Plazan.

**13:20** Arrasateko Gaiteroek herria girotuko dute.

**13:40** Trikitilarien kalejira.

**14:15** Odol emaileen bazkaria pilotalekuan.

### Zuk ere beharra izan dezakezu

Azken urteetan gero eta ebakuntza eta transplante gehiago egiten dira eta odol emaileen elkarteak arduratuta daude gero eta odol gehiago behar delako. Dena dela, behar horrek ez gaitu askorik arduratzen. Azken azterketek diote odol emaile izateko baldintzak betetzen dituela biztanleen %60k, baina %5 bakarrik dira emaile. "Nik neuk ez dut oso ondo ulertzen zergatik ez dagoen emaile gehiago. Akaso beldurra-edo emango die odolak eta orratzek", dio Egañak.

Hala ere, Leintz aldean pozik egoteko moduko arrazoiak dituzte: 1.000 biztanletik 50 odol emaileak dira. Espainiako Estatuko datu hoberenetakoa da. Ea domekako ospakizunak datua handitzen laguntzen duen.

ad®

IBARRA garajea, s.l.



GARAJEA • AUTO KONPONKETAK • GARABI ZERBITZUA

Azeri kalea 5, 107 P.K.
Tel.: 943 79 12 61 - 678 47 81 15 Faxa: 943 77 10 01

ARRASATE

**Josu Pereda** | Ingurumen Saileko arduraduna

# "Atez atekoak ez du ekarriko aldaketa handirik"

- Diktamena aurkeztuko dute datorren osokoan
- Atez atekoa onartuko da, ezustekorik ezean

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Hondakinen kudeaketarekin lotuta asteotan hainbat hitzordu izan dira: kontseilua sortu da herriko eragileekin eta auzoz auzo hitzaldi informatiboak egiten jardun dute, Udalak bultzatuta. Hurrengo hitzordua martitzenean, hilaren 12an da: osoko bilkuran landuko dute-eta gaia.

**Zela planteatu behar da gaia?**

Orain sei hilabete hitzartu zen moratoriaren epeak bukatzear daude, eta erabakiak hartu beharko dira, errealitatea zein den ikusita. Erabakia edo asmo deklarazioa. Arrasaten diktamen bitartez aurkeztuko dugu proposamena, Ingurumen batzordean onartutakoa; osokoak erabaki beharko du zer egin.

**Diktamenean, baina, atez ateko bilketa proposatuko da.**

Diktamenak gaur egun emaitzarik onenak ematen duen bilketa sistemaren aldeko proposamena egingo du, sailkatutako bilketa bermatzen duen sistema onenaren aldekoa. Eta datu eta emaitzei kasu egiten badiegu, gaur egun dagoen sistema onena atez atekoa da, bai.

**Udalbatzarraren osaera kontuan hartuta (gehiengoa du Bildu) aurreikustekoa da atez atekoaren proposamenak aurrera egingo duela. Hala bada, zein da hurrengo pausoa?**

Izango da definitzen hastea Arrasaterako proiektu teknikoa. Hori Mankomunitateak garatu eta Udalari eskainiko dio; eta Zerbitzuetako beste diktamen baten bidez erabakia hartu beharko da, osokora eraman eta osokoan aztertu beharko da.

Hori noiz izango den ez dakigu. Kontuan hartu beharra dago orain ia-ia Bergarako proiektua bukatzen dabiltzala, Oñatiko proiektuaren erredakzioa ere kanpora aterako da seguru aski, eta bi herri horiek 2013ko urtarrilean hasiko direnez sistema berriarekin, horren gauzatzearen ondoren etorriko da Arrasateko proiektu teknikoaren garapena. Aurreikusten da atez atekoaren ezarpena 2013ko irailean egitea, eta data horretan posible ez bada, atzeratu beharko da 2014ko urtarrilera.

**Arrasaten ahalegin berezia egin da hondakinen kudeaketaren gaineko informazioa herritarrei helarazteko. Zein erantzun izan dute kontseiluak eta hitzaldi informatiboek?**

Kontseiluari dagokionez, 60 eragileri gonbitea pasa zitzaien, eta parte hartu du %60k. Kale egin dutenak izan dira partidu politikoak eta sindikatuak. Alde horretatik, balorazioa ez da gurako genukeen besteko positiboa. Kontseilua apur bat hankamotz geratu da ez duelako islatu Arrasatek osotasunean izan dezakeen iritzia. Ondorioari dagokionez, berriz, ororrean kontseiluan ondorioztatu da ingurumen, osasun, ekonomia, autosufizientzia eta kostu irizpideak bermatze aldera, beharrezkoa dela derrigorrezko parte-hartze sistema, eta ez boluntarioa.

**Eta hitzaldi informatiboak?**

Udalak ahalegin berezia egin du hondakinen kudeaketaren aldaketa beharrezko zergatik ikusten duen azaltzeko. Hurbiltasun hori bermatzeko antolatu dira sei hitzaldi sei auzotan, eta egia esan ez da parte-hartze handirik izan. %20-25 arteko batez bestekoa egon da. Hori ikusita asmoa dugu landa auzoetan hitzaldiak egiteko: Garagartza-Gesalibarrerako bat, Udalarako beste bat eta akaso Bedoñarako beste bat.

**Zerbait gaineratu gura baduzu...**

Lasai egoteko mezua helarazi gurako nuke. Beste zenbait mezu alarmisten aurrean, atez atekoak ez duela suposatuko aldaketa handiegirik. Eta jendeari esan komunikazio kanpaina bat oraintxe hasiko dela Debagoien osorako, hondakinen arazoa gizarteratzea izango duena helburu. Horrez gain, ezarpenaren datak heldu ahala, beste komunikazio kanpaina bat egingo dugu, atez atekoaren xehetasunak jakinarazteko, eta parte-hartze prozesua zabalduko dugu, herritarrek iradokizunak egin ditzaten. Ezarpena baino hilabete batzuk lehenago izango da hori, beraz, oraindik denbora asko dago.


Josu Pereda. | U.M.

**"2013ko irailean ezin bada, 2014ko urtarrilean ezarriko da atez atekoa"**

**"Herritarrek iradokizunak egiteko parte-hartzea zabalduko dugu"**

## Arabar Errioxako "zukuak" bihar Herriko plazan

**U.M.** | ARRASATE

20-25 upategiko ardoak ekarriko dituzte Herriko plazara bihar, zapatua, 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik gauera. Mondrak antolatuta, Ardo eta Gazta Egunaren VII. edizioa egingo dute. Edateko gozoarekin batera, jatekoa ere izango da: txistorra goizean eta Giokelaren okela, arratsaldean. Eta Mondrako nesken eskutik, umeendako puzgarriak ipiniko dituzte, Seberren. Horrekin batera, gazta lehiaketa eta Araba Euskarazko produktuen salmenta ere iragarri dituzte.

## Munduko zaporeak berdura plazara ekarriko dituzte


Azokarako proba egin zuten eguaztenean etorkinek, Pablo Uranga kalean. | U.M.

**U.M.** | ARRASATE

Azoka biziberritzeko egitasmoaren barruan, etorkinei ere berba eman eta euren ikuspuntua eta elkarlana jasotzeko ekimena bideratu dute Ekin Emakumeak eta Bagara elkarteek.

Horren hasierako emaitza datorren zapatuan, ekainaren 16an, plazaratuko da: "Nork bere herrialdeko jaki bat prestatu eta baserritarren azokan dastatzeko aukera emango dute. Horrez gain, herrialdeotako azoken argazkiak, hizkuntzak...dituzten kartelak ipiniko ditugu azokan", kontatu du Tamara Perezek, Ekin elkarteko dinamizatzaileak.

**Hiru herri, hiru errealitate**

Asia, Afrika eta Hegoamerikako etorkinekin dihardute lanean. "Euren azoken gainean galdetu diegu: zelakoak diren, maiztasuna, zeinek egiten dituen erosketak... Eta baita hemengoen gainean ere: ze igartzen duten faltan, zelako azokak iruditzen zaizkien... Konklusioetako batzuk izan dira faltan igartzen dutela, esaterako, hemen azokek pisu handiagoa izatea, sarriago egitea eta produktuei dagokienez, besteak beste, espezieak. Horrez gain, produktu freskoen garrantzia ulertzen duten arren, azpimarratu dute supermerkatuko prezioak azoketakoak baino merkeagoak direla", dio Ekineko ordezkariak. "Supermerkatuak hotzak dira, ez dago eroslearekiko zuzeneko traturik, eta produktu transgeniko larregi dago. Faltan igartzen dira, adibidez, produktu freskoak", gaineratu du Brigitte Castro kolonbiarrak eta ekimeneko parte hartzaileetako batek.



UDAKO IKASTAROAK
MATRIKULA ZABALIK
AKADEMIA BASTIDA
URTEURRENA-ANIBERSARIO 50 1962 2012
KURTSO KONBINATUAK
BERRIAK
Mekanografia + Ingelesa
Informatika + Ingelesa
Uztailean, 09:00–12:00. 8 eta 16 urte artekoentzat
- INFORMATIKA
- MEKANOGRAFIA
- ADMINISTRAZIOA
- INGENIARITZA
- DISEINUA
- LAGUNTZA KLASEAK
Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33 • Faxa: 943 79 06 28 • formakuntzamariasun@bastida.es

# Atez atekoaren aurkako sinadura bilketa abiaraziko du Arrasate Garbi plataformak

▶ Etxez etxe bidaliko dituzte formularioak, sinadurak batzeko, uztailaren 15era arte

▶ Atzo, eguena, aurkeztu zuten plataforma, eta salatu dute Arrasate herri "zikinenetakoa" dela

**GOIATZ ARANA** | ARRASATE

"Arrasate inguruko herrien artetik zikinenetakoa" da eta "egoera horri buelta emateko" lan egingo duen plataforma aurkeztu zuten atzo, eguena, Kulturaten: Arrasate Garbi.

Areto nagusian elkartu zen herritar dezenteren aurrean, plataforma berriak salatu zuen egin beharreko aldaketa hori, "Udal Gobernuak gehiengo absolutua erabiliz inposatu nahi duen atez ateko sistemak mehatxatu" egiten duela.

Horregatik, plataformaren lehen helburua izango da "atez atekoaren aurkako posizionamendua adierazteko aukera ematea", eta sinadura bilketa bidez egin asmo dute hori.

Horretarako, ez dute mahairik ipiniko, herriko etxe bakoitzera gutun bat bidali baizik. Kontatu dutenez, bertan, Arrasateko kaleetan lortu gura duten garbitasun eta itxura hobekuntzaren helburuak agertuko dituzte, era grafiko batean, eta herrian "inposatu" gura duten sistemaren kontra daudenen sinadurak batuko dituzte. Izan ere, Arrasate Garbi plataformako kideak egungo hondakin bilketa sistemaren eta hori "hobetzen" lagunduko duen bosgarren edukiontziaren alde daude, okerreko jotzen duten atez atekoaren aurrean.



Ramon Aperribai, Jone Astigarraga, Mertxe Trojaola eta Juan Stegmeier. | G.A.

**Sinadura zela eman**

"Inposaketari eta zigorrari ez, zaborrari eta menu programatuen menpean bizitzeari ez, beharrezkoak ez diren kostu eta zabor ordainagiri garestiagoei ez, erabaki demagogiko eta politikoei ez eta kontzientziatzeari eta edukiontzien hobekuntzari bai esan gura dieten herritarren sinadurak" jasoko dituzte. Horretarako, aski izango da etxera ailegatuko den formularioa betetzea, izen-abizenak eta NAN zenbakia jartzea, eta Correoseko postontzietako batean sartzea, uztailaren 15a baino lehen; doan izango da.

**Atez atekoa Stop: elkarlana**

Sinadura emateko baldintza da aurretik emanda ez izatea. Izan ere, jasoko dituztenak Atez atekoa Stop plataformak batutakoei gehitu eta alkateari aurkeztuko dizkiote, "aintzat har ditzan", plataforma biek elkarlanean dihardute-eta. "Sinadura bilketaren bitartez, gainera, euren iritzia eman ahal izango dute azken udal hauteskundeetan abstenitu ziren 6.961 lagunek ere, Bilduren boto emaileak –4.726– baino 2.000 pasatxo gehiagok", azpimarratu dute. Adierazi dute baita ere ideologia politiko denek dutela tokia Arrasate Garbi plataforman.

**Ezaugarri eta filosofia orokorrak**

"Ideologia politiko bako plataforma" moduan aurkeztu du bere burua Arrasate Garbik. "Arrasateko kale eta hormak hobeto eta txukunago mantentzeko behar den aldaketa kulturala sustatzeko eta arrasatearrak informatu eta sentsibilizatzeko ekimenak martxan jartzeko" asmo orokorra adierazi du. Bertako kideen ustez, "elkarbizitza gauzatzen den guneak zaindu eta ez zikintzea arrasasatearron esku" dago, eta horregatik herrikideak "sentsibilizatu eta kontzientziatzea" dute helburu.



AMAIA UMEREZ

## Denetariko ekitaldiak nagusiei gozarazteko

Ederki asko ibili ziren eguaztenean, Logroñon, Iturbideko 50 egoiliar eta haiei laguntzen joandakoak (70-80 bat guztira). Nagusien Astearen barruan egin zuten txangoa. Eta oraindik ere izango dute festarako bidea. Izan ere, gaurko, egubakoitza, bolo txapelketa (10:00etan) eta bingorako (17:00etan) hitzorduak egin dizkiete.

## Zazpi udal ordezkari eta autobusa bete herritar Leonera

**U.M.** | ARRASATE

Bihar, zapatua, 07:00etan aterako da Arrasateko ordezkaritza Leongo kartzelarantz, han preso dagoen Josu Uribetxeberria herrikidearen gaineko informazioa bertatik bertara jasotzeko asmoarekin. Eta orokorrean, udalbatzarraren izenean doazen zazpi udal ordezkarik eta martxa horrekin bat egingo duten herritarrek Uribetxeberria aske utz dezatela eskatuko dute, haren osasun egoera larria aintzat hartuta.

Hori eta maiatzaren 2an udalbatzarrak onartutako mozioa oinarri duen (Bildu, Aralar eta EAJren babesarekin) gutuna ematen ahaleginduko dira kartzelako zuzendariari, hark jakinarazi dielako berak debekatuta duela eurekin batzartzea. Ostean, elkarretaratzea egingo dute kanpoan, "elkartasuna adierazteko barrukoei eta, batez ere, Uribetxeberriari herritarren berotasuna senti dezan". Ostean, Arrasatera bueltatuko dira.

Eta biharko, 19:30erako, beste hitzordu bat egin du Herrira mugimenduak, Seberretik aterako den manifestaziorako.

Restaurante UGARAN Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI TABERNA
943 71 17 68

NIRE USTEZ



NEREA MAKAZAGA

## Ilusiozkoaren deskripzioa

Dramazko pintzelkadak. Eta tantak irudi indartuaren siluetа desitxuratzen, oraindik iritsi ez diren malkoen zantzu.

Erorketa saihestezinera gerturatzen ari den gizartearen mugimendu traketsa, "giza-arte" zahartuaren oinarrietan deseraikitzen.

Dramazko pintzelkada jarraikorra sinesgarritasunean hazten.

"Irudi zezakeen bidean oztopoak gehitu zizkigutela, oztopo denak batera azaldu zitzaizkigula".

Dramazko pintzelkadak nahitaezko gogoetetan. Ilusiozko gogoetak.

"Zergatik ez, oztopoek erakarri gaituzte gaudenetara".

Badirudi azaleratzen ari garela ezkutuan genituenak, eta azaleratzeaz bat biluzten ari direla gure barruak, azalaren mugak galdu ditugula eta odola dastatu dezakegula.

Bor-bor. Irakiten. Kanpo aldera irekitzen. Eta ezezagunaren beldurrak biltzen gaitu, dramatikoki, nola ez.

Dramarekiko maitasun goraipatua.

Seguruenik jarraituko genuke aurretiko ekintzak gauzatzen erantzun berak edo berdintsuak izango bagenituzke bueltan, jada ez ditugunak.

Norabide berri bati zuzentzea baino ez dugu aukera, gure burua argazki ezberdin batean aurkitu gura badugu behintzat.

**"Badirudi azaleratzen ari garela barruan genituenak"**

OHARRAK

**GURASOENDAKO HITZALDIA**
Familian aisialdiak duen garrantzia lantzeko hitzaldia antolatu du Udal Prebentzio Sailak. *Oporrak, seme-alabekin harremanak estutzeko une egokia* da izenburua, eta 6-12 urte bitarteko gurasoei zuzenduta dago. Etxadi, familia-psikologia unibertsitate zentroak emango du. Ekainaren 14an egingo dute, 18:30ean. Izena emateko: 943 25 20 07.

### Zaldibarko Txapelketako finalerdiak asteburuan, eta finalean herri afaria egiteko proposamena

Ezustekoz betetako final-laurdenen ostean jokatuko dituzte asteburuan Zaldibarko finalerdiak (ordutegiak webgunean). Hala, Lasagabaster, Dublin, Abokajarro eta Sonografos lehiatuko dira finaleko txartela lortzeko. Bestalde, aurten finalaren ostean herri afaria egin nahi dute Zaldibarren. Izena emateko deitu 634 44 75 92 zenbakira (15 euro). Domeka da izena emateko azken eguna.

### Euskal Herriaren Lagunek eta Askapenak afaria antolatu dute zapaturako, gaztetxean

Euskal Herriaren Lagunak nazioartean eratutako Euskal Herriarekiko elkartasun komiteak dira. Hala, urtero moduan, aurten ere Europako hainbat herrialdetatik etorriko dira Euskal Herrira (Irlanda, Ingalaterra, Danimarka, Alemania, Italia...). Hemen hainbat topaketa izango dituzte, eta, besteak beste, afaria izango dute bihar gaztetxean (22:00). Afaltzera joan nahi duenak (12 euro) Irati tabernan ditu txartelak salgai.

### Lucas Fernandezen lana jasoko du San Juan jaietako kartelak

Aurtengo San Juan jaietako kartel irabazlearen saria (750 euro) Toledora joango da, Talavera de la Reinara zuzenago esanda, bertakoa baita irabazle Lucas Fenandez Calvo (35 urte). Bigarren postuan Maitane Mazmela arrasatearra sailkatu da, aurtengo Aratusteetako kartel lehiaketaren irabazlea, alegia. Aurten, sanjuanetako 37 lan jaso dituzte.



Kartel irabazlea. | LUCAS FERNANDEZ

### Zumaiako musika bandak kontzertua emango du zapatuan Amaia Antzokian, 20:00etan

Zumaiako banda honek 42 partaide ditu, eta margoa eta musika ustartzen dituen ikustaldia eskeiniko dute Amaia Antzokian, tartean, Johan de Meij-en *Dutch Master Suite* obra. Lan hori Kerkrade-ko (Holanda) Musika Banden lehiaketarako idatzi zen 2009 urtean. Musika banda guztiek jo behar izan zuten lana izan zen. Arte aditua, margoaren atalaz arduratuko dena Ismael Manterola izango da, EHUko Arte Ederretako irakaslea.


Mondrako kadeteak, Gipuzkoako koparekin. | MONDRA

# Kadeteek Gipuzkoako kopa ekarri dute Arrasatera

## Lazkaoren kontra jokatu zuten finalean, azken minutuetan egin zuten garaipenaren gola

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Denboraldi honetan hainbat berri txar jaso ditugu Mondraren eskutik, gizonezkoen lehenengo taldearen maila galtzea –konfirmatzeko dago oraindik, goiko kategoriak jokatzen dabiltzalako oraindik–, zuzendaritzako gorabeherak, arazo ekonomikoak... Baina dena ez da txarra izan, ezta gutxiago ere. Hasteko, zuzendaritza talde berria buru-belarri dabil klubaren egoera ekonomikoa bideratzeko lanean, eta, bestetik, ikustekoa izan da kategoriaz igo berri diren emakumezkoek zelako denboraldi txukuna egin duten.

Bada, hori guztia gutxi balitz, harrobia ere hasi da bere fruituak ematen –hor egin behar da benetako lana–, Mondrako kadeteak Gipuzkoako txapeldun izan berri dira-eta.

**Lazkaoren kontrako finala**
Joan den zapatu arratsaldean jokatu zuten Zumarragako Argixao futbol zelaian kadeteen lehen mailako Gipuzkoako finala Lazkaok eta Arrasatek. Partidu polita ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek. Arrasatearrek hiru gol aukera izan zituzten lehenengo zatian, baina ez zuten asmatu, eta bigarrena berdinduago joan zen.

**Penaltien zain**
Partiduaren nondik norakoak ikusita bazirudien penaltietan erabakiko zela txapelduna. Baina, zaleek gutxien espero zutenean, 85. minutuan, zelairatu berri zen Josu Azkarate aurrelariak garaipenaren gola egin zuen, ezkerreko hegaletik jokaldia eginda. 1-0 irabazi zuten, beraz, arrasatearrek.

txatxilipurdi

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2012ko ekainaren 21a.
**Tokia:** Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoa.
**Ordua:** 17:30ean lehengo deialdian eta 18:00etan bigarrenean.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2011ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2011ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
3. 2012ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
4. 2012ko egitasmoak eta aurrekontua, eta hala badagokio, onarpena.
5. Bagara elkartean bazkide izatea.
6. Elkartearen jakinarazpenak.
7. Galdera eta erreguak.

*Batzar Nagusirako dokumentazioa Txatxilipurdiko egoitzan egongo da bazkideen eskura. Nahi duenari, etxera bidali diezaiokegu dokumentazio hori.*

Irati Pagoaga / Lehendakaria
Arrasaten, 2012ko ekainaren 1ean

aed arrasate euskaldun dezagun

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2012ko ekainaren 21a.
**Tokia:** Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoa.
**Ordua:** 17:30ean lehengo deialdian eta 18:00etan bigarrenean.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2011ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena, hala badagokio.
2. 2011ko jarduera eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
3. 2012ko bazkide ekarpenaren zenbatekoari buruzko proposamena.
4. 2012ko egitasmo eta aurrekontuaren azalpena eta onarpena, hala badagokio.
5. Zuzendaritza Batzordearen berritzea
6. Galdera eta erreguak.

*Batzar Nagusirako dokumentazioa AEDren egoitzan egongo da bazkideen eskura.*

Eñaut Muxika / Lehendakaria
Arrasaten, 2012ko ekainaren 1ean

Ekin Emakumeak • AED

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2012ko ekainaren 21a.
**Tokia:** Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoa.
**Ordua:** 17:30ean lehengo deialdian eta 18:00etan bigarrenean.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2011ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2011ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
3. 2012ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
4. 2012ko egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena, hala badagokio.
5. Zuzendaritza Batzordearen berritzea.
6. Galdera erreguak.

*Batzarrean onartu behar diren dokumentu guztiak aldez aurretik elkartearen egoitzan eskuragarri izango dituzue.*

Ines Alday Oruna / Lehendakaria
Arrasaten, 2012ko ekainaren 1ean

# Atez atekoaren gaineko bilerekin pozik dago Udala

## Udal Gobernua herritarrekin, elkarteekin eta dendariekin batu zen maiatzean

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udal Gobernuaren asmoa da datorren urte hasieran ipintzea martxan atez atekoa herrian. Bada, herritarrei informazioa eta azalpenak emateko helburuarekin Udalak hainbat hitzaldi eta bilera ireki egin zituen maiatzean zehar. Pozik daude bilerok emandakoarekin eta uste dute herritarrak lasaitzeko balio izan dutela. "Zaborraren arazoa marko orokorragoan kokatzeko hainbat hitzaldi antolatu genituen, eta herritar dezente gerturatu ziren. Uste dut oso interesgarriak izan zirela", azaldu du Ingurumen zinegotzi Leire Iruinek.

**Merkatariak kezkatuen**

Jardunaldi horiez gain, hiru bilera egin zituzten: lehenengoa herriko elkarteekin, bigarrena merkatariekin eta hirugarrena bergarar guztiei irekia. Merkatarienak batu zuen jende gehien: "70 pertsonatik gora etorri ziren. Normala den moduan, zalantza asko zituzten, hondakin asko sortzen duen sektorea delako. Antzuolako frutasaltzaile baten esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten, eta, horrez gain, zalantza guztiak argitzen ahalegindu ginen. Uste dut lasaiago irten zirela bileratik eta asko eskertu zuten horrelako bilera informatiboa egitea. Aurrerantzean ere haiekin kontaktuan jarraituko dugu, dendaz denda bakoitzaren egoeraren azterketa egingo dugu".

Hain justu ere, ekaineko azken astetik aurrera Udalak lau informatzaile ipiniko ditu herriko merkatarien egoera aztertzeko eta zalantzak argitzen joateko.

Elkarteekin egindako bileran, bestetik, 30 lagun inguru batu ziren eta herritarrendako antolatutakoan, gutxiago. "Orokorrean, balorazio positiboa egiten dugu bileren gainean. Uste dut herritarrak konturatu direla atez atekoa sistema malgua dela eta ondo egin nahi izanez gero herritarrek berehala ikasiko dutela".

**DATUA**

**2**

INFORMAZIO BULEGO

Herritarrei informazioa emango dieten informazio bulego bi ipiniko dira.

**ESANAK**

**"Bileren ostean herritarrak askoz lasaiago ikusi ditugu"**

LEIRE IRUIN | ZINEGOTZIA

**Herritarrendako informazioa**

Herritarren zalantzak argitzen jarraitzeko uztailean bi informazio bulego ipiniko ditu Udalak. Bat erdigunean egongo da eta bestea kanpoaldeko auzo batean. Horrez gain auzoz auzo hainbat bilera egingo dituzte: "Lehenengo baserri auzoetako alkateekin bilduko gara eta auzoetara joateko egutegia zehazteko dugu. Ondoren kaleko auzoak lau gunetan banatuko ditugu eta horiekin bilerak egingo ditugu. Udako oporretatik bueltan lau gune horiek zazpi gunetan banatuko dira eta bakoitzaren bi bilera egingo ditugu".

**Herri galdeketarik ez da egongo**

Atez atekoaren kontrako herri plataformak sinadurak batzen jarraitzen du. Bada, Udal Gobernuak adierazi du ez duela plataformarekin biltzeko inongo arazorik. "Udaletxeko ateak irekita daude herritar guztiendako eta baita atez atekoaren kontra dagoen plataformarendako ere. Herritar moduan edo plataforma moduan etorrita gustura emango dizkiegu behar dituzten azalpen guztiak. Mahai baten bueltan ezarri eta euren proposamenak entzuteko prest gaude. Azalduko diegu, esaterako, zergatik ez dugu herri galdeketarik egingo; uste dugu ez dela bi sistemaren arteko aukeraketa bat. Aukera bakarra daukagu oraingoz beharrezkoa den birziklapen kopuru hori lortzeko eta hori atez atekoa da".



San Antonio jaiak, joan den urtean. | GOIENA

# San Antonion eta Elosuan festa giroan ibiliko dira

## San Antonion datorren domekan bukatuko dira jaiak; Elosuan astelehena izango da egun handia

A.B. | BERGARA

Karpako taberna irekitzearekin batera festan murgilduko dira San Antonio auzoan, eta horrela jarraituko dute datorren domekara arte.

Bihar, zapatua, San Antonioko txirrindularitza saria egingo dute, 16:00etan hasita, eta iluntzean, berriz, sardinajana plazatxoan. Arratsalde osoan musikaz girotuta egongo da auzoa.

Domekako eta asteleheneko atsedenaren ostean, martitzen iluntzean jarraituko du parrandak. 19:30ean kanpai-iraulketak eta buruhandiak egongo dira eta 20:00etan, nobena.

Eguaztenean San Antonio eguna izanda meza, San Joxepe abesbatzaren kontzertua eta luncha egongo dira eta iluntzean buruhandiak eta nobena.

San Antonioko jaiek datorren domekara arte iraungo dute. Beraz, datorren aste bukaeran ere parrandan jarraituko dute.

**Otaba jaiak Elosuan**

Elosuan ere bihar etxafuegoa jaurti eta Otaba jaiak hasiko dituzte. Domekarako egun osoko egitaraua antolatu dute: meza, pilota partiduak, triki-poteoa Lutxurdio, Aitziber eta Kanterarekin, erretiratuen bazkaria eta herri kirolak.

Dena dela, urtero moduan, astelehena, Otaba Txiki eguna, izango da jaietako indartsuena. Meza eta *piskolabitx*-aren ostean bazkaria egingo dute, eta ondoren ume, zahar eta gazteendako jolasak izango dira. Bazkalostea gauera arte luzatuko da: afaria eta erromeria egingo dituzte.

# Eudelen Tokiko Berrikuntza Agendan sartu da Bergara

## Eudelek eta Jaurlaritzak sinatutako hitzarmenari esker 13 herri batu dira proiektura; tartean, Bergara

A.B. | BERGARA

Eudel eta Eusko Jaurlaritza 2008. urtea geroztik elkarlanean ari dira Tokiko Berrikuntza Agenda proiektuan. Helburua da tokiko administrazioetan berrikuntza, modernizazioa eta gardentasuna sustatzeko ekintza-plan bat garatzen laguntzea. Bada, Eudelek eta Jaurlaritzak sinatu berri duten hitzarmenari esker beste 13 udalerri sartuko dira orain Tokiko Berrikuntza Agendan, eta horietako bat da Bergara.

**Non sakondu**

Tokiko Berrikuntza Agendan sartuta, Bergarako Udalak orain erabaki beharko du berrikuntza eta modernizazio prozesu hori ze alorretan ipini nahi duen martxan. "Alor askotan ezar daiteke berrikuntza, eta laster batean erabakiko dugu non. Interes handia daukagu e-administrazioaren inguruan, baina badira beste aukera batzuk ere: BAZ (Biztanleen Arreta Zerbitzua) ezartzea, gardentasunaren ingurukoak, herritarren parte-hartzea... Egoera aztertu eta erabaki egin beharko dugu ze alor indartu", adierazi du Komunikazio eta Parte-hartze zinegotzi Jaione Isazelaiak.

**Ekintza-plana**

Behin berrikuntza ezarri beharreko esparrua zehaztuta, Udalak ekintza plana garatu beharko du, eta aholkularitza jasoko du horretarako: "Kasu honetan ez dugu dirulaguntzarik jasoko, baina ekintza plana garatzeko aholkularitza izango dugu. Horrez gain, dagoeneko Udaleko langile bat liberatu dugu berrikuntzaren lidergo teknikoa hark eraman dezan aurrera", adierazi du Isazelaiak.

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

## OHARRAK

**NABARRALDEREN HITZALDIA**
Nabarralderen eskutik, martitzenean, hilaren 12an, Oskar Arantzabalen hitzaldia izango da Irizar jauregian. Arantzabal (Eibar, Gipuzkoa, 1967) ekonomialaria da. Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen, eta hamabi urtez aritu da esportazioan lanean. Bergarako hitzaldian *Independentziaren bide ragarritasun historikoa* gaia jorratuko du Irizarren, 19:00etan.

**KONTXI IDIGORASEN ERAKUSKETA**
Kontxi Idigorasen akuarela erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Nahikari tabernan. Hilaren amaierara arte izango da ikusgai erakusketa.

**PINTURA ESKOLAK GAZTETXOENDAKO, UDAN**
Beart elkarteak 6-13 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako pintura eta marrazketa ikastaroa antolatu du uztailaren 2tik 27ra, aste barruan, 10:30etik 12:30era. Izen-ematea eta argibideak ondoko telefono zenbakietan: 653 71 53 82 edo 635 71 32 69.

**EZKER ABERTZALEAREN HERRI BATZARRA**
Ezker Abertzaleak deituta, Herri Batzarra izango da eguaztenean, hilaren 13an, Miguel Altunako aretoan, 19:00etan. Bilera irekia izango da eta Bilera beti bezala irekia izango da eta ezkertiar eta abertzale guztiei parte hartzeko deia egin diete.

**BERGARA KIROL ELKARTEAREN BATZARRA**
Bergarako KEk urteko batzarra egingo du eguenean, hilaren 14an, Miguel Altunako aretoan: 18:30ean lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena.

**OSINTXUKOEN IBILALDIA ZAPATUAN**
Osintxuko Herri Batzarrak deituta, mendi ibilaldia egingo dute bihar, zapatua. 7:00etan aterako dira eta, besteak beste, Klabelinaitz eta Irukurutzetatik igaroko dira. Parte hartzeko deia egin dute.

# San Pedro parrokiako berritze lanak martxa onean doaz

Datorren astean, astelehena eta eguaztena bitartean, falta diren lau kanpaiak, beheko solairukoak, muntatuko dituzte Amenabar enpresakoek

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Joan den urteko uztailean jarri zituzten abian San Pedro parrokia berritzeko lanak, eta martxa onean doazela adierazi digute arduradunek. Zati handi bat bistan da dagoeneko. Hasiera baten, berritze lanak datorren urtean amaitzea da asmoa.

Amenabar enpresako langileek egurrezko teilatuko egituraren zati bat jaitsi zuten urrian eta dorrearen berreskuratze lanak, arkitektura lanak bukatuta daude dagoeneko. Bergarako Zetabi Arkitektura Bulegoak egin du San Pedro parrokia berritzeko proiektua. Dorrea egonkortu eta garbitzeaz gain, dorreko gainerako elementuak konponduko dituzte datozen hilabeteotan, kanpaiak, eskailera, armarria eta erlojua barne. Hurrengo astean, astelehena eta eguaztena bitartean, falta diren lau kanpaiak (beheko solairukoak hain zuzen) muntatuko dituzte.

Hain zuzen ere, Amenabar enpresak dihardu San Pedron lanean eta obraren zuzendaritza Zetabi enpresaren eta Jesus Laskurain aparejadore bergararraren ardura da. Aitor Zubia arkitektoaren arabera, altxaerak eta presbiterioko lanei ekingo diete hurrengo fasean.



Dorrearen zati bat bistan da dagoeneko. | ZETABI

**Euriak lagundu ez**

Negu euritsua izan da aurtengoa eta horrek ez du lagundu parrokia kanpoaldeko lanetan. Edozelan ere, teilatuko lanak 15 bat egun barru bukatuko dituztela esan digu Zubiak.

San Pedro berritzeko proiektuak 3 milioi euro inguruko aurrekontua dauka eta lanak 2013. urterako amaitzea da asmoa. Lehenbiziko faseko lanetarako 400.000 euroko laguntza agindu zuen Gipuzkoako Diputazioak.

Finantzazioa da buruhaustetako bat, are gehiago gaurko egoeran. San Pedro parrokiak laguntza kanpaina abiarazi zuen eliztarren artean, obretarako dirua jasotzeko. Era berean, San Pedroko lanak egin ahal izateko Komenioko etxea saldu du parrokiak

Eliza barrutik konpontzea da helburua hirugarren fase baten, baina beti ere finantziazioa segurtatzen bada. Besteak beste, argiteria sistema berritu nahi dute, elizan berogailu sistema jarri eta, aldi berean gaur dagoen hezetasun arazoa konpondu.

Hain zuzen ere, zorua berritzea, eliza margotzea eta elementu artistikoak zaharberritzea daude egitasmoen artean. Bestalde, Boni Laskurain pasealekuko Sierbetako eraikina ere berritzen dabiltza.

## Javier Linazisoro omendu dute


AITOR ZABALA (DV)

Javier Linazisoro bergararra omendu zuten zapatuan Elgoibarko Trinitate jaietan. Azken urteotan artillarien kapitaina da Linazisoro, eta jaietako zapia jantzi zion Atabal elkarteko Juan Carlos Arrietak, omenaldi gisa. Abankargazko piezekin eta arma zaharrekin esperientzia luzea dauka Linazisorok; besteak beste, Gasteizko eta Eibarko jaietan parte hartu izan du antzinako armekin. Soraluzeko jaietan ere irtengo da aurki.





JOXAN ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Mujika gozotegia
Gozogintzan nahi duzuna
•
Eskatu artisautza eta tradizioa.
Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

# Ospakizunak gaztetxean datorren aste bukaera bitartean

Kartzela zaharrean hamabi urte bete dituztela ospatzeko egitarau zabala prestatu dute gazteek; afari irekia gaur eta kontzertua zapatu gauean

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Bergarako gaztetxeak hamabi urte bete ditu kartzela zaharrean, eta mugarria ospatzeko hamabi eguneko egitaraua antolatu dute. Martitzen arratsaldean egin zuten prestatutako egitarau zabalaren aurkezpena. Gaztetxeko kideek gogoratu zuten moduan, azken hamabi urteotan pertsona eta belaunaldi desberdinak pasatu dira Gazte Asanbladatik, baina guztiek helburu bera izan dutela azpimarratu zuten; botere ekonomiko zein instituzionalari aurre egitea eta proposamen eta proiektu autogestionatuak sortzea, betiere burujabetza osoarekin eta gertuko kezkei aurre egiteko asmoarekin.




Ospakizunen egitaraua aurkeztu zuten martitzenean gaztetxean. | E.M.

**Hamaika ospakizun**

Gaztetxeko kideen ustetan, inoiz baino arrazoi gehiago daude sistemari bizkarra eman eta alternatibak sortzeko, krisi ekonomikoa, krisi soziala, krisi energetikoa eta gazteek eurek bizi duten krisiagatik. Neurri handi batean, sistema oso baten krisia bizi dugula eta, etorkizun desberdin batean sinetsita, aktiboki lanean jarraitu nahi dutela adierazi zuten gazteek.

Hamaika ospakizun izango da ekainaren 17ra bitartean. Eguaztenean hasi ziren ekitaldiak eta aste bukaeran gauza ugari egongo da; tartean, gaurko afari irekia, 21:00etan, eta su artifizialak eta poesia musikatuko emanaldia; bihar, zapatua, Intxortara irteera 09:00etan, gaztetxeen egoeraren gaineko mahai ingurua 16:00etan eta kontzertua; eta domekan, 18:30ean, *Errauskētari ateak ixten* dokumentala emango dute.

## Pol-Poleko beteranoen irteera, eta uztailaren erdialdeko Ehun Miliak probarako boluntario bila

Gorla Alpinorekin batera Pol-Poleko beteranoek irteera iragarri dute ekainaren 16ko eta 17ko asteburuurako. Lagunas de Neila aldera joango dira. Bestalde, Ehun Miliak proba Bergaratik igaroko da uztailaren 13an, iluntze partean, Trekutz aldetik sartu eta Irukurutzetaraino. Laguntzaileak behar dituzte. Interesatuek ekainaren 20ra arte eman dezakete izena Pol-Polera (943 76 48 51) deituta.

## Bingen Mendizabal eta Alejandro Ferreira bikotearen Bipolar taldea zapatuan Kai tabernan

Bipolar taldea osatzen duten Bingen Mendizabal eta Alejandro Ferreira Kai tabernan izango dira bihar, zapatua, 19:30ean. Biek ere ibilbide luzea daukate musikan. Mendizabalen kasuan, batik bat zinemarako egin dituen soinu bandengatik da ezaguna: *Alas de mariposa*, *Secretos del corazón*, *Pantaleón y las visitadoras* eta *El viaje de Carol*, hain zuzen ere.

## Mariaren Lagundiko jaia ospatuko dute domekan, eta hainbat ekitaldi izango dira goiz osoan

Mariaren Lagundiko jaia ospatuko dute domekan, 10:00etan hasita. Besteak beste, kirol finalak, (pilota, futbola, saskibaloia eta beste), marrazki eta pintxo lehiaketa, txikiendako puzgarriak, kukañak eta bestelako jokoak izango dira egunean zehar. Umeen parkea 14:00ak arte izango da zabalik. Mariaren Lagundiak herritarrei gerturatzeko gonbidapena egin die.

## Udaberriko Kontzertua zapatuan, eta herri afaria eta Laskurainen koadro baten zozketa jarraian

Udaberriko Kontzertua egingo du Musika Eskolak bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Sarrerak Musika Eskolan eskura daitezke, 3 euroren truke, gaur, egubakoitza, 15:30etik 19:30era. Kontzertuaren ostean herri afaria izango da Udal Pilotalekuan, eta Luis Laskurainen koadro bat zozketatuko dute. Zozketarako txartelak euro baten truke daude eskuragarri.



# "Mimo handiz zaintzen ditugu Corpuseko arropak"

## Santa Ana komentuan gordetzen dituzte San Migelen eta apostoluen jantziak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Domeka. 08:00. Santa Ana komentua. Askotariko tamainatako 25 kaxa. Kofradiako kideek guztiak jaso eta Santa Ana antzokira eroango dituzte. Barruan, Corpus prozesioko pertsonaia garrantzitsuenen arropak, ileordeak, maskarak eta osagarriak: San Migelenak, Kristorenak eta apostoluenak.

Guztiak, ondo aireztatuta, eta kaxatan sartuta. Horren guztiorren ardura dauka Santa Ana komentuko kide Miren Lore ahizpak. Izan ere, Corpuseko arropak eta beste komentuan gordetzen dituzte. "Mimo handiz zaintzen ditugu. Egia esan, ez dute zainketa berezirik behar, baina hemen ukitu berezia ematen diegu: ondo aireztatu eta lisatu, kolonia bota...", esan digu Miren Lorek.

45 urte daramatza elgoibartar horrek arropak zaintzen. "Lan handia" dela esan digu, baina "gustura" egiten duela. "Herriaren onurarako lana da, eta oso-oso gustura egiten dut. Oñatiarra izango banintz, harro egongo nintzateke prozesioan horren garrantzitsuak diren elementuak nire zaintzapean egonda. Urte asko dira, baina, osasunak laguntzen didan artean, jarraitzeko asmoa daukat", dio, barrez.

Dena den, erretiroa hartzen duenerako ordezkoa baduela esan digu. "Egun, nire laguntzailea da, eta oñatiarra, gainera. Urte batzuk barru, hark arduratu beharko du", kontatu digu.

### San Migelendako hiru kaxa

Corpuseko elementuak gordetzeko kaxak ondo baino hobeto antolatzen ditu Miren Lorek, Kofradiako kideen laguntzarekin. Apostoluen eta Kristoren maskarak banaka gordetzen dituzte. Kaxa bakoitzean norberak erabiliko duen atributua eta eskularruak ipintzen dituzte.



Miren Lore ahizpa, apostoluen soineko eta San Migelen kaskoarekin. | MIREIA BIKUÑA

### CORPUSETAKO EGITARAUA

**EKAINAK 8**

**14:30-17:00** Oñatzekoekin Corpus dantzak herriko auzoetan eta ikastetxeetan.

**19:30** Musika eskolako haize taldearen kontzertua, Portuko plazatxoan. Eguraldi txarra egiten badu bertan behera utziko dute.

**22:30** *Bodologuak* antzezlana Santa Anan.

**EKAINAK 9**

**09:00** Oñatzekoen emanaldia kalerik kale.

**12:00** Umeendako lasterketak.

**17:00** Umeendako tailerrak Etxaluzen.

**19:00** 10. Nazioarteko Lasterketa.

**20:00** Musika Bandaren kalejira.

**Ondoren** Sound Proyect disko festa Herriko Plazan.

**EKAINAK 10**

**09:00** Txistulari Bandaren goizeresia.

**10:45** San Migelen irudia parrokiara eroango dute.

**11:00** Meza nagusia eta prozesioa.

**18:15** Corpus dantzak plazan.

ESANAK

**"25 bat kaxatan gordetzen dugu guztia"**

**"Ileordekoak manikietan ipintzen ditugu"**

MIREN LORE AHIZPA | ZAINTZAILEA

San Migelen arropak eta elementu guztiak gordetzeko hiru kaxa behar dituzte: lehenengoan maskarak daude –bost–, bigarrenean armadura eta hegoak eta hirugarrenean kaskoa. Apostoluek eta Kristok erabiltzen dituzten kapak eta soinekoak kaxa baten gordetzen dituzte eta Kofradiako kideen kapa beltzak, pertxatan zintzilik.

### Ileorde sintetikoak eta natura

Santa Anan gordetzen diren elementuetatik berrienak ileordeendako manikiak dira. Iaz erosi zituzten. "Orain arte poltsatan gordetzen genituen, baina zabaltzeko orduan lizunduta egoten ziren. Egun, ileorde bakoitzak maniki bat dauka eta ile-apaintzaileak dagokion moduan gordetzen du: makoekin, erruloekin... Ileorde guztiak sintetikoak dira, San Migelena izan ezik: ile naturala da. Ile-apaintzaileak guztiak orraztu ditu dagoeneko", esan digu.

Ezkutuko lana egiten du Miren Lore ahizpak, baina ezinbestekoa, domekako prozesioa ondo irten dadin.



Apostoluen maskarak banaka gordetzen dituzte. | MIREIA BIKUÑA



Apostoluen eta San Migelen ileordeak, manikietan. | MIREIA BIKUÑA

### Gaztelekuen kudeaketa ereduen gaineko mahai-ingurua

*Gaztelekua Herrijorran* egitasmoaren barruan, kudeaketa ereduen gaineko mahai-ingurua antolatu dute: gaur, egubakoitza, 19:00etan, gaztelekuan. Kudeaketa ereduak eta esperientzia ezberdinak partekatuko dituzte Gernikako Astra eta Arrasateko gaztetxeetako eta Elorrioko Arriola Kultura Elkarteko ordezkariekin.

### Bisita gidatu berezia egingo dute domekan Turismo Bulegokoek

Unibertsitatea ikusi, eta San Migel eta apostoluak nola janzten diren erakutsiko dute Turismo Bulegoko teknikariek domekan, 10:00etan.

Gehienez, 15 pertsonako taldea osatuko dute. Hori horrela, aldez aurretik izena eman behar da 943 78 34 53 telefonoan. Pertsona bakoitzak hiru euro ordaindu beharko ditu bisitarengatik.

### Joseba Irazokiren gitarra doinuak Antton tabernan gaur

Joseba Irazokik kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 20:00etan, Antton tabernan.

Berako musikariak umorez betetako kontzertu zoro eta bitxia eskainiko du, gitarraren laguntzarekin.

Irazoki hainbat proiektutan ikusi dugu azkenaldian: Do, On Benito, Aton Rhumba, Petti eta Rafa Ruedarekin, besteak beste.

### 'Parot doktrina'-ren gaineko berbaldia Oñatiko Herrirarekin

Oñatiko Herrirak *Preso politikoek aurka biziarteko zigorrik ez!* lelopean *Parot doktrina*-ren gaineko berbaldia antolatu du: gaur, 19:00etan, kultura etxean. Alberto Plazaola oñatiarrari eta beste hainbat presori ezarri dioten doktrinari buruz berba egingo du Aiert abokatuak.

Berbaldia irekia da herritar guztiendako.

### Sound Proyect eta Aratz Losadarekin disko festa plazan

Musika festa egingo du Sound Proyect taldeak zapatuan, 20:00etatik 22:00etara eta 23:00etatik 01:00etara, Herriko Plazan. Dantzalekuetako musika ezagunena ipiniko du eta Aratz Losadak egingo ditu *speaker* lanak, plazan dauden guztiak dantzan ipintzeko asmoz. Dantzaldia adin guztietako pertsonendako da, ez bakarrik gazteendako.




Abixaran taldeko kideetako batzuk, kamiseta berriarekin, kiroldegiko frontoian. | AITZO BARANDIARAN

# Abixaran: urtebete korrika egin duen emakume taldea

## Entrenatzeko, probetan parte hartzeko eta kafea hartzeko elkartzen dira

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

"Ez da erraza, baina ezta ezinezkoa ere. Oñatin geroz eta jende gehiago ikusten da korrika, baina familia duten emakumeak gutxi dira. Kirola egin eta txapelketa desberdinetan parte hartzea gustatzen zaigun emakumeak egonda, zergatik ez dugu talde informal bat sortzen elkarri animatzeko? (...) Gaurko nire proposamena hauxe da: zergatik ez elkartu? Horrela, elkarri lagunduko genioke entrenamenduetan, gure neurriko irteerak eginez, ordutegi desberdinak proposatuz… Zergatik ez gara animatzen?".

Hitz horiek dira Abixaran taldearen sorrera. Goiena paperean idatzi zituen Susana Arresek, eta orduan egindako deialdiak erantzun zabala izan du Oñatiko emakumeen artean. Baina baita Debagoieneko beste herri batzuetako emakumeen artean ere. Egun, adin askotariko 29 emakume daude taldean; gehienak korrika bakarrik egiten zutenak, edo korrika egiten hasi berriak. "Emakumeen erantzuna izugarria izan da. Deialdia egin nuenean ez nuen halakorik espero, baina, egia esan, oso gustura nago", dio Susana Arresek.

**Triku taldea oinarri hartuta**

*Lotsak baztertu eta animatu!* izenburua zuen iritzi artikulu hura aintzat hartuta, talde sendoa osatu dute. Urtebeteko ibilbidean, korrika lotsa eta konplexu barik egin daitekeela erakutsi dute.

Abixaranen filosofia nagusia kirola taldeka egitea da. "Nik bakarrik edo anaiarekin egiten nuen korrika. Konturatu nintzen nire egoera berberean beste emakume batzuk zeudela. Ni Zarauzko Triku emakume taldeko kidea naiz, eta halako talde baten behara zegoela ikusi nuen", gogorazi digu Arresek.

Goienan idatzitako artikulua eta, batez ere, ahoz ahoko publizitateak indarra eman dio taldeari. Ez dira bakarrik kirola egiteko elkartzen. " Elkarrekin entrenamenduak antolatu, esperientziak kontatu, aholkuak eman eta informazioa partekatzen dugu. Hartu -emanetan gaude egunero. Google Groups eta Facebook erabiltzen dugu".

Talde moduan hainbat probatan parte hartu dute: azkena Eskoriatzako Zazpi Elizateak martxa, baina aurretik beste hainbatetan egon dira: Lilatoia, Behobia-Donostia, Martin Fiz maratoi erdia, Udaberriko Lasterketa, Berdintxiketan, Aloñako Igoera…

Azken probetan, gainera, taldeko kamisetak erabili dituzte.

**Talde irekia da**

Abixaran taldeko kide da Miren Josune Bikuña oñatiarra. Hark ere bakarrik egiten zuen korrika, eta, Susana Arreseren gonbidapena onartuta, taldera batu zen. Oso pozik dagoela esan digu: "Korrika bakarrik egin ordez, taldeka egitearena ideia ona zela ikusi nuen, eta gaur arte. Azken urtebetean taldeak hartu duen itxura ikusgarria da. Ni oso gustura nago. Esperientzia ikaragarria izan da, eta emakume guztiak animatu gura ditut".

Talde irekia da, eta taldeka korrika egin gura duten emakume guztiei irekia. "Gurekin hartu-emanetan jarri gura dutenek mezua bidali behar dute *susana.arrese@gmail.com* helbidera, eta listo. Oso erraza da. Animatu!" dio Arresek.

**DATUA**

**29**

KORRIKALARI

Horiek dira Abixaran taldean diharduten emakumeak.

**ESANAK**

**"Talde irekia gara; edonork egin dezake korrika gurekin"**

SUSANA ARRESE | ABIXARAN

**ESANAK**

**"Esperientzia ikusgarria izan da; animatu eta etorri!"**

M. JOSUNE BIKUÑA | ABIXARAN

### OHARRAK

**ESPELEOABENTURA**

Gesaltza-Arrikrutz sistema karstikoa ezagutzeko espeleoabentura irteera egingo dute hilaren 30ean. Lau bat orduko ibilbidea da eta aldez aurretik eman behar da izena 943 08 20 00 telefonoan.

Bestalde, Espeleo Txiki egitasmoko hurrengo ibilaldia uztailaren 12an egingo dute. Arrikrutzeko telefonora deitu behar da lekua hartzeko.

**ERREKALDEKO SARIAK**

Errekaldeko jaietako zenbaki sarituak hauek dira: 1.279 (ordenagailua), 2.838 (La Perlan egonaldia bi pertsonarendako), eta 420 eta 1.621 (bi pertsonarendako afari bana Urbia tabernan).

## Aloñako neskak Euskadiko txapeldun

Infantil mailako Aloñako eskubaloiko neskek Euskadiko txapelketa irabazi dute, finalean Zuazori 20-16 irabazita. Partidu lehiatsua izan zen, eta bizkaitarrek agindu zuten markagailuan minutu gehienetan. Baina, azken ordu laurdenean sartu aurretik, Aloñak abantaila hartu eta irabazi egin zuen. Zorionak!



MIKEL MANTXOLA

# EAJ: "Ospakizunetan ez dugu ordezkari politiko gisa parte hartu, Udal Korporazioko kide gisa baizik"

Bilduko Udal Gobernuko ordezkariek Corpusaren gaineko ospakizunen aurrean egindako adierazpenari erantzun diote Oñatiko Jeltzaleek

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udal Korporazioko EAJ-ko zinegotziek, Bilduko Udal Gobernuko ordezkariek Corpus eguneko ospakizunen gainean egindako adierazpenak direla-eta, euren ikuspuntua eman dute. "Ospakizunetan sekula ez dugu ordezkari politiko gisa parte hartu, hala kalifikatzen badute ere, Udal Korporazioko kide gisa baizik. Oker daude. Izan ere, Parrokiatik eta Kofradiaren aldetik, betidanik, historikoki, akordio tazitoa egon da Udal Korporazioarekin, baina ez alderdi politikoekin, eta, ondorioz, inor ez doa alderdi horien izenean. Ez da ona eremu erlijiosoa eta politikoa nahastu nahi izatea, orain arte inork ere ez du egin-eta. Udal Korporazioaren zati bat zilegitasunez ordezkatzen duten herritar gisa bakarrik parte hartzen dugu guk, besterik ez", esan dute jeltzaleek kaleratutako oharrean.

Gainera, EAJk esaten du Bilduk emandako arrazoiak "errespetatzen" dituela, eta baita euren "akonfesionaltasun aldarrikapena". Baina ez dute onartzen "besteok nola jokatu beharko genukeen agindu nahi izatea, ez eta Gobernuko euren posizio politikotik hori egitea. Horrela eginez gero, gaia politizatu egiten delako". Hau gaineratu dute: "Bidezkoa da bakoitzaren pentsaera defendatzea, baina ez da zilegi ezberdin jokatzen dutenak kritikatuz eta errespeturik gabe egitea, besteok ere askatasunerako eskubide berbera baitugu".

**Tradizioa eta modernotasuna**

Oñatiko jeltzaleek kaleratutako oharrean, bestalde, "antzinako ospakizunei buruz Bilduk egindako komentarioak ez dira onargarriak", aipatzen dute." Tradizioa ez doa modernotasunaren aurka, ezta tradizioa errespetatzearen kontra ere. Oker daude, Corpus eguneko ospakizunak modernizatu egin beharko liratekeela intsinuatuz hitz egiten dabiltzanak, modu naturalean eman baita bilakaera hori. Eta ez dira onargarriak, alderdikoiak direlako, antzinako ospakizunei buruzko komentarioak, erlijio mundukoak eta estamentu militar eta politikoak elkarrekin doazen ospakizunei buruzkoak, Corpusetako ospakizunetan ez baita horrelakorik gertatzen.Guk ere ez dugu onartu botere horien gainjartzerik: batetik erabat errespetatzen dugulako estamentu erlijiosoa, eta bestetik guk sekula ez dugulako joera politiko-militarrik izan", diote.

> **"Ospakizunetan parte hartzen jarraituko dugu aurrerantzean"**

Bukatzeko, hauxe diote: "Parrokiaren ingurutik Udal Korporazioarekiko akordioak indarrean jarraitzen duen bitartean, parte hartzen jarraituko dugu; baina polemika honekin ez dugu jarraituko, ez baita guztia politikarekin nahastu behar".



TXOMIN MADINA

## Konpostagailuak banatu dituzte

Konposta egiteko ikastaroak erantzuna ona izan zuen herritarren artean. Artelatz enpresako kide Aitziber Sarasolak emandako azalpenak entzun zituzten guztiok. Bukaeran, konpostagailuak banatu zituzten. Mankomuniteak antolatzen dituen ikastaroak herririk herri egiten dihardute. Hilaren 12an egingo dute hurrena Oñatin.

## Ostalaritzan diharduten baina euskaraz ez dakitenendako udako ikastaroak

M.B. | OÑATI

Udal Euskaltegiak udako ikastaroen eskaintza aurkeztu berri du: alde batetik, EGA edo hirugarren mailako titulua lortzeko ikastaroak egingo ditu, uztailaren 2tik 20ra eta irailaren 3tik 7ra (09:00-13:15); eta beste alde batetik, ostalaritzako langileendakoak egingo ditu. Azken horiek uztailaren 2tik 20ra eta irailaren 3tik 21ra izango dira (09:00-11:00). Guztira, 60 ordu. Batez ere, ostalaritzan diharduten baina euskaraz ez dakitenedako deialdia da.

Eskaintzan interesa dutenek Udal Euskaltegian edo 943 78 24 96 telefonoan eman dezakete izena.


Gure Ametsa
Jatetxea

943 71 49 52
Leintz Gatzaga

ezkontzetarako areto handi eta erosoak
aperitiboendako terraza
sukaldaritza zaindu eta paregabea
aurrekontu guztietarako menuak





*... eta udan ere modakutxo bat hartzeko leku paregabea!*



# Hondakinen bilketa derrigortua izatea hobetsi dute

Herritarrekin osatutako kontseiluak dio helburuak lortzeko ezinbestekoa dela

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Hiri hondakinen gainean herritarrekin batera hausnartzeko kontseilua osatu gura izan du Udalak, eta lau saio egin dituzte. 30 bat lagun elkartu dira saio horietan, gehiago gazteak, eta hainbat alderditako ordezkariak ere izan dira.

Josep Castelltort katalanak, 15 urteko eskarmentua duen adituak, gidatu ditu saioak eta Lore Martinez Ingurumen zinegotziak egin die jarraipena. Pozik dago eman dutenarekin: "Aretxabaleta egun zelan dagoen aztertzen hasi ginen eta nora jo behar dugun hausnartu". Kontseiluak eman duen guztia Udalaren webgunean dago edozein herritarren eskura –bideoak eta informazioa.

**Bosgarren edukiontzia**

Zabor batze sistemak aztertu dituzte; tartean, bosgarren edukiontzia izan dute berbagai. Gurean %32 jasotzen da horietan. "Oso gutxi da, %80ra jo behar dugu-eta. Eta kontseiluaren ondorioetako bat izan da borondatez ez direla lortuko helburuak, derrigortuta bakarrik". Ingurumen zinegotziak gaineratu du gaikako zabor batzea behar dela helburuok lortzeko, Aretxabaletan dugun legez. "Eduki badaukagu gaika jasotzeko aukera eta horren alde apustu egindako herritarrek ondo sailkatzen dute, baina asko dira oraindik ez dutenak egiten; eta gainera, ez dute batere kontzientziarik". Horregatik uste du garrantzi handia duela sentsibilizazioak: "Zaborrak arazo dira, arazo potoloa, eta norbera da sortutakoaren erantzule. Hori da ulertarazi behar dena".

Bosgarren edukiontziaren aldeko sinadurak jasotzen dabiltzala ere badaki Martinezek, eta pozik dago: "Oso ondo iruditzen zait hori bultzatu gura izatea; sinatutako guztiek erabiltzen badute ez dago txarto!".

**Zabor batze derrigortua**

Martinez zinegotziak argitu du atez ateko zabor batzearekin esan gura dena: "Gaikako sistema derrigortua da, besterik ez, eta formatu asko daude; adibidez, atarteetan lekua izanez gero bertan jar daitezke edukiontziak".

Baina horrek kezka eragin duela ere badaki, bai kalean, bai kontseiluan elkartutakoen artean: "Aldaketa guztiek eskatzen dute esfortzua eta ulertzekoa da kezka, baina derrigorrez egin behar dugu zerbait ezarritako helburuak ez ditugulako betetzen. Zenbat hobeto bageinitu emaitzak, guztiok kontzientzia izanda... baina ez da hala".

Hala ere, argi utzi gura du abiapuntuan gaudela orain eta herritarrak behar bezala informatuko dituztela: "Komertzioetakoak ere lasai egon daitezela, informazio kanpaina bereziak egingo direlako".

Beste bi kontuk ere eragin dute eztabaida kontseiluan: sortutakoaren arabera ordaintzeak; eta era anonimoan uztea hondakinak edo identifikatuta. "Identifikatu barik jasoz gero borondatez egitea bezalaxe da, hortaz, ez dugu aurreratuko. Sortutakoaren arabera ordaintzea ostera, hobeto aztertu behar da", dio.

**Ondorioak**

Hainbat ondorio jaso ditu kontseiluak bukaerako txostenean; garrantzitsuenak azaldu ditu Martinezek "Sistema guztiek dauzkate aldekoak eta kontrakoak, baina argi ikusi da jatorrian banatzea eta derrigortasuna oso garrantzitsuak direla. Eta horren inguruan sortutako liskarrak ez duela lagunduko uste dute elkartutako batzuek". Eta gaineratu du: "Bosgarren edukiontziak badu zentzua hasierako faserako, kontzientzia hartzeko, sailkatzen hasteko, baina guztiok egin ezean beste zerbait behar da". Era berean, kontzientziazioa eta heziketa derrigorrezkoak direla ikusi dute: "Zenbat eta informazio eta formazio gehiago jaso, orduan eta kontzienteago gara".



Eguaztenean egindako autokonpost ikastaroan izandakoak. | M.A.

## Autokonposta bultzatu guran

Norberak etxean konposta zelan egin eta horretarako edukiontzia jasotzeko bilera egin zuten eguaztenean gurean. 20 lagun pasatxo elkartu ziren eta autokonpostaren gaineko argibide guztiak jaso zituzten, Mankomunitateak antolatuta.

"Oso garrantzitsua da norberak konposta egitea, lortutako ongarria zaborraren ziklotik ateratzen dugulako; birziklatu egiten dugu eta ekonomikoki onuragarria da, gasturik ez duelako sortzen –garraiatu eta tratatu beharrik ez–", argitu du Martinezek. Eta gaineratu du atarteetako komunitateek konposta egitea ere badagoela: "Horiek, gainera, hobaria izango dute". Autokonpostaren gaineko informazioa gura duenak dei dezala (943 79 33 99), edo mezu bat bidali: *debagoiena@debagoiena.net.*

## Erretiratuen hausnarketa

Basotxoko erretiratuek euren aldetik ere eztabaidatu dute hondakinen gainean. Eta esandakoen artean daude: bosgarren edukiontzia bultzatu beharra; zaborrak ez sortzearen garrantzia; atez ateko zabor batzeak eragindako kezkak: kostua, ordutegia, garbitasuna, denda eta elkarteetako funtzionamendua; Udalak herritarrei iritzia eskatzea... Eta herritarrak kontzientzia hartzearen eta txikitatik hezi beharraren garrantzia azpimarratu dute.

# Aratzeko igerilariek "geroago eta maila hobea" erakusten dute

Zazpi domina ekarri dituzte Donostian jokatutako Euskadiko txapelketatik

**UBANE MADERA** | ARETXABALETA

"Dena eman zuten gure igerilariek". Hala laburtu du Luis Mari Arejolaleibak, Aratz elkarteko laguntzaileak elkarteko kirolariek Donostian egindako lana. Azken urteotan legez, adimen ezintasuna dutenen arteko Euskadiko igeriketa txapelketan lehiatu ziren Altzako kiroldegian, Aratz elkarteko hiru igerilari.

Eta emaitza ikusita, ondo asko laburtu du Arejolaleibak haien ahalegina: zazpi domina ekarri dituzte Aratzekoek. Crawl modalitatean 25 metroko lasterketan, sei talde lehiatu ziren eta urrea eskuratu zuen Juan Karlos Barquerok eta brontzezko domina bana Alex Elortondok eta Iker Arejolaleibak.

Bular igeriketan, 25 metroko lasterketan beste sei talde lehiatu ziren eta Barquerok irabazi zuen urrea, zilarra Alex Elortondok eta brontzea Iker Arejolaleibak. Eta txandakako proban, 15 talderekin lehiatu ostean, brontzezko domina eskuratu zuten Aratzeko igerilariek.

Lehiaketaren ostean, emaitzak ospatzeko Andoaingo sagardotegi batean bazkaldu zuten igerilariek eta haiei laguntzen eta animatzen jardun zuen taldeak.

Orain, ekainaren 27ra arte entrenatuko dute igerilariek, datorren denboraldiari begira. Besteak beste, Atzegi aztertzen dabil kirol probak gure ibarrean ere antolatzea, eta haietan parte hartu gura dute Aratzekoek.



Iker Arexolaleiba, Alex Elortondo eta Juan Karlos Barquero. | ATZEGI

### Eva de las Eras adituak haur etxeen gainean jardungo du, Kuku Miku elkarteak gonbidatuta

Martitzenean, hilak 12, haur etxeen gaineko berbaldia eskainiko du Eva de las Eras adituak Arkupeko bigarren solairuko aretoan (18:00). Sortu berri den Kuku Miku elkarteak antolatu du, eta haur etxeak zer diren jakinaraztera dator De las Eras: "Haurrak zaintzeko zerbitzu berria da, hiru edo lau haurrekin osatutako talde txikiak; familia habia baten barruan konfiantzazko zainketa da babesean, maitasunez eta segurtasunez".

### Gazteria Zerbitzuak antolatutako Udaero egitasmoa gertu dago uztaileko egunak girotzeko

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteria zerbitzuek gertu daukate gaztelekuetako uztaileko programa, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeendako. Uztailaren 4an hasi eta 20ra bitartean ekintza mordoa egiteko aukera eskainiko dute: Landara eta Zuhaitzeta abentura parkera irteerak; Zarautzera surf egitera; kontzertuak... Izena emateko Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteria zerbitzuetara eta gaztelekuetara jo daiteke; azken eguna ekainaren 30a da.

### Andramaixa jaiak ondo pasatzera gonbidatuz esaldi lehiaketa deitu du Prebentzio Zerbitzuak

Andramaixetako esaldi lehiaketa deitu du Udalak: jaiak ondo pasatzera gonbidatuz, neurri onean pasatzera animatuz... 12 urtetik gorakoek har dezakete parte, eta gura beste esaldi aurkeztu; udaletxera edo Arkupera eraman behar dira ekainaren 29rako. 120 euro jasoko ditu egitarauan erabiliko den esaldiaren egileak eta 60 euro pegatinetan erabiliko direnen egileek.



Imanol Etxeberria harakina Puy Cambrari saria ematen. | JESUS MARI HERRASTI

## Portasolgo jaiak antolatu ahal izateko zozketak egiten dabiltza azken asteotan

**M.A.** | ARETXABALETA

Portasolgo jaiak antolatzeko asmoa dute Loramendi kale inguruko merkatariek eta ostalaritzako kideek. Hamar bat urtean ospatu barik egon ostean, iaz berreskuratu zituzten jaiak, eta baita dotoreak egin ere. Aurten ere jarraipena izatea gura dute, eta uztailaren 20tik 22ra bitartean ospatu.

Antolatzaileen esanetan, lan handia eskatzen dute jaiok, eta, gainera, diru asko behar da: "Pentsatuta daukagun guztia antolatzeko oraindik diru asko behar dugu baina hori lortu guran gabiltza".

Hori horrela, zozketak egiten dabiltza azken asteotan. Maiatzaren 25ean egindakoan Brasileña kafetegian erositako txartelaren jabeak telebista ederra jaso zuen saritzat, Marin auzoan (Eskoriatza) bizi den Puy Cambrak, hain zuzen. Sari ederrak banatzeko gertu, beste zozketa batzuk ere abian dituzte.



PAUSOKA

## Errepideko segurtasuna ikasgai

**Pausoka haur eskolako umeek garraioak dituzte gustuko: autoak, kamioiak... Hala, errepideko segurtasuna lantzen dabiltza asteotan, eta auto erraldoia egin dute. "Udaltzaingoaren ezinbesteko laguntza izan dugu gaiarekin; horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu bai bertara etorri ziren udaltzainei, bai udaletxean arreta eskaini zigutenei".**

### ATXABALTA LEHIAKETA

**Hartu parte eta irabazi hainbat sari !**

Loramendi

**25.** Ezaguna den Murube izeneko zezen hazkuntzarako enpresak (ganadutegia) Aretxabaletako baserri batean du jatorria. Zein baserritan eta ze auzotan dago?

**26.** Zein ez da sinonimoa?
a) aitzen emon b) jakinarazi c) jakin d) abixau

**Erantzunak eta zure datuak** (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

25:______________________ 26:_____
Izen-abizenak:__________________ Tel.: _________
**Azken eguna: ekainaren 15a.**

**Aurreko galderen erantzunak:**
**23: c)** Pilatutako urak ekartzen duen lohia oso ona da orturako.
**22:** Kexatu.

# VII. mendi martxa etzi, domekan, bi ibilbiderekin

## Ibilbide motzak 29 kilometro ditu eta luzeak, 36; izena egunean bertan eman daiteke, Murrukixon

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Murrukixo Mendizale Elkarteak bi urtean behin antolatzen duen mendi martxa egingo du domekan, hilak 10. Berrikuntzarekin dator, gainera, bi ibilbide gertatu dituzte-eta: motza, 29 kilometrokoa eta luzea, 36 kilometrokoa. Izena egunean bertan eman ahal izango dute mendizaleek hasi aurretik (10 euro ordainduta) edo bestela mezu bat bidalita helbide elektroniko bidez: *murrukixo@euskalerria.org*.



Mendizaleak maldan gora orain dela bi urteko martxan. | FELIS BELTRAN DE HEREDIA

### Bide ezezagunak ezagutzeko

Aurten lehenengoz Murrukixoren egoitzan izango du irteera ibilaldiak (07:00), Durana kaleko 13. zenbakian eta bukatu ere bertan egingo da. Handik Urkulu aldera egingo dute eta gero Urrexolara. Bide motza hartzen duenak Ugastegira egingo du eta luzetik doana Aitzulora jaitsiko da. Santikurtz ermitan (Ugastegi) elkartuko dira guztiak eta lehenengo mokadutxoa izango dute han.

Ibilbide motzetik doazenek Andarto ostetik bueltan Deguriara joko dute, eta luzea hautatutakoak Usakoetxeraino joan eta Aumategitik bueltan iritsiko dira Deguriara. Mugarriluzetik Leixargarateko aterpetxera joko dute guztiek eta han bigarren mokadutxoa hartu. Azkenik Kurtzebarritik behera Mendiolatik bueltan Aretxabaletara iritsiko dira. "Erabiltzen ez diren hainbat bide egokitu ditugu, jendeak ezagutu eta erabil ditzan; ibilaldi benetan polita izango da", jakinarazi du Iñaki San Migel Murrukixoko arduradunak.

Bide guztiak behar bezala seinaleztatuta egongo dira eta horretarako 30 bat lagun dabiltza egunotan lanean. Gogortasunari dagokionez ez duela apartekorik jakinarazi du San Migelek: "Domeka guztietan mendian hiru edo lau orduko ibilaldiak egitera ohituta dagoenak ez du izango arazorik. Izan ere, aldapen ostean lautadak daude atseden hartzeko eta ez dago gora-behera handiegirik". Hala ere, edozer gertatuta, erizainak egongo direla ibilbide guztian iragarri du.

### Helmuga 11:00etan zabalik

Durana kaleko helmuga 11:00etan zabalduko dute eta martxa bukatzen duten guztiei diploma banatuko diete gero. Gainera, parte-hartzaile guztien artean mendiko materiala zozketatuko dute.

Orain dela bi urte 180 bat lagunek hartu zuten parte eguraldi eskasa egin arren; aurten, ostera, gehiago espero dituzte eta 300 bat lagunendako daukate gertatuta jatekoa eta edatekoa.

### OHARRAK

**ELVI SABELIZTUNA**
Elvi sabeliztun ezagunak *Nire maletatxoa* ikuskizuna eskainiko die neska-mutikoei etzi, domeka, Arkupeko Zaraia aretoan. Sarrera 2 euro da.

**ODOL ATERATZEA**
Udaberriko azken odol ateratzea egingo dute Arabako Odol Bankuko kideek astelehenean, hilak 11, osasun etxean (14:30-20:00).

**PIRRITX ETA PORROTX**
Pirritx eta Porrotx pailazoek eta haien lagunek *Zazpikoloroa* ikuskizuna eskainiko diete neska-mutikoei eguaztenean, hilak 13, Herriko Plazan (18:00). Debalde da.

**KURTZEBARRIKOEN ANTZERKIA**
Kurtzebarriko eskolaz kanpoko antzerki eskolako kideek *Bildurra Hiruatxen* lana eskainiko dute eguenean, hilak 14. Bi saio izango dira: 17:00etan eta 18:00etan. Sarrera: helduek 3 euro eta umeek 2 euro.

## Kurtzebarri eskolako jaia dantzarekin eta ezustekoekin dator bihar

**M.A.** | ARETXABALETA

Ekainarekin batera dator Kurtzebarri eskolako kideen ikasturte bukaerako jaia. Eta bihar, zapatua, herri guztia girotzera datoz egun osoko jaialdiarekin.

Etxafuegoek eta txalaparta doinuek emango dute jaiaren berri (11:00), eta 5. eta 6. mailetako ikasleak patata-tortilla gertatzen hasiko dira orduan. Herriko Plazan kalejira egingo dute Irabalarri plazaraino hankapalu eta trikitilariekin (11:15); *Zazpi jauzi* dantzatuko dute bertan, eta eguneko lehen ezustekoa izango da. Iralabarritik Gernika plazara joko dute gero (11:45), eta *Txulalai* dantzatu; bigarren ezustekoa ere han izango da: kalejiran bueltatuko dira (12:15) trikitilariekin batera Herriko Plazaraino eta *Bihotzez ikasi* dantzatuko dute bukatzeko.

Dantzen ostean mokadutxoa eskainiko diete Gurabarri gураso elkarteko kideek (12:30) eta *Eguzkiari agurra* ikuskizuna izango dute gero (13:00). Bazkaltzera joango dira handik Iturrigorri pilotalekura (14:00) Trikikupelarekin. Eta bazkalostean gaztelu puzgarriak izango dituzte txikiek eskolako pistan (15:00). Eguna girotzen jarraitu eta jaia bukatu bitartean erromeria izango da Dantzadi taldearekin.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

# Atez ateko sistema bilketa onartu du osokoak, gehiengo osoarekin

## Bilduko Iregik, EAJko Urrutiak eta PSE-EEko Canterok kontra bozkatu dute

**OIHANA ELORTZA** | ESKORIATZA

Hiri hondakinen kudeaketari buruzko mozioa aurkeztu zuen Bilduk astelehenean egin zuten osoko bilkuran, eta horrek hartu zituen minutu gehien. Mozioarekin, atez ateko sistema proposatu zuen Bilduk, eta udalbatzak onartu egin zuen, aldeko zazpi botorekin eta kontrako hirurekin.

Atez ateko sistemaren alde bozkatu zuten Biduko bost zinegotzik eta Elizateetako Iker Akizuk eta Iñaki Madinabeitiak. Kontra, berriz, Bilduko Arantza Iregik, EAJko Aitor Urrutiak eta PSE-EEko Jose Luis Canterok. Ezker Anitzako Juan Luis Merino ez zen osokoan egon.



Astelehenean egin zuten osoko bilkura. | OIHANA ELORTZA

**Arrazoirik ez**

"Eskoriatzan ere atez ateko sistema jartzea proposatu dugu mozioan, momentuan dagoen sistemarik onena delako", aitortu zuen Beñat Herce alkateak osokoaren ostean.

EAJk eta PSE-EEk, berriz, adierazi zuten ez zutela ulertzen zergatik aurkeztu zuten sistema mozio bidez, dagoeneko erabakia hartuta baldin badago. Jose Luis Cantero zinegotzi sozialistaren ustez, aspalditik zegoen hartuta erabakia, "aurreko legealditik". Eta Aitor Urrutia zinegotzi jeltzaleak esan zuen Bilduko 34 alkatek elkarrekin egin zuten adierazpen hartatik zegoela hartuta. Gaineratu zuen sistema bera ez dela txarra hasieran, lehen fasean: "Akatsa bukaeran du, intzineradorearen tokian zein sistema jarriko duen ez duelako zehazten". Bilduko Arantza Iregik ere ezezko botoa eman zuen, baina ez zuen erabaki horren arrazoirik eman. GOIENA saiatu da harekin harremanetan jartzen, baina ez du adierazpenik egin gura izan.

Elizateetako zinegotziek atez ateko aukeraren alde bozkatu zuten. "Normalean abstenitu egiten gara puntu politikoetan, baina nahiz eta desadostasunak izan ditugun, alde gaude, uste dugulako herritar guztion onerako izango delako", zehaztu zuen Madinabeitiak.

Alkateak esan bezala, atez ateko sistema 2013ko irailean jartzea dute aurreikusita.

### Leire Urtzelaik kargua utzi du

Leire Urtzelai Bilduko zinegotziak uko egin dio bere karguari, arrazoi pertsonalengatik. Orain arte egindako lana eskertzeko, bi orkidea zuri eta koloretako haize-errotatxo bat oparitu zionUdal Gobernuak asteleheneko osokoan.

Igor Ezpeletak ordezkatuko du Urtzelai. Dokumentazioa Hauteskunde batzordera bidali dute, baina haren erantzunaren zain egon behar du osoko bilkuretan parte hartzeko.



Leire Urtzelai. | O.E.

### ESANAK

**"Momentuan dagoen sistemarik onena dela iruditzen zaigu"**
BEÑAT HERCE | ALKATEA

**"Desadostasunak izan ditugu, baina denon onerako izango delakoan gaude"**
IÑAKI MADINABEITIA | ELIZATEAK

**"Atez ateko sistema ona da hasieran, lehen fasean; akatsa bukaeran du"**
AITOR URRUTIA | EAJ

**"Aspaldi, aurreko legealdian hartutako erabakia da eta orain iritsi da"**
JOSE LUIS CANTERO | PSE-EE

### Luis Ezeiza herri eskolak urteko jaia egingo du bihar

Ikasleen dantzak, jolasak, umeen bazkaria, musika... antolatu dituzte biharko, Luis Ezeiza herri eskolak egingo duen urteko jairako. Goizeko hamaiketan hasiko dira prestatu dituzten ekitaldiak Herriko Plazan, eta egun osoan iraungo dute, iluntzeko zortziak arte.

### Kirola eta parranda Eskoriatza Kirol Elkartearen festan

Eskoriatza Kirol Elkartearen jaia egingo dute bihar, zapatua. Saskibaloi partiduak, areto futbola, motor kontzentrazioa, herri bazkaria, musika, parrillada... eta II. Gabaz Takarraran gaueko mendi martxa (informazioa kiroletako orrietan) antolatu dituzte, besteak beste.







JAIONE CARPINTERO

### Ingurumena zaintzeko balioa, jolasen bitartez

Jolas eginez ospatu zuten Eskoriatzako umeek martitzeneko Ingurumen Eguna. Tortolis ludotekarekin batera, 3 eta 11 urte arteko umeendako makina bat jolas antolatu zuen Udalak Herriko Plazan. "Ludotekako kanpo ekintzaren barruan egin ditugu, talde jolasak izan dira eta guztiek ingurumena zaintzeko balioak dituzte", azaldu zuen Maider Etxanizek, Gazte teknikariak.



Gaztetxoek primeran pasatzen dute Ondarreko plazan jartzen dituzten igerilekuekin. | BEÑAR KORTABARRIA

# Kortabarria: "Pixkanaka indarra hartu dute jaiek"

Zapatu arratsaldean zazpi igerileku jarriko dituze Ondarre plazan

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Udaberriko jaien denboraldiari hasiera emango diete aste bukaeran Ondarreko jaiek. Ekintza ugari antolatu dituzte eta dena prest dute auzotarrek jaiei ongietorria egiteko. Beñar Kortabarria auzotarrak eta jaien antolatzaileak azaldu digunez, jaien denboraldiari hasiera emateko desiratzen daude herritarrak. "Antzuolan lehenak dira; tokatu izan dira Kalebarren edo Uzarragakoekin betera. Herritarrak desiratzen egoten dira, dantzarako gogoa izaten dute-eta askok sasoi honetan". Ondarreko auzotarren borondateari esker, pixkanaka herrian indarra hartzen joan diren jai bilakatu direla nabarmendu digu Kortabarriak. "Mutikoa nintzela ospatzen ziren eta gure amak ere gogoratzen du nola lehen gure taberna aurrean agertoki batean dantzak eta musikariak izaten zirela. Gero etenaldia izan zuten arren, orain berriro indartu dira". "Bi ekintza dira aipagarrienak Ondarreko jaietan: batetik, zapatu arratsaldean umeei begira jarriko ditugu igerilekuak eta gaueko afaria eta erromeria; bestetik, domeka eguerdiko Corpuseko prozesioa".

**Igerilekuen arrakasta**

Herriko ume guztiak batzen dira zapatu arratsaldean jartzen dituzten igerilekuekin disfrutatzeko. Iaz, 100 ogitarteko inguru banatu zituzten auzotarrek. Aurten zazpi igerileku jarriko dituztela azaldu digu Kortabarriak. "Eguraldiak laguntzen badu, bete egiten da auzoa eta giro ezin hobea izaten da". Gauean auzo-afaria egingo dute eta 50 auzotar batuko dira. Ondoren, erromerian dantza egin nahi duten guztiak daude gonbidatuta; auzotarrek kafea banatuko diete.

**ESANAK**

**"Erromerian dantzatzera gonbidatuta daude guztiak"**

BEÑAR KORTABARRIA | AUZOTARRA

**ONDARREKO JAI EGITARAUA**

**ZAPATUA, 9**

**12:00** Jinkana, Peña Aiastuik antolatutako challengearen barruan.

**16:30** Igerilekuak edo jolasak, eguraldiaren arabera.

**18:00** Krosa.

**18:15** Zurrumurru taldearen *Arkakusoaren zirkoa* lana.

**21:00** Auzo-afaria.

**22:00** Erromeria. Auzora etortzen diren guztientzako kafea osagarri guztiekin.

**DOMEKA 10**

**10:00** Diana txistulariekin.

**Eguerdian** Prozesioa.

**12:30** Dantzarien saioa.

**13:00** Salda eta txorizoa, eta jaiei bukaera.

# Antzuolarrak ere Mosaiko Erraldoira joango dira

**M. A.** | ANTZUOLA

Errauskailuaren aurka Donostian Mosaiko Erraldoia egingo dute hilaren 17an, 12:30ean. Mosaiko hori osatzeko kartulinak hartzeko aukera dago Antzuolan, baita autobusez joateko izena emateko ere. Parte hartu nahi duenak aurrez eman beharra dauka izena.

Hala, antzuolarrez osatutako lantaldeak gaurtik domekara bitartean mahaia jarriko du ekimenean parte hartu eta autobuserako izena eman nahi dutenendako:

Gaur, 19:00etatik 20:30era Zurrategi plazan jarriko dute mahaia. Bihar, zapatua, 12:30etik 14:00etara Zurrategi plazan izango da lantaldea. Eta domekan, Ondarreko jaiak direla aprobetxatuta, han ere mahaia jarriko dute izena eman dezaten herritarrek. Eta nahi dutenek e-postaz ere egin dezakete, hona idatzita: *antzuolatikmosaikoa@gmail.com*.

**Dokumentala**

Ekainaren 12an, 19:00etan, Olarango aretoan *Errausketari ateak ixten* dokumentala ikusi ahal izango da. Dokumental hori Oñati Zero Zabor taldeko kideek egin berri dute. Hain zuzen ere, egileetako bat izango da Antzuolan, dokumentalaren ondoren herritarren galderei erantzuteko. Ekitaldi horretan ere mahaia jarriko dute herritarrek Mosaiko Erraldoira joateko izena eman dezaten. Dokumentalean, hondakinen arazoa jorratzen dute. Horrela, garai bateko hondakinen kudeaketa, Europan dauden ereduak, hondakinak tratatzeko dauden hierarkiak, balorazio energetikoa, errauste plantak beharko lukeen zabortegia, errauste plantak osasunean eta ingurumenean duen eragina, zementuaren sektorearen indarra, atez ateko bilketaren ezaugarriak eta beste hainbat lantzen dituela adierazi dute egileek.

## 'Ez dut moztuko bizarra' eguneko bazkarirako txartelak

Hilaren 10era arte, domekara arte, duzue *Ez dut moztuko bizarra* egunerako antolatutako bazkarirako txartelak erosteko aukera. Txartelak ondorengo tabernetan dituzte eskuragai 17 euroren truke: Larrea, Arin, Surpe eta Moxen. Musika eta jokoak ere izango dira eguna borobiltzeko.

## Arrola mendi taldeak domeka goizean egingo du irteera

Arrola mendi taldeak udaberriko lehenengo irteera ekainaren 10erako antolatu du (oraingo domeka). Eta ibilaldia honako hauxe izango da: Udanatik Arrolara eta handik Antzuolara bueltan. Eguerdirako Antzuolan izatea da asmoa. Jarritako irteera ordua: 08:30ean, Sagastin.

## OHARRAK

**PILOTA**

Antzuolako pilota txapelketako finalak gaur, egubakoitza, 18:00etan hasiko dira. Benjamin, alebin B eta alebin A mailen arteko txapelketa da.

**GIMNASIA ERAKUSTALDIA**

Gimnasia erritmiko erakustaldia egingo dute Antzuolako eta Bergarako Ariznoa taldeko gimnasta gaztetxoek. Eguaztenean izango da, 15:30ean, pilotalekuan.

**TRIKITI KONTZERTUA**

Edurne Iturberen trikiti ikasleen kontzertua hilaren 13an, 19.00etan, Torresoroan.

**DIRULAGUNTZAK**

Gizarte zerbitzuetan garatzen dituzten gobernuz kanpoko erakunde eta elkarteendako dirulaguntzak egiteko eskaria uztailaren 4ra arte egin daiteke Bideberri mankomunitatean.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Zabalo
IGELTSEROTZA
Ibon Zabalo
Iban Iraeta
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
Mugikorrak:
615 76 56 50 / 615 76 56 51
zabalosl@hotmail.com
ZAHAR BERRITZEAK:
Birgaitzeak
Fatxadak
Teilatuak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



Lip dubaren amaiera, udaletxeko balkoitik plazara. | JOKIN BEREZIARTUA

# Elkarbizitzaren aldeko lip duba grabatu dute eskolakoek

Urtz taldearen 'Kaixo!' erabili dute, gizartean galtzen doan agurtzeko ohitura berreskuratzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

San Martin eskolako 140 ikasle eta irakasleak lip dub bat grabatzen aritu dira asteon. Santa Kurtz abadearen plazako iturrian hasi eta Herriko plazara arte, denetariko mozorroez jantzitako haurrek agurra irudikatzen zuen eskua pasatzen aritu ziren, bata besteari. Gela eta irakasle guztiak plazan batuz amaitu zuten, udaletxeko balkoitik grabatuz. Astelehenean, martitzenean eta atzo egin zituzten grabaketak, goizeko hamarrak aldera. Udaleko ordezkariek ere hartu dute parte, Ramon Ajuria alkatea barne. Martitzeneko grabaketak bertatik bertara jarraitzeko aukera izan genuen eta "ondo" joan zirela uste du zuzendari lanetan aritu den Iagoba Domingo arrasatearrak: "Dibertigarria izan da, ikasleek jarrera ona erakutsi dute-eta. Oso motibatuta ikusi ditut".



Ikasle talde bat grabaketarako gertu, hiltegi zaharreko eskaileretan. | J.B.

**Haurrak, txintxo-txintxo**

Nekane Arrondo eskolako zuzendariak azaldu digu ekimenaren jatorria: "Urtero ikasleekin batera elkarbizitza ekintzaren barruan zerrenda bat prestatzen dugu eta eurek proposatu ziguten lip dub bat egitea. Ikasturte amaieran egiteko utzi dugu, eguraldi ona egiten duela aprobetxatuta". Haurrak gustura ikusi genituen eta txintxo-txintxo jarraitu zituzten irakasleen zein lip dubeko zuzendariaren jarraibideak. Helburua gure gizartean galtzen doan agurtzeko ohiturari eustea da, Arrondoren arabera: "Elkarbizitza ekintzak dira eta beraz, gure arteko giroa hobetzea dute helburu. Oraingoan agurren inguruan kokatu dugu gaia, gero eta gutxiago agurtzen garelako. Gure artean agurtzea garrantzitsua dela uste dugu, agurtua izateak ondo etorria zarela sentiarazten zaitu-eta".

Helburu horretarako ezin aproposagoa den Urtz taldearen *Kaixo!* abestia aukeratu eta moldatu dute. Lip duba ikasturte amaierarako gertu egongo da.

NIRE USTEZ



XABIER IGOA

## Kaixo!; Kaixo!; Zelan?

San Martin eskolako haurrek eta irakasleek ikasturte amaierarako gertu egotea espero duten lip duba grabatu dute asteon, elkarbizitza programaren barruan, galtzen doan agurtzeko ohitura berreskuratze aldera.

Ene! Barkatu! Kaixo, denoi, lehendabizi! Nik ere ez dut ohitura galdu nahi. Zer moduz? Errespetuaren adierazle garbiena da agurtze edo eskertzea bera ere. Horrek ez du esan nahi ingelesen moduan jokatu behar dugunik, behin eta berriz errepikatuz.

Baina, sobera nabaritzen dudanean idatziko dut berriz ere txoko honetan. Ekintza sinple honek ez dut uste esfortzu handiegirik suposatzen duenik eta ziur irribarre bat baino gehiago ateratzeko gai garela, beraz, saiatu gaitezen "Kaixo!", "Egun on!", "Mila esker" eta antzerakoak erabiltzen.

Lip dubean erabili behar duten Urtz-en abesti originala pixka bat moldatu dute ikasle eta irakasleek, hala kanta dezaten: *Irribarre bat egin nahiko nuke /eskolan edozein egunez /irriparre bat egin nahiko nuke / zuk be beste bat eginez. /Maitemindurik nago eta /zu oraindik ez zara konturatu; /eta "kaixo!" bat esateko /zure denbora ere hartu. /Zu hor zabiltza hizketan /ni hemen urrun ez dakidalako ... /norbaitek erakutsiko balit!/Kaixo! Kaixo! Zelan? Ondo, ta zu?...*

Kanta dezagun denok! Ondo izan eta mila esker!

**"Errespetuaren adierazle garbiena da agurtzea edo eskertzea bera"**

## Vignemalera irteera, Orixol elkartearen eskutik

**J.B.** | ARAMAIO

Orixol mendizale elkarteak irteera berezi bat antolatu du datorren aste bukaerarako: Frantziako Piriniotako Vignemale mendi mitikoa igoko dute hilaren 17an. 3.298 metro ditu eta Frantziako Piriniotako gailurrik altuena da. 20 bat lagunendako lekua dago aterpetxean eta antolatzaileen arabera, dagoeneko 15 lagun daude apuntatuta. Beraz, izena eman gura duenak ahalik eta azkarren egin beharko du Añai tabernara, bertan dagoen zerrendan izena emateko. Domeka, hilak 10, da azken eguna. Zapatuan, hilak 16, 06:30ean egin dute hitzordua autobus geltokian eta gomendatu dute etxean kranpoiak eta pioletak dituztenek badaezpada eraman ditzatela.



Udaletxe ondoan dago erlojua, anonimo batek berritu ostean. | JOKIN BEREZIARTUA

## 1868ko erlikia historikoa, herritar guztien begietara

1981a ezkero hiltegi zaharrean gordeta egon den erlojua berritu eta Herriko plazan jarri dute ikusgai

**J.B.** | ARAMAIO

Udalak erlikia historiko jarri du ikusgai herritar guztiendako, udaletxe ondoan. Guztion begietara dagoen erloju-makinaria hori 1868an jarri zen martxan lehenengoz eta 1981ean udaletxeko obra egin zenean kendu eta gaur egun dagoen erloju elektronikoa jarri zuten.

Urte horietan makinaria gordeta egon da hiltegi zaharrean, eta zaharberritze lanen ostean anonimotasunean egon gura duen herritar batek makinaria berritu du, halako lanak egitea zaletasuna duelako.

**4.300 errealeko erlojua**

1868an jarri zen martxan erlojua. Izan ere, udaletxea ordulari barik egin zuten, herriko erlojua Sastiñako dorrean zegoelako. 1822an, Ibarrako eliza egin zenean, diruz gaizki zebiltzalako dorrea bota zuten hango *materiala* eliza berrian aprobetxatzeko. Orduan egin zen udaletxe gaineko dorretxoa, erlojuarendako.

Erlojua Don Francisco Paula de Abaituak diseinatu zuen eta lan horregatik 4.300 erreal kobratu zuen. Diru asko izan zen garai hartarako; udaletxeak ordaindu zuen osorik eta orduko kontratuan jasotzen denez, lau urte behar izan zuten ordainketa egiteko. Kontratu horretan jasotzen dira, era berean, erlojuaren ezaugarriak eta egileari egiten zaizkion eskaerak: "*Erloju berriak bere makinarian jaso beharko ditu ordu erdiak eta ordu osoen errepikapenak* [...]. *Zazpi edo zortzi egunetarako soka izan beharko du, pisuak jasotzea ahalbidetuko duten gurpil errazekin*".

## Bergarako Belceblues taldearen kontzertua gaur Sastiñan (19:30)

Txirritola euskara elkarteak antolatuta, Bergarako Belceblues taldeak kontzertua eskainiko du gaur Sastiñan, 19:30ean hasita. Eguraldiak aukeratuko du kontzertua ermita barruan edo kanpoan egin. Blues eta rock doinuak jorratzen dituen hirukoteak *Diabulus in Musika* disko berria aurkeztuko du.

ELGETA

# Jaien batzordeak prest dauka Ferixa Nagusiko egitaraua

## Egunotan ipiniko dituzte salgai jaietako errifak eta bazkarietako txartelak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Hiru aste eskas gelditzen dira 2012ko Ferixa Nagusiko jaietarako. Jaien batzordeak gertu du egitaraua. Egoera ekonomikoak eraginda aldaketa txiki batzuk egongo dira, baina orokorrean batzordeak mantendu egin ditu hitzordu gehienak.

Jaiak ekainaren 28an, eguena, hasiko dira. Kanpai hotsa, etxafleruak eta mozorro jaitsiera izango ditugu 19:30ean hasita. Jaietako batzordeak Mozorro egunerako aurten aukeratutako gaia 'Marrazki bizidunak' da. Gai zabala da nork bere gustuko mozorroa prestatzeko. Jaietako lehenengo egun honetan Jainaga eta Narbaiza trikitilariek girotuko dute gaua, eta afaria gaztetxean egingo da; TrikiKupela afaria izango da aurten.


Jaietarako dirua ateratzeko 25 kilo saiheski erre zituzten zapatuan. | L.Z.

Barikua, hilak 29, Umeen eta Erretiratuen eguna izango da. Erretiratuen bazkarirako txartela 10 euro da, eta Ugari dendan zein Goikoetxea harategian salduko dituzte. Umeen bazkarirako txartelak, berriz, Julianen kioskoan egongo dira salgai astelehenetik aurrera. Haur eta gurasoendako erromeria egongo da aurten, eta Jon Urbietak egingo du. Gaueko dantzaldia, berriz, Oihan Vega DJ-ak egingo du.

### Herri eguna Egan taldearekin

Bere hitzordu guztiekin dator aurten zapatuko Herri eguna; esna deia, koadrilen hamaiketakoa, asto karrera, jaioberriei harrera, paella erraldoia —txartelak astelehenetik Julianen kioskoan salgai—, zezenak, bolo txapelketa eta suzko zezena. Egan taldeak girotuko du Herri eguna. Iazko arrakasta ikusirik arratsaldeko lehen ordutik ariko da Xabier Saldiasen taldea aurten. 16:30ean hasiko dute emanaldia, eta gaueko ordu txikiak arte ariko dira plazan. Intxortako Lehoiek, bestalde, sardinak erreko dituzte 20:30ak bueltan.

### Ferixa Nagusia

Domekan, uztailak 1, 25 idi pare izango dira azokan eta makina salmenta postu. Jaiei amaiera emateko Arantxa eta Pantxoren rantxerak izango ditugu Herriko plazan, baita gaztetxekoek egindako txitxiburduntzia ere.

### Zabalik dago ekainaren 15era arte uztaileko udaleku irekietan izena emateko epea

Uztailaren 2tik 27ra egingo ditu aurten Udalak uztaileko udalekuak, 09:00etatik 13:00etara. Haur eta Lehen Hezkuntzako umeei zuzendutako zerbitzua da. Hil osorako kuota, aurten ere, 90 euro da; hiru asterako 70 euro, bi asterako 55 euro; eta astebeterako 30 euro. Interesatuek Kutxan ordainketa egin, eta agiria udaletxera eraman behar dute. Hobariak udaletxean kontsultatu.

### Gaztetxeak ekainaren 16an, zapatua, egingo du Umeen Eguna; izen-emateak ekainaren 14ra arte

Bergarako jaiak zirela-era atzeratutako Umeen Eguna ekainaren 16an, zapatua, egingo dute, azkenean. Gaztetxeak antolatzen du, eta egun osoko egitaraua prestatu dute: 10:00etatik 18:00etara. Jolasak, lagunarteko bazkaria... 3-12 urte bitarteko umeei zuzendutako ekintza da, eta prezioa bost euro da. Interesatuek Udal Liburutegian eman behar dute izena, eta azken eguna ekainaren 14a da.


L.Z.

## Konpost ikastaro jendetsua

40 bat lagunek jaso zuten astelehenean Debagoieneko Mankomunitateak autokonpostaren inguruan Elgetan egindako ikastaroa. 15 lagun zeuden izena emanda, baina gehiago animatu ziren, azkenean. Ekitaldian, Oxel Erostarbe alkateak aurretik etxean konposta egiten diharduten elgetarrei udaletxera deitzeko eskatu zien; zenbat eta nortzuk diren jakin gura du Udalak.

# Domekan ordainduko dute urteko kuota erretiratuek


Erretiratuak eguazteneko hitzaldian. | L.Z.

**L.Z.** | ELGETA

Hogei bat erretiratu elkartu ziren eguaztenean Kutxak antolatuta Olatz Arroita psikologoak egindako *Bizitza autonomorako trebetasunak* hitzaldian. Eta hurrengo egunotarako ere deialdi bereziak egin dizkiete erretiratuei. Elkarteko arduradunek domekan, hilak 10, kobratuko dute urteko kuota: 10 euro. Ozkarbi elkartean egongo dira, 11:00etatik 13:00etara. Egun berean, elkarteak ekainaren 20rako Errioxara antolatu duen irteeran izena emateko aukera egongo da. Plana da Quel herrian olioa eta belarren likorea zelan egiten den ikustea, eta Azagran bazkaltzea. Prezioa 28 euro da. Izen-emateak ekainaren 10ean, 11n eta 12an egin daitezke Ozkarbi elkartean, 11:00etatik 12:00etara.

## OHARRAK

**MENDI IRTEERA DOMEKAN**

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta irteera Aralarko Intzako dorrera. Irteera 08:00etan Herriko Plazatik.

**BISITA GERRA GUNERA**

Domekan, 10:00etan, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik abiatuta. Izen-emateak 943 79 64 63.

**PODOLOGO ZERBITZUA**

Eguenean, hilaren 14an, 15:45ean hasita. Erretiratuendako zerbitzua. Txanda hartzeko deitu 943 76 80 77 telefono zenbakira (Nati).

**TUTOREA KZGUNEAN**

Astelehenean, ekainak 11, dinamizatzailea KZgunean izango da, 09:00etatik 13:00etara.

LEINTZ GATZAGA

# Dorleta pilota txapelketako finalerdiak domekan jokatuko dira

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Dorleta pilota txapelketaren bukaera gero eta hurbilago dago eta finaletan izango diren pilotari gehienen izenak ezagutzen hasiko dira etzi; izan ere, finalerdiak jokatzen hasita daude. Kimuetan, esaterako, Arrasate izango da finalistetako bat; Muruak eta Elkorobarrutiak Aramaioko bikoteari irabazi zion partidua, ondo sufritu eta gero.

Domekako jardunaldia beteranoen arteko partiduak hasiko du (09:00) eta Gatzagako bikoteak Mallabiakoaren (Bizkaia) aurka jokatu: Aizpuru eta Bengoa, Usuriaga anaien kontra. Goiz da partidua baina herritarren berotasunik ez dute faltako gatzagarrek. Ondoren kadeteen arteko bi finalerdiak jokatuko dituzte: Amurrio, Aramaioren aurka (10:00); eta Zaramaga (Gasteiz) Arrasateren aurka (10:30). Haurren artean Lagunek (Gasteiz) Otxandioren aurka jardungo du (11:00); eta ondoren benjaminetan jokatuko diren bi finalderdiak etorriko dira: Arrasate, Legutioren aurka (11:30); eta Aramaio, Zaramagaren aurka (12:00). Eta gazteek bukatuko dute saioa: Arrasate B, Zaramagaren aurka eta Arrasate A, Amurrioren aurka.

# Ortuak errentan emateko araudia gertatzen dabil Udala datorren urterako

**M.A.** | LEINTZ GATZAGA

Ortuak egiteko lursailak gertatu gura ditu Udalak herritarrendako, eta araudia lantzen hasita dago. Hasiera batean aurten emateko asmoa bazuten ere, azkenean, gurago izan dute gertatze lanak lasai hartu, araudia behar bezala landu eta datorren urteari begira ondo lotuta eta prest uztea guztia.

Hainbat herritarren eskaerak jaso dituzte udaletxean, eta horiei erantzun guran hasi dira araudia gertatzen. Datorren urterako izango badira ere aisialdirako ortu horiek, izena emateko epea aurten zabalduko dutelakoan daude. Hala, denboraz jakingo dute zenbatek duten interesa eta zenbat lursail gertatu behar dituzten.

ATLETISMOA

# Puntako atletak batuko ditu, hamargarren urtez, Corpusetako lasterketak

## Goizean gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte eta nagusiena 19:00etan hasiko da

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Dagoeneko hamar urte igaro dira Corpus bezperako lehendabiziko kros lasterketa egin zutenetik. Hala, goizean Antxintxiketan taldeak antolatuta eskolarteko infantil eta gazte mailen lasterketak egingo dituzte, eta arratsaldean izango da elite mailako atleten txanda, 19:00etan.



Corpus lasterketako une bat, iaz. | JULIO CALLEJA

### Zailtasunak

Lasterketaren aurkezpenean Asier Olasagastik azaldu bezala, krisia dela-eta atleta afrikarrak ekartzeko zailtasun handia izan dute antolatzaileek: "Ez dago lasterketa nahikoa estatu mailan, eta Keniako lasterkariak ekartzea ezinezkoa izan da. Hala ere, maila goreneko atletak izango dira gurean, eta tartean, lasterkari afrikarrekin batera estatuko lasterkari onenetarikoak ere izango dira".

Oraingoz, hemezortzi lasterkariren parte-hartzea ziurtatuta dago, eta tartean izango dira etiopiarrak, marokoarrak eta baita eritrearrak ere. Eta eurekin batera, inguruan lasterketa asko irabazi dituen David Gartzia durangarra; euskalduna sasoi onean dago, Donostiako erdi maratoian seigarrena izan zen, eta hura izan zen Afrikako jatorrikoa ez zen lehena. Espainiarren aldetik, Chema Martinez eta Jose España izango dira lasterketan.

### Izen aipagarriak

Etiopiatik datozen korrikalarien artean goraipatzeko bi izen daude: Asfaw Dadi eta Abrha Gebremedhn, baita Ameha Weldetsadick gaztea. Marokoarren artean izen bat beste guztien gainetik ageri da, Mohamed Blal: Sevillako Maratoia irabaztetik dator eta parte hartu duen distantzia horretako lasterketa guztietan garaipena eskuratzeaz gain, 29 minututik beherako denborak ezarri ditu. Oro har, "Nazioarte mailan ospea duten atletek parte hartuko dute, emaitza onak lortzen dituztenak. Bada, ikuskizuna izango da gure kaleetan", adierazi zuen Arregik.



Bergarako zirkuituan, iazko lasterketako irudi bat. | JOSETXO ARANTZABAL

MOTO-KROSA

# Cross countrya beharrean, Euskadiko moto-kros txapelketa egingo dute Bergaran

## AHTko lurrak erabiltzeko baimenik lortu ez, eta zirkuituan ibiliko dira bihar, zapatua, moto-krosean

X.U. | BERGARA

Bergarako motorzaleek cross country lasterketa egiteko nahi beste zailtasun izan dituzte, eta zirkuitutik kanpoko lurrak erabiltzeko baimenik lortu ez dituztela ikusita, moto-krosaren aldeko apustua egin dute, modalitate hori zirkuitu barruan egin dezakete-eta: "Diputaziokoekin egon ginen berbetan, eta eurek ez ziguten eragozpenik jarri. Baina AHTko obrak kudeatzen dituztenek ez digute lurrok erabiltzeko baimenik eman, eta, azkenean ere, moto-kros lasterketa egitea erabaki dugu, Euskadiko txapelketarako baliagarria izango dena", adierazi dio Goienari Asier Blazquezek, lasterketako antolatzaileak.

Motorzale amorratua ez denak nekez ezberdinduko ditu bi modalitate horiek. Moto-krosa zirkuitu barruan egiten da, salto ikusgarriagoak izaten dira eta motorrak arinagoak izaten dira; gainera, esekidurak ere ezberdinak izaten dituzte. Cross countryan, berriz, zirkuituan zehar gainditu beharreko hainbat oztopo izaten dituzte, eta tramu bat basoan egiten dute. Eta hori da lortu ez dutena, zirkuitutik kanpora ibiltzeko baso eremu bat.

### Bihar, Euskadiko txapelketa

Biharko moto-kros lasterketarako antolatzaileek 60 parte-hartzaile espero dituzte, eta horietako batzuk Debagoienekoak. Bergarakoei dagokienez, zirkuituan izango dira Josu Mentxaka (iaz Euskadiko txapeldun izan zen), Unai Markiegi (hirugarren doa sailkapenean, junior mailan), Urtzi Markiegi (zazpigarren seniorretan) eta Asier Blazquez (bigarren beterano mailan).

Hala, 12:00etatik 14:30era arte egiaztatzeak egingo dituzte, eta 14:30ean hasiko dituzte entrenamendu saioak. Dena ondo bidean, lehenengo lasterketak 16:00etan hasiko dituzte, eta maila txikietatik hasi eta beteranoen kategoriaraino lehiatuko dira. "Azken edizioetan eguraldiak ez du batere lagundu, eta ea oraingoan ez den zirkuituan horrenbeste lokatz batzen".

SASKIBALOIA

# Saskibaloiaren gune Bergara

Dagoeneko izena eman daiteke *bergarake.com* webgunean, Bergaran hurrengo asteburuan jokatuko den hiruko saskibaloi txapelketarako. Sari bikainak izango dira.



BERGARA SASKIBALOI TALDEA

vibike
bikes & triathlon
Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.
Parking propioa. 400 m²ko erakusketa zure zain.

Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

BARRIO autobus eta mikrobusak
• Eskoletako txangoak
• Upeltegietara irteerak
• Ezkontzak
Prezio interesgarriak!
Eska ezazu aurrekontua konpromisorik gabe!

Aldapa kalea 6, 4-B Ermua • Tel.: 943 17 15 01 • Pol.: 659 87 89 89
E-posta: info@autocaresbarrio.es • Webgunea: www.autocaresbarrio.es

MENDI LASTERKETA

# Atxorrotzerako kronoigoerak saltsa jarriko du Gabez Takarraran proban

Lasterketaren bigarren edizioa egingo dute bihar; kronoigoerako porrak saltsa jarri du Eskoriatzan

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Zapatuko (23:00) Gabez Takarraran lasterketa iazkoa baino saltseroagoa izango da. Eta ez iazkoa makala izan zelako –lehenengo edizioa izateko, eta gauez, harrera ona izan zuen–, baina bai aurtengoak osagai gehiago dituelako. Hasteko, antolatzaileek ibilbidean hainbat aldaketa egin dituzte. Lasterketaren lehen zatian atletak Asentziomendiraino igoko dira, eta handik bueltan, Eskoriatzan gora Atxorrotz igoko dute, zuzen.

**Kronoigoeraren denbora asmatu**

Hain zuzen, eskoriatzarrendako berezia den Atxorrotzeko igoerak saltsa jarri du herrian, igoera hori kronometratu egingo dutelako, eta apustuak egin daitezkeelako tabernetan (1 euro): "Dagoeneko badakigu tabernaren baten zozketak amaitu zaizkiela", esan digu probako antolatzaileetako batek, Julen Ezeizak. Seguru eskoriatzarren artean beti egon izan dela lehia hori, nork Atxorrotz azkarrago igo, eta ikusteko dago bihar azkarrenak zen-batean geratzen duen erlojua. Bere poltsikoko dirua jokatuko balu: "Ikusi egin beharko nuke zeintzuk datozen, baina hemeretzi minuturen bueltan ibiliko da", dio, barrez, Ezeizak, kartaren bat ezkutuan izango balu bezala.

Internetez aste barruan 50 lagun zeuden izena emanda: "Baina badakigu jendea azken unera arte zain dagoela, besteak beste, Hiru Handiak probatik zelan errekuperatzen den ikusteko". Berrehun laguneko izen-ematea betetzen ez bada, lasterketa aurretik izena eman ahal izango da, Eskoriatzako plazan, proba baino hasi baino apur bat lehenago.



Iazko edizioan korrikalariak Eskoriatzako plazatik pasatzen. | JULIO CALLEJA

ESANAK

**"Azkarrena 19 minuturen bueltan ibiliko dela uste dut"**

JULEN EZEIZA | ANTOLATZAILEA



Irteera unea. | EHUNMILAK.COM

MENDI LASTERKETA

## Boluntarioak behar dira Ehun Miliak probarako

X.U. | BERGARA

Ehun Miliak ultratrail probaren hirugarren edizioa jokatuko da, Beasainen hasita, uztailaren 13tik 15era. Bergaratik lasterketa egubakoitz iluntzean igaroko da; Trekutz aldetik sartu eta Hirukurutzetaraino. Tarte hori Pol-Pol mendi taldearen ardurapean dago, eta laguntzaileak behar dituzte, ibilbidean egoteko, Altsazuko jan-edan postua eta txip kontrola muntatzeko (egubakoitz goizean) eta lasterketa unean egoteko. Lagundu nahi dutenek dei dezatela 943 76 48 51 telefono zenbakira edo mezua bidal dezatela *pol-pol.menditaldea@hotmail.com* helbidera.



# POLTSIKOAN

## Goiena.net prest sakeleko telefonoan!

- Albisteak
- Blogak
- Gaiak
- Gida komertziala
- Iritziak
- Irratia
- Parte hartzeko atala
- Telebista

## Deskargatu!

Beheko QR kodea irakurrita, aplika-zioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.

Google play

Available on the iPhone App Store

*m.goiena.net*



**PARTE HARTU** Parte hartu zorion agurrak, eskelak eta ezkon-zorionak bidaltzen.



**HERRIAK** Albisteak, herrika eta gaika antolatuta. Etxeko ordenagailuan bezala



**AGENDA** Edozein unetan dataren, herriaren edo ekintza motaren araberako bilaketa.



**GIDA KOMERTZIALA** Ukitu batekin nahi dugunari telefonoz deitzeko aukera.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# KULTURA

# Araoztarren ohiturak kontu-kantari

## Bitoriano Gandiagak batuta zituen Araozko idatzizko ondareak argitaratu dituzte

**MAIDER ARREGI** | OÑATI

Paulo Agirrebaltzategik *Araozko kantuak eta kontuak* lana argitaratu du, Pello Zabalaren laguntzarekin, besteak beste. Bitoriano Gandiaga frantziskotarrak araoztarrengandik jasotako kantuak eta kontuak batzen dira liburuan. Gandiaga, 1965etik 68ra, Araozko parrokoa izan zen. Egunero oinez joaten zen Arantzazutik Araotzera. "Han egiten zituen auzotarren bisitak, bertan lo egin, hurrengo egunean meza esan eta astelehenean Arantzazura bueltatzen zen eskolak ematera", azaldu digu Agirrebaltzategik. Tarte horiek aprobetxatuz, jendeari kontuak eta kantuak atera eta idatzita jaso zituen Gandiagak. "Haren literatura artxiboan eta ondarean zituen batuta. Koaderno berezi bat zeukan idatziekin, eta, hura hil ostean, 10 urtez hor egon da. Azkenean, ateratzea lortu dugu eta transkribatu barik zeudenak transkribatu ditu Pellok; doinua jartzen lagundu dit".

"Kantuak baino gehiago, Araozko kontuak gustatzen zaizkit. Horren ondo eta goxo idatziak daude! Hemengo euskara ia Amezketakoa baino gehiago gustatzen zait!", aitortu digu Zabalak.

"Zor bat nuen; Gandiagaren ondarearen edizio kritikoa egin nuen eta horren ardura nuen. Lan zailena zen; izan ere, testuak ez zeuden ondo eratuta", esan digu Agirrebaltzategik.

Liburua, baina, ez dela araoztarrendako soilik diote egileek, nahiz eta ukitu araoztarra izan. Lanak bost parte ditu: *Araotz eta araoztarrak*; *Kantu-kantari*, Araotzen entzundako kantuak, baladak eta koplak; *Kontu-kontari*, ipuinak; *Bertso-sortari*, bertsolari klasikoenak eta beste inon kantatzen ez diren bertsoen bilduma; *Araoztarren ohiturak eta siniskerak*, beraien sentierak, eta ohiturak batzen diren atala. Laugarren atal horretan, araoztarrei buruz esandakoak –arabarrak eta arantzazuarrak tartean– ere jasotzen dira; azkena: *Araotzeko pandero -joleen zazpi kanta*. "Azken kantu hauek ez dira Gandiagak jasoak, Aita Villasantek argitaratuak dira, eta, beraz, ez da segurua nork egindakoak diren".


Paulo Agirrebaltzategi eta Pello Zabala Goiena telebistako platoan liburua aurkezten. | MIREN ARREGI

### ESANAK

**"Araotzeko ukitua du, baina ez da bakarrik araoztarrendako"**

PAULO AGIRREBALTZATEGI | EGILEA

### Testigantzak

Kanta batzuk doinu barik geneuzkan eta bizi direnei berriro kantarazteko eskatu genien, gero Pellok partiturak transkribatzeko. Ruper Ordorikak eta Hiru Trukuk ere jasota dituzte euren diskoetan, zoragarriak dira-eta".

Lekuko guztien argazkiak sartu gura izan dituzte. "Hango ohiturak oso interesanteak dira, eta neskek, bereziki, bazuten ospea, oso jatorrak ziren-eta. Makina bat anekdota eta istorio dago horren gainean", diote. Izen handiko bertsolariak ere badaude. Kantu batzuk ez dira Araozkoak soilik, beste toki batzuetan ere kantatu dira; tartean, Araozko gorazarrea ere badago, euskaratua", dio Agirrebaltzategik.

"Oso gorazarre duina da", gaineratu du Zabalak. Araozko maistrak, Toñita San Timoteok, agur esatean kantatutakoa da, 1951n. Orain, Paulo Agirrebaltzategik euskaratutako bertsioa dugu eskuragarri *Araozko kantuak eta kontuak* liburu bilduman.


Joxepa Zumalde, lekukoa. | PAULO A.

## Araotzen Gorazarrea

*Araotz, hain haran maitia,*
*pozik nintzan bertoratu;*
*Araotz, bihotza betia,*
*gura zaittut gogoratu.*

*Gogoratu baso-zelaixok,*
*bertan errekok jostari;*
*udabarriz txori alaixok*
*bake ta maitez kantari.*

*Araotz, hain haran...*

*Zerurantz begira mendixok;*
*soro-sailok kulunkari;*
*urre-koloretan garixok,*
*eskainiz uzta ugari.*

*Araotz, hain haran...*

*Orain hemendik urruntzian,*
*guztixok goguan dittut;*
*danok zaituztet bihotzian;*
*Araotz, maiteko zaittut.*

*Araotz, hain haran...*

Paulo Agirrebaltzategi





**Udako ikastaroak 2012** HABEren dirulaguntzaz

2012-13 ikasturterako aurrematrikula

**MATRIKULA ZABALIK**

Ekainaren 18tik 25era
16 urtetik gorakoentzat

UDAL EUSKALTEGIAK — EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO ENTITATE OFIZIALA

www.udaleuskaltegiak.net

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza 2
(Eskola Politekniko ondoan)
Tel.: 943 79 70 77
*euskaltegi@arrasate-mondragon.net*

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**
Bidebarrieta kalea 18 - OÑATI
Tel.: 943 78 24 96
*euskaltegia@oinati.net*

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**
Barrenkale 33 (Irizar Jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
*berg.eusk@udal.gipuzkoa.net*

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*


*Hitzen Musikaz Hazi* kontzertua. | GOIKOBALU

# Kontzertu berezia gaur gauean Amaia antzokian

Dena prest Arrasatek eta Nafarroak bat egingo duten kontzerturako

**JAIONE CARPINTERO** | ARRASATE

*Hitzen Musikaz Hazi* izenpean, gaur, 22:00etan, Amaia Udal Antzokian, Nafarroak eta Arrasatek bat egingo dute.

2011ko Nafarroaren Egunerako prestatutako ekitaldia da Arrasaten gaur taularatuko dutena. Besteak beste, Ken Zazpiren *Olatuz olatu, Ilargia* eta *Zapalduen olerkia*, Xabier Leteren *Ni naiz,* Mikel Laboaren *Izarren hautsa* eta Manolo Espeletaren *Maitia nun zira* abestiak entzungo ditugu gaur gaueko emanaldian.

Bada, kantari eta musikari askok hartuko dute parte, eta baita Goikobalu Gazte eta Goikobalu Txiki Arrasateko abesbatzek ere.

Emanaldi hori lehenengo aldiz Baigorrin egin zuten, Et Incarnatus orkestrak antolatuta. Hain justu, 2011ko Nafarroaren Egunerako prestatutako ekitaldia izan zen; Baigorrin, urtero, apirilaren amaieran Nafarroaren Egunaren harira ospatzen den kultura astearen barruan, hain zuzen ere. Kontzertu hartan herriko gazteen abesbatza batek ere parte hartu zuen, eta orain gurean daude, Goikobaluko gazte eta txikiekin batera abesteko.

**Debagoiendarrak ere bai**

"Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gaztekoek hartuko dute parte, eta gehienak arrasatearrak dira. Ikastolako haur batzuk ere tartean izango dira, abesbatza handitzeko helburuarekin; beraz, herri askotako umeak bilduko dira. Besteak beste, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletakoak", adierazi du Rakel Murgiondok, Goikobalu Gazteko zuzendariak.

Guztira, 45-50 bat haur izango dira; txikienak 8 urte izango ditu eta nagusienak 22. "Guretzako zerbait berria denez, umeak oso pozik daude, batez ere Eñaut Elorrieta, Ken Zazpiko abeslaria, bertan izango dela jakin zutenean", esan du zuzendariak.

Duela hiru hilabete hasi zituzten entseguak, eta dagoeneko prest dute guztia. Lan handiko proiektua da; horrenbestez, emaitza onak lortzea espero dute. "Euskal kantu ohikoak eta gaur egungoak izanda, guztiendako erakargarria izango da, eta ez bakarrik haurren senitartekoendako. Emanaldiak 17 abesti izango ditu eta guk bost kantu abestuko ditugu. Benetan polita izango da, eta gozatzeko modukoa."

**PARTE HARTZAILEAK**

- Goikobalu Gazte
- Goikobalu Txiki
- Et Incarnatus orkestra
- Eñaut Elorrieta
- Amaren Alabak
- Baigorriko gaiteroak
- Juantxo Zeberio Etxetxipia

**ESANAK**

**"Erantzukizun handiko lana dugu aurretik"**

RAKEL MURGIONDO
GOIKOBALU GAZTEKO ZUZENDARIA

**DATUA**

**45**

GAZTE ABESLARI

Debagoieneko 45 -50 gaztek hartuko dute parte gaur 22:30ean izango den kontzertuan.

## Gaztelekuak ikasturtea behar bezala agurtuko du

**J.C** | ARRASATE

Ikasturtea amaitzear dela, Arrasateko gazteguneak guztia prest dauka ikasturteari agurra emateko. Hori dela eta, hainbat ekintza prestatu dituzte asteburu honetarako. Eta bihar hasita izango dira ekintza horiek. Lehenengoa zapatuan bertan izango da: Aretxabaletako Gazte Iraultza taldeak kontzertua eskainiko du, 18:30ean hasita.

Domekan, berriz, hitzorduekin jarraituz, perkusio afrikarra ikusteko aukera izango da. Izan ere, gaztetxeko perkusio taldea eta Senegal inguruko lagunak gaztegunera joango dira eta, hain zuzen ere, tailer txiki bat eskainiko dute.

Arrasateko gazteguneak kulturgune izatea du helburu, eta hauxe diote antolatzaileek: "Gazteek eurek nahi dituzten kultura jarduerak antolatu ahal izateko aukera dutela ikusi dugu lehen urte honetan. Horrenbestez, aste bukaera honetarako ere, jendea gerturatu eta parte hartzera animatzen dugu!".

## 'Bodologoak': barrea, algara eta umorea barra-barra

**J.C** | OÑATI

"Nork esan zuen euskalduna izatea erraza zela? Eta oporretara joatea mundiala zela? Zein kristori bururatu zitzaion elkarte gastronomikoak sortzea?".

Galdera hauek eta beste hainbat erantzungo dituzte gaur, 22:30ean, Mikel Pagadizabalek, Egoitz Lasak eta Nagore Aranburuk. Serio hartu nahi dituzten gaiak dira, baina ezin; barrea, algara eta umorea dariela izango dute.

Dena prest dago gaurko emanaldirako. Kasualitatea ordea! Justu emanaldia baino lehen ezkontza bat izan dute eta *bodologo* bihurtu da.

"Elegante, zorrotz, petral eta xelebre, baina beri umorez gainezka", horrela definitzen dira aktoreak, "Helburu garbia dugu: guk esan eta zuek barre egin".

Sarrerak salgai daude *barrabarra.eu* Internet atarian, eta berandu ibili diren horientzat, gaur, 22:00etan, txarteldegian ere izango dira, 10 euroren truke.

**Jurgi Etxeberria** | Aktorea

## "Hitz bakar bat esan gabe sortzen ditugun sentsazioak ikustea oso pozgarria da"

Apropox-ek 'Eunon' antzezlana taularatuko du gaur Bergaran, 22:00etan, Zabalotegi aretoan

**J.C** | ARETXABALETA

Kukubiltxon 20 urte darama Jurgi Etxeberriak, eta oraindik ere bertan segitzen du; horretaz gain, Apropox antzerki taldean ere badabil. Antzerkizale amorratua da, eta gaur gauean *Eunon* antzezlanean ikusiko dugu.


Jurgi Etxeberria. | JAIONE CARPINTERO

**Maskara sistema lantzen du Apropoxek, ezta?**

Bai. Umeengatik eszedentzia eskatu nuenean, antzerkiarekiko nuen grina asetzeko asmoz sortu genuen Apropox. Aretxabaletako lokal batean sartu ginen eta entseguak egiten hasi ginen.

Maskara sistema probatu nahi nuen, benetan interesatzen zitzaidan, eta gure entseguak sistema horretara lotzen ziren. Horren inguruko ikastaro batzuk ere jaso ditut, teknika ezberdinak batzen ditu eta oso emaitza naturalak irteten dira. Hasieran arraroa da, baina, istorioak aurrera egin ahala, ikusita bakarrik guztia ulertzen da, eta ez dago testuaren beharrik. Hitz bakar bat esan gabe ikusleengan sortzen ditugun sentsazio guztiak ikustea oso pozgarria da.

Ni beti izan naiz testu gutxiko antzerkilaria, nahiago dut mota honetakoak. Sistema honekin aurkitu dut nire neurriko hizkuntza.

**Zenbat artistak osatzen dute Apropox antzerki taldea?**

Antzerkia kaleratu genuenean ni bakarrik nengoen agertoki gainean, baina teknikari baten beharra zegoela ikusi nuen. Teknikari baten laguntza jaso nuen [Ander Monedero], eta hari esker soinuen efektua hobetu genuen; izan ere, testurik ez izanda, honek sekulako garrantzia dauka. Hura ere ikuskizun honetako diseinatzaile bat ere badela esan dezaket. Orain, bigarren teknikari bat ere gurekin dabil [Juan Carlos Arraiza], eta hark antzezlanean ere parte hartzen du; sagu bat ateratzen dugu eta sagu hori manipulatzen ibiltzen da.

**Ibilaldi luzea daramazu antzerkian, ezta?**

Bai; 18 urterekin sartu nintzen antzerki eskolan, eta ordutik 20 urte pasatu dira. Gogorra da lan hau, benetan barruraino sartzen zarelako eta inplikazio handia behar delako.

**Zer da antzerkia zuretzat?**

Irudimenaren mundua!

**Benetan irudimenaz jositako mundu bat dela, batez ere Bergaran taularatuko duzuen *Eunon* antzezlana. Jendeak zer esaten du hura ikusita?**

Jende guztiak uste du maskara baten atzean kokatzeak gauzak errazten dituela, baina, azkenean, aktorea urduri jartzen bada, erritmoa apurtu egiten da eta asko nabarmentzen da hori, akats txiki guztiak asko ikusten dira. Erritmoa, batez ere maskarako sistema honetan, funtsezko ezaugarria da. Erritmoaren menpe gaude eta horrekin behar bezala jolasten jakin behar dugu.


Lauroba taldeko kideak. | LAUROBA

# 'Iglu bat basamortuan' disko berria aurkeztuko du Laurobak gaur Bergaran

## Arratsaldean ikasturte bukaerako jaia egingo du Jardunek Munibe plazan

USOA AGIRRE | ARRASATE

Lauroba talde donostiarrak azken diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Bergaran. Jardun euskara elkartearen eskutik datoz, Kultur Errotaren barruan. Munibe plazan izango da kontzertua, 22:30ean hasita, eta debalde izango da. Maiatzean kaleratu zuten *Iglu bat basamortuan* disko berria, eta hura aurkeztera etorriko dira Bergarara. Izan ere, orain arte kaleratu dituzten disko guztien artean moderno eta iradokitzaileena dela diote musika adituek, kontrastez eta osagarriz josia.

2004an ekin zioten Iker eta Haritz Lauroba anaiek pop-rock estiloan oinarritutako proiektu berriari. 2005ean grabatutako maketa eta bi kanporaketatan emandako kontzertuei esker, 2006ko Donostiako rock lehiaketa irabazi zuten. Lehen sari hori baliatuz, lau abestiko EP bat grabatu zuten.

2008an iritsi zen Laurobaren lehen lan luzea, Gor diskoetxearen eskutik, *Gauari, gauarekin* izenekoa. 2010eko martxoan kaleratu zuten bigarren diskoa, hura ere Gorren eskutik, *Egunarekin* izenekoa.

**Jardunen jaia, gaur**

Arratsaldeko 18:00etan, berriz, Munibe plazan bertan Jardunek ikasturte bukaerako jaia egingo du. Bertan, ikasturtean zehar gazteek ikasitako dantza, bertso eta trikiti doinuak entzun ahal izango dira.

Bertso eskolako lau ikaslek bertsoak kantatu ostean, euskara errefortzuetan ibili direnei diploma bana banatuko diete. Ondoren, dantza eskolako taldeko gazteek dantza emanaldia egingo dute. Eta, bukatzeko, trikiti eskolakoek trikiti doinuekin alaituko dute jaia.

# Joseba Irazokik Oñatiko Antton tabenan joko du

## Ekaineko egitarauari hasiera emango dio Berako musikariak gaur, 20:00etan

U.A. | ARRASATE

Joseba Irazoki Berako musikariaren kontzertua izango da gaur, egubakoitza, 20:00etan, Oñatiko Antton tabernan. Sarrera doan da. Talde askotan gitarra jotzen aritzen da Irazoki; besteak beste, proiektu hauetan dabil azkenaldian murgilduta: Do, On Benito, Atom Rhumba, Petti eta Rafa Rueda.

Oraingoan, baina, gitarra eta bonboa hartu eta bakarrik etorriko da Oñatira. Umorea, birtuosismoa eta esperimentazioa izaten dira haren bakarkako kontzertuetako protagonistak, eta Antton tabernako kontzertuan ere ez ditu ikusleak epel utziko. Estilo askotan barrena bidaiatuta gai da modako kantu komertzialenen bertsio partikularrak egiteko. Osagai horiekin guztiekin ikuskizun zoroa eskainiko du.

**Beste bi kontzertu**

Ekainean beste bi kontzertu izango dira Antton tabernan: ekainaren 15ean, Mery May bakarlari arrasatearrak eskainiko du kontzertua. Danbaka musika lehiaketan ezagutu genuen Mery May, eta harrezkero han eta hemen aritu da kontzertuak ematen. 2010ean argitaratu zuen lehen lana, *Dreams* izenekoa, 70eko hamarkadako folk eta rockari keinu egiten dion disko akustikoa.

Ekainaren 22an, berriz, Gora Gora Kidsen txanda izango da. Ia urtebete pasa dira taldeak azken kontzertua eman zuela eta oraingoan *Horror Songs* izeneko EPa aurkeztuko dute. Izuaren, abenturazko zinemaren eta istorio espazialen gaineko lau abesti batzen ditu diskoak.

Antton tabernako kontzertu guztiak 20:00etan hasiko dira.


Joseba Irazoki, Berako Kataku ostatuan. | ASIER GOGORTZA


Bandaren Gabonetako kontzertua. | JULIO CALLEJA

# Astebete aurreratu dute Bergarako bandaren kontzertua

## Ekainaren 24an beharrean ekainaren 17an, domeka, egingo dute hil honi dagokion kontzertua

U.A. | ARRASATE

Bergarako Musika Bandak hilero egiten du kontzertua Bergarako Espoloiko kioskoan, eta ekainean eman beharreko kontzertua astebete aurreratuko dute. Hala, bandaren kontzertu-egutegian ekainaren 24an jartzen badu ere, 17an eskainiko dute, azkenean, kontzertua. 12:30ean hasiko da, Espoloian.

**Orkestrarena, 16an**

Bestalde, Bergarako Orkestra Sinfonikoak urtero ekainean eskaintzen duen kontzertua ekainaren 16an, zapatua, 20:00etan hasiko da. Santa Marina parrokian izango da orkestraren ekaineko kontzertu berezia. Aurrerago emango dute kontzertuaren egitarauaren berri.

**DATORRENA!**


**OTARRA**
Eta ekainean, *Debagoiena ezagutzen*, erantzun galderari eta aukera izango duzu Jakioneko otar bat irabazteko


**KONTZERTUA**
Ekainean 23an EUREKA MUSEOAn Musikaren eguna eta udako solztizioaren ospakizunerako bi gonbidapen bikoitz

**Animatu eta parte hartu!**

**IRABAZLEAK**

"SORTUKO DIRA BESTEAK" KANTALDIRAKO SARRERAK

**Izen-abizenak:** Jose Mari Lasaga Heriz
**Herria:** Arrasate

GOIKO BALU TXIKI ETA GAZTE KONTZERTURAKO SARRERAK

**Izen-abizenak:** Beñardo Balerdi Gomez
**Herria:** Arrasate

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

goienakluba 2012
Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*
Urteko kuota: **50 €**.



Mikel, Irazola okindegian egiten duen baserriko ogia saskian duela.

**Mikel Uribeetxeberria** | Okina

MAIALEN REGUEIRO

# "Okinaren lana gauez egin behar da, eta ez da gauza bera gauez lo egitea edo egunez egitea"

**MAIALEN REGUEIRO** | OÑATI

Mikel Uribeetxeberriak (Oñati, 1989) Irazola okindegia ireki zuen joan den abenduaren 11n. Okindegian lan egiteaz gainera, saskibaloian jokatzen du, eta biak uztartzen saiatzen da.

**Nondik sortu zen okindegia irekitzeko ideia?**

Ikasketak amaitu nituen, eta garai zail hauetan etxean zerbait egitea pentsatu genuen. Gainera, aitaren aldeko familiakoak ere okinak izan ziren, eta okindegia irekitzea erabaki genuen.

**Nola egiten duzue ogia?**

Ogia egiteko modu tradizionala erabiltzen dugu. Lehenengo, ogi-masa egiten dugu, era tradizionalean. Masa eginda dagoenean, minutu batzuk igaro eta gero bolak egiten ditugu. Bolak egin ostean, minutu batzuk itxaron, eta horren ondoren, ogi forma ematen hasten gara. Eta ogi forma duenean, labera sartzen dugu.

**Ogi mota bakarra egiten duzue?**

Baserriko ogia egiteaz gainera, bihi osoko ogia ere egiten dugu. Baserrikoaren kasuan, betiko estiloko eta barra formako ogiak egiten ditugu. Bihi osoko ogiarenean, aldiz, barra formakoak egiteaz gain, moldeetan egindako ogiak ere egiten ditugu.

**Ogia okindegian saltzeaz gainera, zapatuetan herriko azokan ere saltzen duzue.**

Udalak laguntzak ematen dizkigu azokan guk egindako ogia saltzeko, eta, egia esan, oso ondo saltzen ari da. Agian, hemendik gutxira beste herriren bateko azokan ere hasiko gara gure ogia saltzen.

**Okindegia ireki zenutenetik orain arteko balantzea nolakoa izan da?**

Oso ona. Uste genuena baino gehiago saldu dugu. Oñatiko jendea da gehienbat ogia erostera etortzen dena, baina Bergarako eta Legazpiko batzuk ere gerturatzen dira guk egiten dugun ogia erostera.

**Zergatik irauten du gehiago baserriko ogiak?**

Bada, baserriko ogia eta kaleko ogia ez dira berdin egiten. Baserriko ogia egiteko lan handiagoa egin behar da. Guk lehen egiten zuten moduan egiten dugu, eta lehen ere ogiak asko irauten zuen. Gainera, baserriko ogia denbora luzeagoan egoten da labean, eta, agian, horregatik izan daiteke.

**Baserriko ogia geroago eta gehiago jaten da. Zergatik? Modan dago ala kalitate onekoa delako jaten da gehiago?**

Argi dago kalitateari geroz eta garrantzi handiagoa ematen diogula. Gainera, esango nuke geroz eta gazte gehiago etortzen direla gure ogia erostera. Agian gehiago irauten duelako izan daiteke.

**Gogorra da okinaren lana?**

Okinaren lana gauez egin behar da; orduan, gogorra dela esan daiteke. Izan ere, ez da berdina gauez lo egitea edo egunez egitea.

**Nolakoa da okinaren egun bat?**

Bada, labea egun bat lehenago berotu behar da, eta horretarako sua egin behar da. Labea zaindu behar da, eta dagokion tenperaturan mantendu. Ogi masa, aldiz, gauez egiten dugu. Izan ere, ogia egiteko prozesua nahiko luzea da.

**Asteburuan ogia. Astean zehar zer egiten duzu?**

Okindegia astebururako prestatzen ibiltzen naiz. Besteak beste, okindegia garbitu eta egurra prestatzen dut.

**Ogia astean zehar saltzeko asmorik?**

Hasiera baten, asteburuetan soilik salduko dugu. Izan ere, astean zehar oso ogi gutxi salduko litzateke, eta, horrenbestez, ez du merezi. Ogi asko salduko litzatekeela jakinez gero, astean zehar ere irekiko genuke.

**Saskibaloia eta negozioa nola uztartzen dituzu liga garaian?**

Orain liga amaitu dut, baina liga garaian partidua izan dudanean, gurasoak egon dira nire ordez lanean. Beste batzuetan, anaiak ere nire partez egin du lan, eta asko eskertzen dut. Izan ere, bakarrik egonez gero ezingo nuke horrelakorik egin eta ezingo nituzke bi gauzak uztartu.

## PERTSONALA

**Zure herriko txokorik maiteena:** Aloña mendia.

**Euskal Herriko tokirik gustukoena:** Oñati.

**Saskibaloi talde gustukoena:** Baskonia.

**Baserriko edo kaleko ogia:** Baserrikoa.

**Amets bat:** Krisi ekonomikoa amaitzea.

**Pelikula bat:** *Saw.*

**Telesail bat:** *Prison Break.*

**Udarako plana:** Lasai egotea eta lagunekin igarotzea.

# 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Mobil homea Iratxen.** Nafarroan. Lizarratik 2 kilometrora. Oso gutxi erabilia. 3 logela: bat bikotearentzat eta beste biak bi oherekin bakoitza. Sofa-ohea ere bai. 6-8 pertsonarentzat. Lorategia eta portxea. 44.000 euro negoziagarri. Interesatuei argazkiak bidaliko nizkieke. 686 77 04 97 edo jm.urrataxi@hotmail.com

## 103. ERRENTAN EMAN

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan Aieten, uztail eta abuztuan. Igerileku eta frontoiarekin. Kotxe batendako garajearekin. 679 44 60 71

**Peñiscola.** Hondartzako lehen ilaran. 2-6 pertsonarendako. Igerilekuarekin. Jantzia eta hornitua. Hamabostaldika ematen da errentan. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

**Torrevieja.** Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonendako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza behar dugu errentan 2012-13 ikasturterako. Hiru logelakoa, jantzia eta egoera onean. Partikularren artekoa. 685 72 32 50 edo 639 72 91 50

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 648 46 90 51

**Baserria edo borda.** Bikote gazteak baserri edo borda errentan hartu nahiko luke. Ez du axola egoera txarrean badago. Prest egongo ginateke konpoketak egiteko edo baserriko lanetan laguntzeko ere. Idatzi xibase75@hotmail.com helbidera edo deitu zenbaki hauetara: 697 75 49 73 edo 634 73 19 47

**Oñati.** Apartamentua behar dut errentan. Deitu telefono honetara: 627 39 98 46

**Oñati.** Etxebizitza behar dut errentan. Deitu telefono honetara: 600 31 14 16

## 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. Deitu telefono honetara: 678 73 66 54

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. Deitu telefono honetara: 653 71 44 57

**Arrasate.** Neska arduratsuak etxebizitza edo logela behar du errentan. Kontratuarekin. 634 40 64 65

**Zarautz.** Pertsona bat behar da Zarautzen pisu bat konpartitzeko. Etxea berrituta dago. Hiru logela eta terraza handia eta eguzkitsua du. Deitu telefono honetara: 658 71 66 93

## 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Saloun (Pineda) daukadan etxebizitza trukatuko nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metrora. 943 79 45 74 edo 606 76 11 37

# 2. GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargaraien. Gauzak gordetzeko apalategiarekin eta urrutiko agintedun atearekin. Deitu 608 77 64 27 edo 671 36 12 96 telefonora.

# 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko emakumea behar da, goizez lan egiteko, 7:30etatik 13:30era. 695 70 35 25 edo 943 03 75 96

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Haur hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska, prest haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 88 39 57

**Arrasate.** Bertako emakumea lanerako gertu: ume edo nagusiak zaindu, etxeko garbiketak eta abar. 943 79 60 89

**Bergara.** Neska euskalduna uztailean haurrak zaintzeko prest. Edozein ordutegitan egin dezaket lana. Haurrei buruzko ikasketak ditut. 664 46 28 18 edo 943 76 13 18

**Bergara edo Arrasate.** Emakumea prest etxe zein atarietako garbiketa lanak egin edo lisatze lanetarako. Deitu telefono honetara: 671 80 18 29

**Bergara edo Arrasate.** Gizonezkoa prest adineko pertsonak zaindu edo lorezaintza lanetarako. 617 02 54 72

**Bergara.** 18 urteko mutila interesaturik dago ostiral, asteburu eta jai egunetan Bergaran zerbitzari lanetan aritzeko. 627 36 83 70

**Bergara.** Garbiketan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Titulazioa eta esperientzia dauzkat. 680 77 06 46

**Bergara.** Neska euskalduna, goiz eta arratsaldez umeak zaindu edota eskolara eramateko prest. 676 69 56 20

**Bergara.** Neska gazte euskalduna gertu udan umeak zaintzeko. 617 80 87 85

**Debagoiena.** 54 urteko emakumea gertu umeak zaintzeko, etxe, atari zein tabernak garbitzeko, edo jatetxean lan egiteko. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 647 10 58 72

**Debagoiena.** Autoen mekanikaria naiz eta lana egiteko prest nago. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Nere telefonoa: 645 54 43 25

**Debagoiena.** Edozein porte edo bidaia egiteko prest furgonetarekin. 677 80 16 10

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako gertu. Interna gisa edo etxeko lanak egiten ere bai. Esperientziaduna. 671 21 55 26

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketan, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Ana Luisa de los Santos. 673 78 08 99

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, etxean bizi izaten zein bestela lan egiteko. Ume edo nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 682 31 97 37

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Bait agarbitasun lanetarako ere. Ordutegi malgua. Eskarmentuduna. Deitu telefono honetara: 618 00 08 28

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu, geriatria eta erizaintza formakuntzarekin, nagusiak zaintzeko. Gaixoak eta umeak ere bai. Etxean bizi izaten edo ordua. Deitu telefono honetara: 634 62 41 26

**Debagoiena.** Esperietziadun emakumea gertu etxe, bulego, lokal zein elkarteak garbitzeko. 676 24 89 24

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Debagoiena.** Etxe laguntzaile titulua duen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. Atari, etxe eta bestelako garbiketak egiteko ere prest nengoke. Eskarmentuduna. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bizi izaten edo bestela. Legezko paperak ditut. 636 77 44 24

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. 654 94 87 26 edo 654 94 87 26

**Debagoiena.** Lan bila nabil garbiketak egiten, ume edo nagusiak zaintzen, sukaldean eta abar. Gidatzeko baimena eta autoa dauzkat. Deitu telefono honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Mutil gaztea C eta C1 gidatzeko baimenarekin, banatzaile lanak egiteko prest. Deitu telefono honetara: 683 42 87 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egin edo nagusiak zaindu zein paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
KOROSTI INMOBILIARIA

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zubieta 30 m². Logela bat. 60.000€.
- Irizar Enparantza 71 m². 2 logela, igogailu, berogailu, trasteleku eta garajearekin.
- Matxiategi 102 m². 4 logela. Igogailu, berogailu eta trastelekuarekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zabalotegi 55 m². Balkoia eta trastelekua. Prezio jaitsierarekin. 114.192€.
- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
- Zubiaurre 51 m². 102.000€.
- Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Zubiaurre 65 m². 3 logela. 63.000€.
- Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Iparragirre 40 m². Apartamentua, berria.
- Zubieta 240 m², ortuarekin.
- Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€.
- Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela. Aukera ona.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
- Lorentxokon pisuak estrenatzeko. 3 eta 4 logelatakoak. AUKERA ONA.

**Antzuola:**
- Sagasti 90 m2. 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Sagasti Duplexa 125 m2. Oso ondo
- Buztinzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Elgeta:**
- Torrealdea 77 m2. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m2 lursaila.

**Debagoiena.** Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. 626 32 19 75

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko. Tituluduna: etxez-etxeko laguntza, arreta sozio-sanitarioa, higiene eta segurtasun prebentzioa eta abar. Baita hirugarren adinekoen animazio titulua ere. 619 87 95 57

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu ume zein nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo ospitalean gauak egiteko. Esperientzia eta informeak dauzkat. Autoa eta gidatzeko baimena ere bai. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 680 19 00 34

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko nagusiak zaintzen, garbiketa edo bestelakoetan. Tituluduna. Legezko papera ere baditut. 634 40 64 65

**Debagoiena.** Neska gertu tabernan lan egiteko, sukaldean edo barran. Garbiketa zein bestelako lanetarako ere gertu nengoke. Legezko paperak ditut. 603 25 12 34

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein haurrak zaindu, edota etxeko lanak egingo nituzke. 674 72 06 43

**Garraioak.** Furgoneta daukat edozein motatako garraioak egiteko. 628 51 22 78

**Oñati.** Mutil gazte euskalduna. Edozein lanetarako prest, bai asteburu baita astegunetan ere. 645 70 80 71

**Oñati.** Umeak udan zaintzeko prest. Arlo honetan esperientziaduna eta arduraduna. 696 30 04 28

# 5. IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen dira. Uztailean, orduka zein intentsiboak. Maila guztiak. Enpresarako formazioa eta Cambridge edo HEOeko azterketak prestatzeko ere bai. 618 91 32 89

# 6. MOTORRA

## 601. SALDU

**Mercedes Vito.** Mercedes Vito Marco Polo furgoneta salgai. Berdea. 2001 urtekoa. 208.000 km. Guztiz ekipatuta, Westfalia. 605 75 39 66

# 7. ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Asto emea.** Asto eme nagusia salgai. Beltza da eta oso mantsoa da. 655 71 39 27

**Border Colliea.** Hiru hilebeteko Border Collie saltzen dut. Oso polita da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 38 15

## 703. EMAN

**Border Collie.** arrazako txakurra ematen da opari. Deitu 699 46 45 33 telefonora.

**Katakume polit-politak.** Siamesa eta kale katuaren arteko katakume polit-politak ditut oparitzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara 21:00etatik aurrera. Itziar. 945 30 42 09

**Txakurkumeak Urbian.** Txakurkumeak ematen dira opari Urbiako fondan. 943 78 13 16

## 704. BESTELAKOAK

**Brako ertaina gurutzatzeko.** Brako ertain eta kolore ilun baten bila gabiltza gure txakurrarekin gurutzatzeko. Interesatuak deitu: 617 29 59 65

# 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Almirante trajea.** Jaunartzea egiteko mutiko trajea salgai. Behin bakarrik erabilia. Traje osoa, zapatak izan ezik. 10 neurrikoa. 150 €. 618 00 08 28

**Anplifikagailua salgai.** Alvian acoustic 25c anplifikagailua salgai, interesatuak: 686 61 35 52 edo 943 53 27 20

**Aulki bikoitza.** Aulki bikoitza, adin desberdineko anai-arrebentzat salgai. Graco Stadiun Duo markakoa. 653 71 53 81

**Baserritar erropa.** Mutikoarendako baserritar erropa salgai. Urtebete eta lau urte bitartean erabiltzekoa. Praka, alkandora, blusoi beltxa, txapela, galtzerdiak eta 21 zenbakiko narruzko albarkak. 50 euro. Idatzi marysea15@hotmail.com helbidera edo deitu zenbaki honetara: 653 72 22 54

**Bizikleta.** Mendiz RS4 bizikleta salgai. Karbonozkoa, txuria eta gorria. 51 neurrikoa. Shimano Ultegra kanbioduna. Fulcrum Racing gurpilekin. 2010ekoa eta egoera oso onean. Faktura dauket. 606 28 81 19

**Bizikletarako umeendako aulkia.** Umeak bizikletan eramateko aulkia salgai. Etzan eta siesta egiteko ere erabil daiteke. 647 58 40 73

**Dena zure umearentzat.** Sehaska berria lo egiteko, balantza jolasteko eta trona jateko. Chicco etxeko kit osoa: maxi-cosia, kapota (fundarekin), apapa aulkia eta kotxearen aulkia (jaioberritik hamazortzi kilo arte). 490 euro dena. Etor zaitez ikustera konpromisorik gabe. 677 53 37 55

**Gimnasiorako bonoa.** Bi bono saltzen dira Arrasaten. 15 hilabeterako. Egunero joan zaitezke astelehenetik larunbatera, eta edozein klasera. 280 euroan bakoitza. 607 06 22 20 edo anunciointer@yahoo.es

**Karro denda.** Oso egoera onean. Sekulako aukera. 1.200 euro. 617 80 87 85

**Kristalezko mahaia.** Bulegorako kristalezko mahaia salgai. Berri-berria. Prezio onean. 619 87 95 57

**Lizentzia.** Taxi lizentzia salgai Bergaran. 670 41 07 24

**Lowepro Primus AW.** Lowepro Primus AW motxila salgai. Mendira joateko egokia eta erosoa. Reflex argazki kamera tele-objektiboarekin, beste bi objektibo sartzen dira. Gehigarri eta arroparako leku ugari. Gutxi erabilita. Deitu telefono zenbaki honetara: 667 95 73 16 .

**Piano digitala.** Ringway TG-8815 modeloa. Oso gutxi erabilia. 275 €. 675 00 80 33

**Piragua.** 3,50m luze den piragua salgai kubrea eta palagaz. Kirol honetan hasteko egokia. 635 75 20 08

**Sofa.** Hiru pertsonendako sofa polit bat saltzen da 300 eurotan. 667 06 51 16

**Trialsinerako bizikleta.** Trialsinerako bizikleta salgai. Egoera oso onean. 617 21 89 74

**Umeendako aulkia.** Mutsy Urban Raider umeendako aulkia eta kapazoa salgai. Bi zaku opari. 652 76 60 36

## 802. EROSI

**Baby Jogger City Mini.** Baby Jogger City Minirako kapazoa erosiko nuke. 652 71 74 49

**Igel jokoa.** Igel joko baten bila nabil. Norbaitek badu deitu diezadala 607 66 02 44 telefono zenbakria.

## 804. HARTU

**Bizikletak.** Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

## 806. GALDU

**Betaurreko graduatuak.** Betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 31n, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorrian. Mesedez aurkitu badituzu jarri kontaktuan nirekin. 608 41 53 11

**Motxilak galdu.** Maitzaren 11n umeen 2 motxila galdu genituen. Bat urdina eta beste kamuflaje (naranja kolerekoa). Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara: 615 79 13 21

**Txamarra bakeroa Oñatin.** Oñatin, umearen txamarra bakeroa galdu dut maitzaren 7an. 8 neurrikoa. Baliteke Bidebarrieta inguruan. Aurkitu baduzu deitu mesedez. Eskertuko da. 664 35 75 15

## 807. AURKITU

**Lepokoa Arrasaten.** Lepoko aurkitu nuen maiatzaren 20an, Munarren. Galdu baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 689 88 98 12

**Mediku tresnak.** Tentsioa hartzeko eta auskultatzeko tresnak aurkitu genituen maiatzaren 11n Arrasateko Aldai kale inguruan. Zureak badira, deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 46 04

# 9. HARREMANAK

## 903. DEIAK

**Txistulari bila.** Ekainaren 8an daukagun ezkontza baterako txistulari bila gabiltza. Txistularia bazara jarri gurekin harremanetan: 637 91 33 81

## 904. BESTELAKOAK

**Udan hizkuntzak praktikatzeko.** Euskara eta gaztelania hitz egiten duen neska naiz eta euskara da nire ama-hizkuntza. Frantsesa ikasten ari naiz eta frantsesa dakien norbaitekin hitz egiteko aukera izatea gustatuko litzaidake. Trukean nirekin euskara edo gaztelania praktikatu ahal izango du. Ekainean edo uztailean, arratsaldetan, doan hizkuntzak praktikatu nahi dituenak, dei dezala 663 33 95 69 telefono zenbakira.

Aretxabaletako Udala

**ENPLEGU TEKNIKARIA**
Aretxabaletako Udalak enplegu teknikaria behar du urte amaiera arte, egun erdiz.
**Eskatzen den titulazioa:** Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza lizentziatura.
**Hizkuntza eskakizuna:** 3a.
**Izena emateko epea:** ekainak 22.
**Oinarriak:** *www.aretxabaleta.com*

Aretxabaleta, 2012ko ekainaren 8a

## ASTEA GOIENAN



GOIENA

### Oñatiko Corpus jaia 'Magazine' saioan

Astero bezala, denetariko gaiak jorratuko ditugu. Corpus jaiari tarte berezia eskainiko diogu. Zenbait mendetik hona egiten den ospakizunean denetarik izango da: San Miguelen eta Apostoluen maskarak, prozesioa eta txistulariak, besteak beste.

**'Magazinea'**
Astelehena, 20:15.



NOTICIASDEGIPUZKOA

### Maribi Ugarteburu 'Harira' saioan

Ezker abertzaleko bozeramailea elkarrizketatuko dugu. Hauteskundeei begira ezkerreko indar subiranisten marka berria, Bildu Euskal Herria; Sortu; euskal presoen azken agiri; eta Bilduren gobernu jarduna izango dute berbagai, besteak beste.

**'Harira'**
Martitzena, 21:30.

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA ,8**

**12:30** Magazinea
**13:15** Zorion agurrak
**13:20** Gipuzkoa Kultura
**13:50** Onein: Pitxoia
**14:13** Beranduegi.tv
**14:28** Planik bai?
**14:48** Berriak
**15:08** Eguraldia
**15:13** Planik bai?
**15:23** Bizitegia
**15:53** Berbaz
**16:53** Berriak
**17:13** Eguraldia
**17:18** Planik bai?
**17:38** 28. Klip
**18:02** Harira
**18:32** Ekogune
**19:02** Beranduegi.tv
**19:21** Walker: Amezketa
**19:56** Zorion agurrak
**20:01** Berriak
**20:21** Eguraldia
**20:26** Planik bai?
**20:46** Harira
**21:16** Berriak
**21:36** Eguraldia
**21:41** AsteON
**22:11** Berriak
**22:31** Eguraldia
**22:34** Planik bai?
**22:44** Walker: Amezketa
**23:19** AsteON
**23:49** Planik bai?
**00:09** Berriak.

**ZAPATUA, 9**

**10:00** Ipupomamua
**10:26** Zorion Agurrak
**10:31** 28.Klip
**10:55** Planik bai?
**11:05** AsteON
**11:40** Berbetan
**12:14** Bizitegia
**12:44** Erreportajea
**13:34** Onein
**14:06** Berriak
**14:21** Magazinea
**15:21** Gipuzkoa kultura
**15:51** Harira
**16:21** Planik bai?
**16:31** Zorion Agurrak
**16:36** Berriak
**16:51** Onein
**17:13** Ekogune
**17:43** Gipuzkoa kultura
**18:13** Altxor Txokoa
**18:46** Zorion Agurrak
**18:51** Eskola Txikien festa
**19:41** Berbaz
**20:41** Beranduegi.tv
**20:56** Magazinea
**21:56** Planik bai?
**22:06** Goierri Creation Center
**22:31** Harira
**23:01** Gipuzkoa kultura
**23:31** AsteON
**00:16** Goierri Creation Center

**DOMEKA, 10**

**10:00** Hamaika.bit
**10:30** Ipupomamua
**11:00** Zorion Agurrak
**11:05** Onein
**11:27** Magazinea
**12:27** Bizitegia
**12:52** Berriak
**13:07** Onein
**13:35** Gipuzkoa kultura
**14:05** Tertulia
**15:05** Zorion Agurrak
**15:10** Berriak
**15:25** AsteON
**16:00** Gipuzkoa kultura
**16:30** Goierri Creation Center
**16:55** Berriak
**17:10** Magazinea
**18:10** Harira
**18:40** Beranduegi.tv
**18:55** Magazinea
**19:55** Ekogune
**20:25** Berbetan
**20:59** Zorion Agurrak
**21:04** Eskola Txikien festa
**21:29** Magazinea
**22:04** Goierri Creation Center
**22:31** Berriak
**22:46** Bizitegia
**23:16** Magazinea
**00:10** Eguraldia.

**ASTELEHENA, 11**

**12:30** Magazinea
**13:30** Zorion Agurrak
**13:35** Onein
**14:07** AsteON
**14:42** Zorion Agurrak
**14:47** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:12** Ur eta lur
**15:42** Eskola Txikien festa
**16:32** Altxor Txokoa
**16:45** Berriak
**17:05** Eguraldia
**17:10** Zorion Agurrak
**17:15** Ur eta lur
**17:47** Onein
**18:12** Berbaz
**19:17** AsteON
**19:52** Berriak
**20:12** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Berriak
**21:25** Eguraldia
**21:30** Harmailatik
**22:15** Magazinea
**23:00** Harmailatik
**23:45** Berriak
**00:09** Eguraldia.

**MARTITZENA, 12**

**12:30** Magazinea
**13:15** Zorion Agurrak
**13:20** Harmailatik
**14:05** AsteON
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:55** Onein
**16:20** Altxor Txokoa
**16:53** Berriak
**17:18** Eguraldia
**17:21** Bizitegia
**17:51** Harmailatik
**18:37** Berbetan
**19:11** Hamaika.bit
**19:41** Ikusmira
**19:55** Berriak
**20:15** Eguraldia
**20:18** Magazinea
**21:03** Zorion Agurrak
**21:08** Berriak
**21:28** Eguraldia
**21:33** Harira
**22:03** AsteON
**22:33** Magazinea
**23:18** Goierri Creation Center
**23:44** Berriak.

**EGUAZTENA, 13**

**12:15** Magazinea
**13:00** Zorion Agurrak
**13:05** Harira
**13:40** Beranduegi.tv
**13:55** Harmailatik
**14:41** Zorion Agurrak
**14:46** Berriak
**15:06** Eguraldia
**15:11** Gipuzkoa kultura
**15:41** Onein
**16:03** Goierri Creation Center
**16:28** Berriak
**16:48** Eguraldia
**16:51** Harmailatik
**17:34** Ekogune
**18:04** Gipuzkoa kultura
**18:34** Beranduegi.tv
**18:49** Harira
**19:24** Zorion Agurrak
**19:28** Beranduegi.tv
**19:50** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**20:53** Lehiaketa
**21:01** Berriak
**21:21** Eguraldia
**21:24** Magazinea
**22:02** Ekogune
**22:32** Tertulia
**23:32** Berriak
**23:57** Eguraldia
**00:08** Eguraldia
**00:13** Planik bai?.

**EGUENA, 14**

**12:25** Magazinea
**13:10** Zorion Agurrak
**13:15** Ekogune
**13:45** Tertulia
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:10** Hamaika.bit
**15:40** Esatea libre
**16:45** Altxor Txokoa
**17:18** Eguraldia
**17:23** Tertulia
**18:23** Ur eta lur
**18:55** Ekogune
**19:30** Planik bai?
**19:50** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**20:55** Planik bai?
**21:15** Berriak
**21:40** Eguraldia
**21:43** Hamaika.bit
**22:13** Goierri Creation Center
**22:38** Planik bai?
**22:58** Magazinea
**23:43** Berriak
**00:14** Planik bai?
**00:34** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Arrasateko hainbat komertziok ziurtagiria jaso dute

Arrasateko 20 komertziok UNE 175001 zirtagiria jaso dute. EAEko komertzio on kopuru handien duen bigarren herria da Arrasate. Baina nolako dendak dira? Zer hartu du kontuan Euskal Denda Erakundeak hori erabakitzeko? Erantzun guztiak astelehenean, 10:30ean.

### Egubakoitzean disko sorta bat zozketan 107.7ko uhinetan

Disko sorta bat opari. Arrasate Irratiko zozketan parte hartzen baduzu, disko sorta bat eskura dezakezu. Horretarako, deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *irratia@goiena.com* edo *@arrasategoiena*-ra. Zozketa egubakoitzean izango da. Zorte on!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 9** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Domeka, 10** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Astelehena, 11** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Martitzena, 12** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguaztena, 13** | ETXEBERRIA | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| **Eguena, 14** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Egubakoitza, 15** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 9** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Domeka, 10** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Astelehena, 11** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Martitzena, 12** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguaztena, 13** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguena, 14** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Egubakoitza, 15** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 9** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 10** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 11** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 12** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 13** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 14** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Egubakoitza, 15** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA / ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 9** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Domeka, 10** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Astelehena, 11** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Martitzena, 12** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Eguaztena, 13** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Eguena, 14** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Egubakoitza, 15** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## GAZTE INFORMAZIOA

### BEKAK

**Ikerketa** Koldo Mitxelena Ikerketa Beka. Errenteriako euskaldunen historia soziala eta euskara ikertzea du helburu. Epea: uztailaren 13a.

**Kutxabank** Socrates/Erasmus programetarako 2012-2013 Kutxabank bekak. Epea: ekainaren 24a.

### LEHIAKETAK

**Maketak** Musikirun II. Maketa Lehiaketa. Talde zein bakarlariek har dezakete parte. Epea: ekainaren 15a. *www.gipuzkoangazte.info.*

**Argazkilaritza** Hondarribiko Erdi Aroko azokako argazki lehiaketa. Epea: uztailaren 5a.

### LANA

**Dinamizatzailea** Txatxilipurdi Elkartea. Musakolako Igerilekuan euskarazko irakurgaien eta mahai jolasen mailegua dinamizatzeko pertsona bat behar da. Epea: ekainaren 10a. *www.gipuzkoangazte.info.*

### IKASTAROAK

**UEU** UEUko 40. Udako Ikastaroak. Artea eta Musika, Giza Zientziak, Ingeniaritza... hainbat gai aurtengo edizioan. *www.ueu.org.*

**EHU/UPV** Mota guztietako udako ikastaroak Bilbon. Plazak agortu arte. Tel.: 94 601 71 43

**Ikasteko gelak** Donostiako EHUko Ignacio Maria Barriola Eraikineko gelak ikasteko areto bihurtuko dira azterketa garaian eta EHUko ikasleentzat irekiko dira asteburuetan. Uztailaren 8ra arte.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

## HILDAKOAK

**Juan Jose Gonzalez Otaegui.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 74 urte.

**Maxima Belategi Arriola.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 81 urte.

**M. Josefa Gurrutxaga Arozena.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 82 urte.

**Indalecio Moyano Rodriguez.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 55 urte.

**Eugenio Beain Biain.** Bergaran, ekainaren 1ean. 86 urte.

**Nemesio San Jose Ares.** Arrasaten, ekainaren 4an. 86 urte.

## EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

**ZAPATUA, 9**
Max. 24º
Min. 12º
Giro egonkorra eta tenperatura igo egingo da. Zerua nahiko garbi egongo da, nahiz eta tarteka hodei multzo batzuk agertu.

**DOMEKA, 10**
Max. 21º
Min. 12º
Tenperatura pixka bat jaitsi egingo da, eta hodei multzoak ugaritu. Zerua goibel eta tarteka euria egingo du.



## Haritz eta Maider

Haritz Maiz eta Maider Mora ekainaren 9an ezkonduko dira. Zorionak, bikote! Desiratzen gaude egun berezi hau zuekin ospatzeko. Besarkada eta muxu potoloak, familiaren eta lagun guztien partetik.



## Julio eta Naiara

Julio Hernandez eta Naiara Alonso ekainaren 9an ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Oso ondo pasatu eguna familiakoekin, eta ekainaren 23an denok batera ospatuko dugu! Zorionak, klaseko lagunen partetik!



## Ainhoa eta Josu

Ekainaren 9an Ainhoa Guridi eta Josu Lete ezkonduko dira. Heldu da zuen egun handia, pauso berri bat zuen elkarbizitzan! Izan zoriontsu eta ondo pasatu bai ezkontzan eta baita Thailandiako bidaian ere! Zorionak, lagunen partetik!

OROIGARRIA

## Manuel Mundiñano Ezkutari

Amaia Mundiñano Goienako langilearen aitona

2012ko ekainaren 3an hil zen.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

goiena"

**Goiena Komunikazio Taldea.**
**Debagoienean, 2012ko ekainaren 8an.**

OROIGARRIA

## Juan Jose Gonzalez Otaegui



2012ko ekainaren 1ean hil zen, 74 urte zituela.

*Alaia zinen,*
*guztien gainetik,*
*borondatean ere*
*ez zeneukan faltarik,*

*nahiz eta urrun joan*
*mundu honetatik*
*ez duzu aldegingo*
*gure bihotzetik.*

*Gero arte, aitita.*

**Odei, Paula, Maddi eta Aines.**
**Arrasaten, 2012ko ekainaren 8an.**



## Eneko eta Izaskun

Enero Agorria aretxabaletarra eta Izaskun Lumbreras arrasatearra ekainaren 9an ezkonduko dira Arrasateko udaletxean, 13:00etan. Muxu potolo bana, zoriontsu izan, bikote, eta ederto ibili AEBetan eta Ertamerikan! Arrasateko koadrilakoak eta zuen ilobak, June eta Lide.

URTEURRENA

## Teresa Bilbao Mugica



Fermin Aranaren alarguna

2011ko maiatzaren 27an hil zen.

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 10ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Nicolas Arcelus Fernandez de Arroyabe



jauna

1929-01-07 / 2011-06-02

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 10ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**



## Jon eta Ane

Jon Sanchez eta Ane Fernandez de Arroiabe ekainaren 9an, zapatuan, ezkonduko dira Oñatiko Bidaurretako elizan. Ondoren, lagunekin eta familiakoekin ospatuko dute, Etxeberrin bazkalduta. Ondo ibili ezkontza egunean eta zoriontsu izan, lagunen partetik!

URTEURRENA

## Angela Urzelai Kortabarria



Antonio Gantxegiren alarguna

2011ko ekainaren 5ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 10ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria



Bigarren urteurreneko meza domekan, ekainaren 10ean,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

—

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.*
*Eta itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.*
*Zure sendiak.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**



## Jon eta Lorea

Galdakaoko Jon Gurtubai eta Antzuolako Lorea Pavo ekainaren 9an ezkonduko dira Donostiako udaletxean. Zorionak, bikote, eta muxu potolo bat Antzuolako familiaren partetik!

URTEURRENA

## Asuntxi Anduaga Elorza



Felix Olabarria 'Bolu Barri'-ren alarguna

2011ko ekainaren 20an hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 10ean,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

—

*Duela urtebete alde egin arren gure artetik*
*sekula etzara joango gure bihotzetik.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

**ARRASATE VII. Ardo eta Gazta Eguna**
Herriko Plazaren bueltan zapatuan, 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik gauera bitartean Mondrak antolatuta, Ardo eta Gazta Eguna ospatuko dute. Edateko gozoarekin batera, jatekoa ere izango da: txistorra goizean eta Giokelaren okela arratsaldean.
Bihar, zapatua, herriko plazan, 11:00etan.


GOIENA


GOIENA

**BERGARA Bipolar proiektua aurkeztuko dute**
Alejando Ferreira eta Bingen Mendizabal musikariek Bipolar proiektua aurkeztuko dute Kai tabernan. Iparraldearen eta hegoaldearen arteko lotura, positiboa eta negatiboa... gai horiek landuko dituzte kontzertuan.
Bihar, zapatua, Kai tabernan, 19:30ean.

# NON-ZER

EKAINA 08
EKAINA 14

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Lauroba taldearen emanaldia**
Lauroba taldeak kontzertua eskainiko du Munibe plazan. Antolatzailea Jardun euskara elkartea izango da.
Gaur, egubakoitza, Munibe plazan 22:30ean.

**ARRASATE Goikobalu Txiki eta Gazte, El Incarnatus ganbara orkestra, Eñaut Elorrieta, Amaren Alabak eta Baigorriko gaiteroak**
Betiko kantu herrikoiak nahiz kantagintza berrikoak abestuko dituzte. 2011ko Nafarroaren Egunaren harira antolatutako emanaldia da.
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian 22:00etan.

**OÑATI Joseba Irazokiren kontzertua**
Berako musikariak zuzeneko bitxia eta zoroa egingo du Antton tabernan.
Gaur, egubakoitza, Antton tabernan 20:00etan.

**OÑATI Musika eskolako haize taldekoen kontzertua**
Michel Telo, Amy Winehouse eta beste hainbat musikariren piezak joko dituzte. Euria egingo balu bertan behera geratuko litzateke emanaldia.
Gaur, egubakoitza, Portuko plazatxoan, 19:30ean.

**ARRASATE Bitter Honey, Iluntz tabernan**
Arrasateko banda 2008an sortu zen, eta musikalki hard rock klasikoa lantzen dute. Iluntz taberna girotuko dute musikariek.
Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan 19:30ean.

**OÑATI Disko festa jaialdia**
Sound Proyect bikoteak Oñatiko plaza girotuko du Copus jaietako zapatuan. Dantzan jarriko ditu ikusleak.
Bihar, zapatua, plazan 20:30ean.

**BERGARA Udaberriko kontzertua**
Musika Eskolako udaberriko kontzertua eta ondoren afaria Udal Pilotalekuan.
Bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

**ARAMAIO Belceblues taldeak kontzertua emango du**
Txirritola euskara elkarteak antolatuta blues doinuak eskainiko ditu Bergarako hirukoteak. Sastiñan izango da emanaldia, 19:30ean.
Gaur, egubakoitza, Sastiñan 19:30ean

**ARRASATE Zumaiako banda**
Margoa eta musika nahastuko dituzte emanaldian.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian 20:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**BERGARA 'Circus day'**
12 urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako ikuskizuna. Martinez de Iralako patioan: jokoak, tailerra, ikuskizuna...
Gaur, egubakoitza, Martinez de Iralako patioan 17:00etan.

## ANTZERKIA

**OÑATI 'Bodologuak', helduendako antzezlana**
Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu igoko dira oholtza gainera Santa Anan, *Bodologuak* lana eskainiko dute, umorezko saioa izango da. Sarrera: 10 euro.
Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian 22:30ean.

**BERGARA 'Eunon' antzezlana**
Apropox antzerki taldeak *Eunon* emanaldia eskainiko du Zabalotegi aretoan. Sarrera 5 euro.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin 22:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ARRASATE EHLk antolatuta afaria eta ekitaldia**
Euskal Herriaren Lagunak antolatuta afaria eta ekitaldia egingo dute. Txartelak 12 euroren truke daude salgai Irati Tabernan.
Bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean 22:00etan.

**ESKORIATZA Eskoriatza Kirol Elkartearen jaia**
Saskibaloia, areto futbola, tortilla lehiaketa, parrillada, herri bazkaria... egingo dute Eskoriatza Kirol elkartearen jaiaren barruan.
Bihar, zapatua, kiroldegian 11:30ean.

**ARETXABALETA Kurtzebarri eskolako jaia**
Kurtzebarri eskolako kideek urteroko jaia ospatuko dute.
Bihar, zapatua, Herriko plaza, Iralabarri, Gernika plaza eta Iturrigorri frontoian 11:00etan.

**ESKORIATZA Luis Ezeiza herri eskolako jaia**
Ikasleen dantzak, jolasak, bazkaria, musika...
Bihar, zapatua, plazan 11:00etan.

**BERGARA Ikasturte amaierako jaia**
Jardun euskara elkartearen ikasturte amaierako jaia Muniben.
Gaur, egubakoitza, Munibe plazan 18:00etan.

## JAIAK

**ANTZUOLA Ondarreko jaiak**
Zapatuan eta domekan jaiak ospatuko dituzte Antzuolako Ondarre auzoan. Zapatuan: 12:00 Gimkana; 16:30ean igerilekuak edo jolasak, eguraldiaren arabera; 18:00etan Zurrumurru taldearen Arkakusoaren zirkoa; 19:00 Krossa; 21:00etan Auzo-afaria, eta, 22:00etan Erromeria. Auzora etortzen diren guztientzako kafea osagarri guztiekin. Domekan: 10:00etan diana txistulariekin; 12:00etan prozesinoa; 12:30ean dantzarien saioa; 13:00etan salda eta txorizoa, eta ondoren jaien bukaera egingo dute.
Ekainaren 9 eta 10, auzoan.

**BERGARA Otaba jaiak Elosuan**
Zapatuan eta domekan jaiak ospatuko dituzte Bergarako Elosua auzoan. Zapatuan ekitaldi bakarra izango dute: 16:30ean mus txapelketa izango dute Ixaun tabernan. Domeka mezarekin hasiko dute (12:00etan); 13:00etan pilota partiduak; jarraian triki poteoa Lutxurdio, Aitziber eta Kanterarekin; 14:15ean erretiratuen bazkaria; 17:30etan herri kirolak. Astelehenean, 12:00etan meza; 13:00etan hamarretakoa eta trikipoteoa: 15:00etan auzo bazkaria; 17:30ean jolasak; 19:00etan poteoa; 21:00etan afaria eta erromeria.
Ekainaren 9, 10 eta 11, auzoan.

**OÑATI Corpus prozesioa**
Corpus jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Oñatin. Domekan ospakizun nagusiak egingo dituzte: erlijioak, folkloreak eta tradizioak bat egingo dute Oñatiko kaleetan. San Migel, apostolu eta santuek prozesioa egingo dute parrokiatik irtenda. Meza nagusiaren (11:00) ondoren izango da prozesioa.
Domekan, herriko kaleetan, 11:30ean.


GOIENA

## UMEAK

**OÑATI Umeendako tailerrak Etxaluzen**
Tailer afrikarrak eta herri kirolen tailerrak egingo dituzte. Eguraldi txarra egiten badu, Zubikoan egingo dituzte.
Bihar, zapatua, Etxaluzen 17:00etan.

**ELGETA Gazteleku zerbitzua**
11 urtetik gorako gazteendako doan izango da gazteleku zerbitzua.
Gaur, egubakoitza, Gaztelekuan 18:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI Herri batzarra: 'Askatasun haizea dabil'**
Egoera politikoaren eztabaida, sortu eztabaida prozesua, gazte erakundearen hausnarketa, sindikatuaren VIII. biltzarraren gako nagusiak eta Legebiltzarreko hauteskundeak jorratuko dituzte.
Bihar, zapatua, Kultura etxean 10:30ean.

**OÑATI 'Parot Doktrina'-ri buruzko hitzaldia**
Oñatiko Herrirak antolatu du, Alberto Plazaolari ezarritako Parot Doktrinari buruz berba egiteko.
Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 19:00etan.



JULIO CALLEJA

**ARRASATE 'Hitzen musikaz hazi' kantaldia**

2011ko Nafarroaren Egunerako prestatutako ekitaldia da *Hitzen musikaz hazi*. Goikobaluko kantari txiki eta gazteekin Eñaut Elorrietak, Et Incarnatus orkestrak, Amaren Alabak, Baigorriko gaiteroek eta Juantxo Zeberiok jardungo dute.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 22:00etan.

**OÑATI Gaztelekuak kudeatzeko ereduei buruzko mahai-ingurua**

Gaztelekua Herrijorran egitasmoaren barruan antolatu dute. Kudeaketa ereduak eta esperientzia ezberdinak partekatuko dituzte Gernikako Astra eta Arrasateko gaztetxeetako eta Elorrioko Arriola Kultura Elkarteko ordezkariek.

Gaur, egubakoitza, Gaztelekuan 19:00etan.

## BESTELAKOAK

**BERGARA 'Zast!' eta Jon Basaguren**

'Zast!' helduentzako kontakizun musikatuen eta Jon Basaguren bakarlariaren emanaldia Bergarako Gaztetxeko 12. urteurreneko egitarau zabalaren barruan. 21:00ean afaria egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Kartzela Zaharrean 22:30ean.

**OÑATI Afaria San Martingo etxe okupatuan**

Afariaren ostean, solasaldia: abertzaletasunaren historia, abertzaletasunari kritika, independentismoa indartzeko estrategiak, eszentralismoari kritika...

Gaur, egubakoitza, San Martingo etxe okupatua 20:30ean.

## IKASTAROAK

**ARRASATE Lore sikuen ikastaroa**

Bilketaren dekalogoa, lore eta hostoak sikatzeko hainbat teknika, prentsatzeko moduak, eta arlo praktikoan lore sikuekin apaindutako orri-markatzaileak egingo dira. Prezioa 10 euro, auzokoendako 5 euro.

Bihar, zapatua, Bedoña auzoko eskola-etxean 10:00etatik 12:00etara.

## KIROLA

**ESKORIATZA II. Gabez Takarraran**

Gabeko mendi lasterketa egingo dute Eskoriatzan. Bigarren edizioa izango da.

Bihar, zapatua, plazan 23:00etan.

**OÑATI X. Oñatiko nazioarteko lasterketa**

Kalerik kale egingo dute Antxintxiketan taldeak antolatuta herri lasterketa. Mundu mailako atleta onenak etorriko dira.

Bihar, zapatua, Unibertsitate etorbidetik hasita 19:00etan.

**BERGARA San Antonio saria**

San Antonio txirrindularitza saria jokatuko dute gaztetxoek. Euskadiko txapelketarako puntuagarria izango da.

Bihar, zapatua, San Antonion 16:00etan.

**OÑATI Herri lasterketa gaztetxoendako**

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoendako probak egingo dituzte herriko plazan. Corpus egunaren barruan antolatutako Nazioarteko lasterketaren harira egingo dute gaztetxoendako lasterketa horiek ere.

Bihar, zapatua, Foru plazan 12:00etan.

## DEIA

**ANTZUOLA La Arboledara irteera**

Erretiratuek irteera egingo dute La Arboledara ekainaren 20an. Izen-ematea ekainaren 12an eta 13an izango da.

Ekainaren 12a, martizena, erretiratuen elkartean.

# ZINEMA

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**Los juegos del hambre**
Domekan: 19:30.
Astelehena: 20:30

**Los cachorros y el código de Marco Polo**
Domekan: 17:00.

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**Profesor Lazhar**
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Domekan: 19:30, 22:30.
Astelehenean: 19:30.

## EIBAR

### COLISEO

**La pesca del salmon en Yemen**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domekan:17:00, 20:00.
Astelehenean: 20:30.

**Los diarios del ron**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan:20:00.
Astelehenean: 20:30.

**Los cachorros y el codigo de Marco Polo**
Zapatuan: 17:00.
Domekan:17:00.
Astelehenean: 20:30

### COLISEO ANTZOKIA

**Por fin solos!**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan:20:00.
Astelehenean: 20:30

**Blancanieves y la leyenda del cazador**
Zapatuan: 17:00.
Domekan:17:00.
Astelehenean: 20:30

## GASTEIZ

### GURIDI

**Blancanieves y la leyenda del cazador**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 017:30, 20:00.

**Sombras tenebrosas**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

**Los juegos del hambre**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

**En fuera de juego**
Egubakoitzetik domekara: 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Miss Bala**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**Marvel, los vengadores**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15

**Las nieves del Kilimanjaro**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Men in black III**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

### FLORIDA

**Las chicas de la 6ª planta**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22.30.

**Intocable**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Los cahorros y el código de Marco Polo**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Los niños salvajes**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

**¿Y si vivimos todos juntos?**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20.15, 22.30.

**4 lovers**
Egubakoitzetik astelehenera: 18:00, 20.15, 22:30.
Martitzenetan: 18:00, 22:30.
Eguaztena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**El profesor Lazhar**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Miel de naranja**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Todo está oscuro**
Martitzenean: 20:00.

### BOULEVARD

**Project X**
Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:00.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.

**Blancanieves y la leyenda del cazador**
Egunero: 17:30, 19:00, 20:00, 21:30, 21:40.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:00
Zapatu eta domeketan, baita:16:30

**Men in black III**
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:45.
Zapatu eta domeketan, baita:15:45.

**Men in black III 3D**
Egunero: 118:45, 21:15, 21:30.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 23:30.

**Sonmbras tenebrosas**
Egunero: 117:45, 20:00, 22:15.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:30
Zapatu eta domeketan, baita: 15:30.

**Marvel-Los vengadores 3D**
Zapatu eta domeketan: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 18:15.

**Marvel-Los vengadores**
Egunero: 18:30, 21:30.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:30.

**Miel de naranjas**
Egunero: 18:35, 20:35..
Zapatu eta domeketan, baita: 16:35.

**La sombra de la traicion**
Egunero: 22:35.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:35.

**Infiltrados en clase**
Zapatu eta domeketan: 17:30

**Intocable**
Egunero: 20:25.

**American pie: el reencuentro**
Egunero: 22:25.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:40.

**Lorax**
Zapatu eta domeketan: 16:30.

**El arte de amar**
Zapatu eta domekan: 16:20.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:20.

**Cuando te encuentro**
Egunero: 18:20, 20:20, 22:20.

### GORBEIA

**El gran año**
Egunero: 17:50, 20:00, 22:10.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:20.
Zapatu eta domekan, baita: 15:40.

**Anna Bolena**
Eguenean: 20:30.

**Blancanieves y la leyenda del cazador**
Egubakoitzetik domekara: 15:30, 17:00, 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:00, 00:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:00, 20:00, 21:30, 22:30.

**La sombra de los otros**
Egunero: 19:40, 22:00.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:20.

**En fuera de juego**
Egunero: 20:30, 22:40.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:50.

**Por fin solos!**
Egunero: 18:30.

**Men in black III**
Egunero: 17:30, 19:45, 22:00.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:15.

**Men in black III 3D**
Egunero: 18:15, 20:30, 22:45.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:55.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.

**La sombra de la traicion**
Egunero: 21:45.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:00.

**Sombras tenebrosas**
Egunero, eguenean izan ezik: 18:00, 20:15, 22:30.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:45.
Zapatu eta domeketan, baita: 15:45.

**Sombras tenebrosas**
Eguenean: 18:00.

**American pie: el reencuentro**
Egunero: 22:20.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:40.

**Intocable**
Egunero: 17:30, 20:10.

**Lorax**
Egunero:18:20.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:30.

**Los vengadores**
Egunero: 19:00.

**Los vengadores 3D**
Zapatu eta domeketan: 16:15.

**Los cachorros**
Zapatu eta domeketan: 16:30.

**Soul surfer**
Zapatu eta domeketan: 15:30.

# KRITIKA



**PROFESOR LAZHAR** ★★★☆☆

**Zuzendaria:** Philippe Falardeau.
**Herrialdea:** Kanada.
**Urtea:** 2011.
**Aktoreak:** Mohamed Fellag, Sophie Nélisse, Émilien Néron.
**Iraupena:** 94 minutu.

## Hezkuntzaren garrantzia

Haurtzaroa bizitzako oso garai garrantzitsua da. Horregatik, irakasleek duten lana funtsezkoa da haurren lehenengo urteetan. Irakasleen eta ikasleen arteko harreman horietan oinarritzen da Profesor Lazharen istorioa. Harreman horiek agertzen dira eta horien inguruan beste gai batzuk ere sortzen dira: herrien arteko burokrazia, herrialdeen ohitura desberdinak, indarkeriaren eragina, gurasoak izaten duten jokaera... Gai horiek guztiak aipatzen dira, baina sakontasunean sartu barik. Ez dira erantzunak ematen, galderak egiten dira gizarteari buruz pentsarazteko.

Profesor Lazhar Aljeriatik dator, bere emazte eta seme-alabak hil dituztelako, eskola batera helduko da lan bila. Eskolako irakasle batek bere burua hil egin du eta irakasle berri bat behar dute. Irakasleak eta ikasleek oso momentu latzak bizi izan dituzte; hala, euren artean sortuko diren harremanak istorioaren erdigune bihurtuko dira. Ikasleen artean ikuspuntu desberdinak daude: mutiko bat errudun sentitzen da edo besteek errudun sentitzea eragiten dute. Irakaslea beste kultura batera moldatu behar da. Bi alderdiak ezagutuz joan dira, baina inguruan harreman horiek zailtzen duten osagaiak daude. Filmean ez da agertzen arazo guztiak konpontzen dituen irakaslea. Profesor Lazharen nahiko tonu errealista erabiltzen da. Eguneroko bizitza nahiko modu egokian deskribatzen da. Hori bai, 11 urteko ikasleen jokaera agian helduegia da. Bai, pentsatzen dut haurrek arazo existentzialak izan dezaketela, baina zailagoa egiten zait sinestea horiek arazoen aurrean azaltzen duten arrazoibideak.

Hala eta guztiz, film interesgarria da. Apaltasunez baina argitasunez, heziketaren problematikari buruz hitz egiten da. Bukaeran gaiaren garrantziaz jabetuko da ikuslea eta, gainera, gauza asko nahiko gaizki egiten ditugula jabetuko gara.

ANTONIO ZABALA

TIRA-BIRAKA




goiena" 2012-06-08

BUKATZEKO

# Mariaren Lagundikoen 'birusa' garaile

▶ Gaztearen bideoklip lehiaketako txapeldunak izan dira DBHko laugarren mailako ikasleak

▶ Ordu asko eman dituzte entseatzen, eta emaitza polita izan da, profesionalen moduan egin dute dantza

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Bergarako jaien ostean birus arraro bat gelditu da herrian, eta jendeak ezin dio dantza egiteari utzi. Horixe da Mariaren Lagundiko DBHko laugarren mailakoek egin duten bideokliparen istorioa. Askori, akaso, ezaguna egingo zaie kontua, azken hilabeteetan sekulako arrakasta izaten ari den LMFAOren *Party Rock Anthem* abestiaren bideokliparen argumentua antzekoa da-eta. Bada, Mariaren Lagundiko ikasleek egokitu egin dute bideo originala. Ez dute detaile bat bera ere kanpoan utzi eta originalaren berdin-berdina egitea lortu dute. Ikusgarria da benetan.

## Entsegu ordu asko

Emaitza hori lortzeko orduak eta orduak eman dituzte entseatzen. "Ikaragarria izan da ikasleek egin duten esfortzua. Askotan, eguerdian etxera bazkaltzera joan barik entseatzen gelditzen ziren ikastolan. Ogitartekoa azkar jan eta gelara itzultzen ziren. Txalogarria izan da".

Martitzenean jakin zuten berria eta astean zehar ez da izan beste gairik izan Mariaren Lagundiko pasilloetan. Bada, irabazitako 3.000 euroekin zer egin pentsatzen ari dira orain.



Bideoklipean parte hartu duten DBHko laugarren mailako ikasleak. Behean, kliparen irudi batzuk. | ARRITXU BARRUSO







AZKEN BERBA



MIKEL IRIZAR

## Zinema politikoa

Bi euskal film tokatu zaizkit parean egunotan: *Gartxot* eta *Gazta zati bat*. Lehena ikusia nuen estreinatu berritan, duela ia urte bete. Besteari oraindik labearen epeltasuna dario.

*Gartxot* da begirada bat iraganari eta argi erakusten du historia zenbateraino den ezberdina begiaren arabera. Memoria historikoa eta iraganaren kontakizuna denon ahotan dabiltzagunean, XII. mendeko gertakari lazgarriak agerian uzten ditu egungo egoerara ekarri gaituzten dominazio mekanismoak eta ahalegin genozidak. Marrazki animatuak dira baina ez da haurrentzat egina, ez eta bihotz bigunentzat.

*Gazta zati bat* gehiago da etorkizunaz hausnarketa, dokumentalen moldean, eta aztertzen du Idiazabalen sortutako mugimendu bat familia politiko ezberdinen artean erabakitzeko eskubidea bultzatzeko. Herri kirola eta gazta oinarri hartuta, Eskoziarekin hainbat urtez landutako harremana kontatzen da eta bidea eginez ekimenak izan duen garapena.

Bi filmak bete-betean dira zinema politikoa, oraintxe behar dugun klasekoa. Hau da, bultzatuko gaituena epe luzeko ildoak herritarron artean mamitzera, gero alderdiek eguneroko kudeaketan gauzatu ditzaten.

b+b
batu-banatu
banaketak neurrira
Tel.: 943 08 10 50
banaketak@batubanatu.com

**Banaketa aukera ezberdinak**
• Banaketa **masiboa**.
• Banaketa **pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
• **Goiena papera**rekin batera (astelehenetan eta ostiraletan).
• **Autoz auto**ko banaketa.
• **Kartelak** ipini.

***Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.***



Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daude eta lan-arriskuen prebentzio legedia betetzen dugu.